

Zu hemen zaude. goiena

HAMAR URTE ATEZ ATEKOAREKIN

Antzuola izan zen hiri-hondakinak sailkatuta
batzeko atez ateko sistema ezarri zuen lehen
herria Debagoiengan; hamar urte bete ditu / 30

Antzuolar bat, etxeko hondakin organikoa
batzen duen edukiontzi marroia
zintzilikarioan uzten, atzo, eguena.

XABIER URZELAI



**Ohiko Aratusterik ez
aurten, baina Txapel
Txin eta Urdelardero
bai, Eskoriatzan eta
Aretxabaletan** / 19 eta 21

**Lander Diaz de
Gereñu (ULMA):
"D2030 beharrezkoa
dela sinetsarazi behar
diogu gizarteari"** / 8

**66 gutun eta 42
esaldi jaso ditu
Jardun elkarteak
Amodiozko Gutunen
Lehiaketan** / 40

SINADURAK



Historia, izurriek
eta gaixotasunek
markatuta

Xabier Barandiaran
irakasleari
elkarriketa

SKODA KODIAQ



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!


Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70



Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Koronabirusa Debagoiengan

| | Positiboak aste honetan | Positiboak aurreko astean | Positibo metatuak | Positiboak mila biztanleko |
|----------------|-------------------------|---------------------------|-------------------|----------------------------|
| Oñati | 69 | 10 | 710 | 61,91 |
| Bergara | 50 | 34 | 1.184 | 78,74 |
| Arrasate | 46 | 44 | 2.296 | 103,98 |
| Aramaio | 23 | 27 | 133 | 89,86 |
| Eskoriatza | 8 | 6 | 266 | 64,83 |
| Aretxabaleta | 7 | 16 | 510 | 72,03 |
| Antzuola | 4 | 5 | 162 | 74,35 |
| Elgeta | 0 | 0 | 51 | 45,09 |
| Gatzaga | 0 | 0 | 8 | 32,00 |
| GUZTIRA | 207 | 142 | 5.320 | 82,09 |

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Maialen Santos ARRASATE

Joan den egunetik eguazten honetara arte, 207 debagoiendar kutsatu ditu koronabirusak, aurreko astean baino 65 gehiago -142 izan ziren-. Positiboek goraka jarraitzen dute hirugarren astez bailaran. Zehazki, 5.320 dira COVID-19ak martxoaz geroztik ibarrean kutsatutakoak.

Azken egunetako positiboek gorakada nabarmena izan da Oñatin, 60 kasu izan dituzte. Zehazki, otsailaren 1ean intzidentzia-tasa ez zen 70era iristen, eta atzo 688,87koa zen. Positiboek gorakadari lotuta, Txantxiku Ikastolako Bigarren Hezkuntzako eta batxilergoko ikasle eta langileak deitu zituzten atzo PCR probak egitera, salbuespena izanik azken hiru hilabeteetan positibo izan direnak eta dagoeneko etxeratuta zeudenak. Gainontzeko ikastetxeetan ez dute, momentuz, baheketarik egingo, baina Zuazola-Larraña institutuan batxilergoko bigarren mailako ikasgela itxita dago. Horretaz gain, eskola-kiroleko saioak ere etenda daude eguaztenaz geroztik, eta hala jarraituko dute osasun egoera "hobetu" arte.

Egoeraren bilakaerari lotuta, Izaro Elorza alkateak adierazi du "mutur batetik bestera" pasa dela Oñati egun gutxian: "Bage-nekien momentu batetik bestera okertu zitekeela egoera, baina ez genuen espero aldaketa hain azkar gerta zitekeenik".

Gipuzkoako intzidentzia-tasa gainditu egin du Debagoienekoak

Positiboek goraka egin dute, eta 207 kasu izan dira azken egunetan. Oñatin izugarri egin dute gora positibo berriek, eta zerrenda gorrian sartu zen atzo, Bergara eta Aramaiorekin batera. Debagoieneko intzidentzia-tasak Gipuzkoakoa gainditu du

Bergaran ere positiboek gora egin dute azken egunetan -50 izan dituzte-, eta Aramaion joan den asteko joerari eutsi diote, nahiz eta aurreko astean baino lau kutsatu gutxiagorekin. Herri gorrien zerrendan ageri ziren atzo bi herriak, eta baita Oñati ere. Horri lotuta, Debagoieneko ESI ere eremu gorrian sartu zen.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, hiru pertsona zeuden ingresatuta atzora arte.

OSTALARITZA, ZABALIK

ESKUALDEAK 500EKO INTZIDENTZIA-TASA GAINDITU DU AZKEN HIRU EGUNETAN

Urtarrilaren 10az geroztik Debagoiengan, Gipuzkoan, Araban, Bizkaiaren eta Nafarroan izanda-

ko 100.000 biztanleko azken hamalau egunetako intzidentzia-tasaren bilakaera erakusten du goiko grafikoak. Gainera, markatuta dago Espainiako Osasun Ministerioaren arabera mutu-

reko arrisku-maila adierazten duen lerroa; 250etik gorako intzidentzia-tasa, hain zuzen ere.

Ikusten denez, urtarrilaren 10etik 23ra behera egin zuen tasak eskualdean, egun batzuk

Adinekoen egoitzetan kutsaturik ez

Debagoieneko adinekoen egoitzetan dagoeneko ez dago koronabirusak kutsatutako gaixorik. Aretxabaletako GSR Debagoiena zen kutsatuak zituen azken egoitza; baina joan den egunean, sendatu egin ziren horiek.

Bestetik, eskualdeko adinekoen egoitza guztietan dagoeneko hartu dituzte koronabirusaren aurkako txertoaren bi dosiak. Oñatiko San Martin egoitzako arduradun Nerea Agirrek adierazi du albo-efekturik ez dutela izan egoiliarrek: "Besoko mina izan zuten askok, baina horretaz gain beste eraginik ez dute igarri". Hori horrela, azaldu du immunizazio osoa lortzeko "zain" daudela orain: "Datozen egunetan immune izatea espero dugu. Hala eta guztiz ere, segurtasun neurri guztiak hartzen jarraitzen dugu".

salbuespen izan baziren ere. Egun hartatik, baina, gora egin du tasak, eta otsailaren 8an gainditu zuen 500eko langa.

Orokorrean, aipatu behar da otsailaren 10ean Nafarroa dela intzidentzia-tasarik baxuena duen Hego Euskal Herriko lurraldea; izan ere, 342,86koa zen tasa egun hartan. Gainontzeko hiru lurraldeetako eta Debagoieneko tasa 500ndik gaindi zegoen egun hartan, laurak ere oso parekatuta. Horretaz gain, azpimarratzekoa da azken egunetan Debagoiena izan dela intzidentzia-tasak gora egin duen toki bakarra, eta nabarmen egin du gora, gainera: otsailaren 1ean 307,05ekoa zen tasa eta otsailaren 10ean, aldiz, 538,5ekoa. Eskualdean ez bezala, gainontzeko lurraldeetan behera egin du tasak azken egunetan. Horri lotuta, esan behar da Debagoienaren hamalau eguneko intzidentzia-tasa Gipuzkoakoaren azpitik egon dela une oro, baina joera horrek berdintzera egin du azken egunetan, eta, zehazki, duela bi egun, eskualdeko tasak garaitu egin zuen lurraldekoa.

Gipuzkoako joera argia izan da, bestetik, urtarrilaren 10az geroztik pixkanaka goraka egin baitu intzidentzia-tasak. Urtarrilaren 20an gainditu zuen 400eko langa -420,57 zen egun hartako tasa- eta jarraian, hilaren 27an gainditu zuen 500ekoa.

Bizkaiari dagokionez, 291,89tik hasita eta goraka egin zuen in-


Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEKO TASA

100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



tzidentzia-tasak otsailaren 8an 703,02koa izatera arte. Nabarmendu behar da, baina, ordutik behera egin duela tasak, eta 600etik behera jaitsi da berriki; otsailaren 9an.

Bestetik, Araban ere gora egin zuen intzidentzia-tasak urtarri erditik otsail hasierara arte. Hasiera hartan, hain justu, mantendu egin zen egun batzuetan, eta, gerora, behera eginen dihardu, pixkanaka bada ere.

Azkenik, Nafarroan urtarriaren 30an erregistratu zuten tasarik altuena -464,46koa-. Esan behar da, halere, intzidentziaren bilakaera motela izan dela eta tasak ez duela denbora horretan 500eko langa gainditu. Otsailaren 10ean, 342,86koa zen tasa, hain zuzen.

OSTALARITZA, ZABALIK

AUZITEGI NAGUSIAK EREMU GORRIKO TABERNEN IREKIERA BAIMENDU DU

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak martitzen baimendu zuen 500etik gorako intzidentzia-tasa metatua duten herrietako ostalaritza-establezimenduen irekiera. Ostalarien elkarteek otsailaren 4an aurkeztutako helegiteari erantzunez hartu zuen erabaki hori. Eskualdean, Aramaio zen tabernak itxita zituen herri bakarra -Jaurlaritzak zerrendan sartu

zuelako astelehenean-. Ebazpenaren ondotik, baina, taberna batzuk ireki egin zituzten eguaztenean. Azpimarratu behar da, gainera, erabaki horregatik izan ez balitz, Bergaran eta Oñatin ere itxi egin beharko lituzkete-la tabernak gaurtik aurrera.

Ostalariek azaldu dute Auzitegiaren ebazpena "erabaki ona" iruditzen zaiela. "Ostalaritzan ere gerta daitezke kutsatzeak, beste toki guztietan moduan, baina ikusi da ez intzidentzia-tasa altua ez dagoela tabernei lotuta", adierazi du Arrasateko Kajo tabernako arduradun Antonio Murillok. Oñatiko Aker tabernako Luis Mari Fernandezek ere antzeko iritzia du, baina dio Jaurlaritzaren erreakzioak kezkatzen duela: "Orain neurriak gehiago zorroztu balitu, kalte handiagoak eragingo lizkiguke".

Auzitegi Nagusiaren erabakiaren harira, Bingen Zupiria Jaurlaritzako bozeramaileak azaldu zuen ez datozela "bat" erabakiarekin: "Larria iruditzen zaigu epaimahai batek bere kasa baloratzea LABIk eta profesionalak etengabe baloratzen duten arrisku epidemiologikoa". Hala, iragarri zuen Jaurlaritzaren zerbitzu juridikoei epaia aztertuko dutela, helegitea jarri ala ez erabakitzeke. Horri lotuta, Zupiriak azaldu du "dagoeneko hartuta dauden neurriak oso gogorrek direla".

Gaur bertan bilduko da LABI neurriak berrikusteko.

Azkenik, aipatzekoa da Auzitegiak ostalaritzari lotuta egin dako ebazpena ikusita eskola-kiroleko ordezkariak ere tribunaletara jotzea ari direla ikertzen; izan ere, herri gorrien zerrendan ageri diren herrietan etenda dago jardura hori.

TXERTAKETA-PLANA

SUHILTZAILEAK, IRAKASLEAK ZEIN ERTZAINAK, TXERTO HARTZEN HURRENAK

Espainiako Osasun Publikoaren Batzordeak AstraZeneca farmazetikaren eta Oxford Unibertsitatearen txertoa zein talde-erentzako izango den erabaki du asteon, eta horren baitan sartu ditu besteak beste, ertzainak, irakasleak eta suhiltzaileak. Horretaz gain, lehen lerrokoak ez diren osasun langileak ere ziztatuko dituzte: besteak beste, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, farmazia-bulegoetako langileak, lege-medikuntzako langileak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, adingabeen zentro eta eguneko zentroetako langileak eta espetxeetako langileak.

Txertoa asteburuan iritsiko da Espainiara, eta Hego Euskal Herrian, hain zuzen ere, 18 eta 55 urte arteko pertsonen jarriko zaizkie dosiak.

ARAU-HAUSTEAK

44 SALAKETA-PROPOSAMEN EGIN DITU ERTZAINZAK AZKEN BI ASTEETAN

Azaroaren 25az geroztik indarrean dauden "neurriak betetzen direla ziurtatzen" ari dira egunotan Ertzaintza eta Debagoieneko herrietako udaltzainak, GOIENARI azaldu diotenez. Batez ere, udalerrien arteko itxiera perimetralka ari dira kontrolatzen, eta horretarako kontrolak egiten ari dira errepideetan, bidegorrietan zein garraio publikoan. Hala, azken bi asteetan 44 salaketa-proposamen jarri ditu Ertzaintzak Debagoienean: horietako hamar izan dira udalerrien itxiera perimetralka errespetatu ez izanagatik, 27 etxeratze-agindua hausteagatik, sei baimendutako pertsona kopurua -lau- baino gehiago egoteagatik eta azken bat kale-zurruta egiteagatik.



Guillaumes eta Caballero, atzo, bulegoan. M.S.

"Gogoratu gura dugu gu ere bagarela komertzio txikia"

MAITE CABALLERO HALCON BIDAIAK ARRASATE

Mugikortasun mugek bidaia-agentzien lana eten dute

M.S. ARRASATE

Pandemiak gehien kaltetu dituen sektoreetako bat da bidaia-agentzia. Halcon Bidaia-eko bulegoa zabalik du Maite Caballero, baina lanik "apenas" du.

Zertan ari zara orain?

Esther Guillaumes lankidea eta biok iazko kontuekin ari gara, diru-errekamazioak egiten. Izan ere, oraindik ez dugu lortu airelineek bezero guztiei dirua itzultzea.

Bidaia erreserbak ez zarete hartzen ari?

Ez. Mugikortasuna mugatuta dagoenez, jendea ezin da udalerrietatik irten, eta, beraz, ez gara ari erreserbarik egiten. Laneko bidaia egin behar dituenik bada, baina oso gutxi dira horiek.

Zein da Aste Santura begirako aurreikuspena?

Galdutzat ematen dut. Aste gutxi falta dira horretarako, eta jakina, gauzak dauden moduan, erreserbarik ez dugu egin. Pertsona bat etorri zaigu galdezka, hala eta guztiz ere.

Zertan aritu beharko zinatekete orain?

Hain zuzen, Aste Santura begira egon beharko ginateke. Eta udarako erreserba batzuk egiten hasita baita ere. Eta hori gutxi balitz, martxoan urtero egiten dugu bidaia bat Arrasatek Kanariar irletara; horrekin ere izaten dugu lana sasoi honetan.

Bulegoa zabalik duzue?
Bai; goizez izaten gara bertan, bezeroei arreta eman gura ditugulako, behar badute. Arratsal-

deetan, aldiz, etxetik aritzen gara lanean, eta telefono bidezko arreta eskaintzen dugu.

Arrasaten dauden lau bidaia-agentzietatik bi daude itxita, Oñatin ere ez dira ari lanean, eta Bergaran bakarra dago zabalik...

Horrek erakusten du egoera latza dela oso, bai. Argi dago.

Dirulaguntzarik jaso duzue?

Bat bera ere ez. Jaurlaritzak turismora bideratuko dituen laguntzak ez zaizkigu iritsiko, frankizia delako gurea. Eta bestelako laguntzarik ere ez dugu izango.

Diru-sarrerarik ez duzue, hortaz...

Ez. Iazko martxotik ez dugu. Abuztuan izan genuen zertxobait, baina apenas. Eta bestelakoan, hutsaren parekoa da. Horren harira, gogora ekarri gura dut gu ere bagarela komertzio txikia; lankidea eta biok autonomoak gara eta.

Nola bizi duzu egoera?

Egia esan, egunaren arabera. Egun batean itxaropentsu sentitzen naiz, pentsatzen dudalako laster pasako dela guztia. Eta hurrengo egunean, agian, triste sentitu naiteke, egunak joan eta egunak etorri berri txarrak entzuten ditugulako.

Udara begirako aurreikuspenik?

Horretan dugu itxaropena jarrita. Ordurako gauzak hobetu daitezzen espero dugu, eta ea mugimendurik sumatzen dugu. Txertoak ere lagunduko du horretan, nire ustez. Halere, bidaia estatu barruan egin beharko ditugula uste dut.

"Haragia duen konposta hobe da ongarrri gisa"

JOSEBA SANCHEZ AGROBIOLOGOA

Hobeki elkarteak bio-hondakinei buruzko jardunaldia egingo du hilaren 17an, Oñatin; bertan hitza hartuko du Euskal Herriko egoerak eta erronkak zeintzuk diren azaltzeko

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Euskal Herrian hainbat eredu daude bio-hondakinak kudeatzeko, eta horiei buruzko hitzaldiarekin irekiko du gaiari buruz Oñatin egingo den jardunaldia. **Zein gai nagusi landuko dituzu Oñatin egingo duzun hitzaldian?**

Lehenik eta behin, bio-hondakinak zer diren azalduko dut; zer ulertzen dugun kontzeptu horrekin. Horren barruan sartzen dira etxeetan sortzen ditugun hondakin organikoak, herriko lorategietan sortzen direnak eta tabernek eta dendek sortzen dituztenak. Legalki eta ekonomikoki zer dakarten ere azalduko dut. Hala, Euskal Herriko errealitatearen argazkia aterako dut, helburuak betetzeko bidean martxa onean goazen edo ez ikusteko. Eta behin hori eginda, pare pare ditugun erronka nagusiei buruz jardungo dut; batez ere, lege eta arau aldetik.

Horren harira, kudeaketa ezberdinak daude EAE barruan. Gipuzkoan, adibidez, arrain eta haragi hondakinak organikora botatzen dira, baina Bizkaian, landare jatorrikoak bakarrik. Zergatik gertatzen da hori?

Irizpide ezberdinak aplikatzen dituztelako arduradunek. Euskal Herrian eredu asko ditugu arazo berari erantzuteko. Iparral-



Joseba Sanchez, agrobiologoa. JOSEBA SANCHEZ

dean, adibidez, soilik landare jatorriko hondakinak batzen dituzte organiko gisa, ostean konposterako erabiltzeko. Nafarroan, ordea, jatorri biologikoa duen dena batzen dute. Are gehiago, hondakin organikoak batzeko ez dute poltsa konpostagarririk erabiltzen. Euren sisteman horrek ez du arazorik eragiten. Eta EAE barruan probintzia bakoitzak bere politika du. Bizkaian, adibidez, landare jatorriko hondakinak bakarrik batzen dituzte; Gipuzkoan, aldiz, landare eta animalia jatorrikoak.

Landare jatorrikoak soilik batuta, aprobetxagarriak diren hainbat hondakin errefusera botatzen dira. Zer zentzu du horrek?

Bizkaian, adibidez, oso profil kimikoa zuten ikerlari batzuen irizpidean oinarritu ziren erabaki hori hartzeko. Soilik landare jatorriko hondakinak batuta, kalitate handiagoko konpost mota bat lortzen zela ondorioztatu zuten. Baina sistema horrekin beste leku batzuetan baino hondakin gutxiago aprobetxatzen dituzte, eta lortzen duten konpost kopurua oso ba-

xua da. Hala ere, kalitate handiagoko konposta dela ez da egia. Ni nekazaritza ingeniaria naiz, eta ikerketa bati esker frogatu ahal izan dut haragia duen konpostak askoz baliagarriagoa dela ongarrri gisa erabiltzeko. Substratu gisa erabiltzeko, ez hainbeste; baina ongarrri gisa, bai. Animalia jatorria duen konpostak nitrato gehiago du, eta nitrogeno hori lagungarria da ongarrri erabilera emateko. Substraturako, aldiz, muga gehiago ditu, nitrato horiek elektrizitate eroale izateko gaitasuna handitzen dutelako.

Zein beste onura izan ditu animalia jatorriko hondakinak erabiltzeko? Lehen ere aipatu dut, baina komeni da azpimarratzea: kopurua. Era horretara askoz kopuru handiagoa lortzen da esfortzu bera eginda. Egia esan, esfortzu

gutxiagorekin lortzen da, erabiltzaileentzat errazagoa delako. Ez dira pentsatzen aritu behar zein den landare jatorrikoa eta zein animalia jatorrikoa. Barregarria da, baina Elgetakoek ez dute pentsatu behar eta Elorrikoek, ordea, bai. Gainera, Europako legediak dio behartuta gaudela hondakin organiko guztiak ondo kudeatzera: landare jatorrikoak, eta baita animalia jatorrikoak ere. Azken horiek zabortegian eta errauskailuan amaitzen badute, arazoak eragiten dituzte.

"BIO-HONDAKINEN EREDU ASKO DAUDE EUSKAL HERRIAN; ARAZO BERBERA, EREDU GEHIEGI"

Hobeki, bio-hondakinekin kezkatuta

Hobeki elkarteak Euskal Herriko hainbat udalerrik osatutako sarea da, hondakin organikoak era jasangarriago eta eraginkorragoan kudeatzeko helburua duena. Hauek dira une honetan elkarteak osatzen dute udalak: Leintz Gatzaga, Antzuola, Aduna, Donemiliaga, Hernani, Larrabetzu, Oiartzun, Berastegi, Segura, Usurbil, Berriatua eta Zaldibia.

Otsailaren 17ko egitaraua, MUK Oñatik duen campusean

- **09:00** Sarrera, Hobekiko presidente Eneritz Arbelaitzen eskutik.
- **09:15** *Bio-hondakinaren egoera Euskal Herrian. Kudeaketa egoki baten aukerak eta erronkak* hitzaldia, Joseba Sanchez nekazaritza ingeniariaren eskutik.
- **10:00** *Oportunidades de la gestión local de biorresiduos. Plan Revitaliza Pontevedra* hitzaldia, Carlos Perezen eskutik.
- **11:00** *Bio-hondakinaren kudeaketa, Austriako egoera* hitzaldia, Florian Amlingerren eskutik.
- **11:45** *Euskal Herriko Aduna herriko ereduak* hitzaldia, Josu Amilibiaren eskutik.

Oharra: Jardunaldia presentzialki jarraitzeko izena eman behar da Hobekiren webgunean; online bidez ere jarraitu ahalko da.

Pentsiodunen manifestazioak bihar, "murrizketen aurka"

Toledoko Itunean jasotako neurrien aurkako protestak egingo dituzte bailarako herri nagusietan

X.G. DEBAGOIENA

Bailarako pentsiodunak kalera aterako dira bihar, Toledoko Itunak jasotzen dituen "murrizketak" salatzen. Pandemiak eragindako mugikortasun mugak ikusita, herriz herri egingo di-

tuzte manifestazioak, bihar, zapatua: Arrasaten, 12:30ean, Herriko Plazatik abiatuta; Bergaran, 12:00etan, Herriko Plazatik hasita; Oñatin ere, 12:00etan, Herriko Plazan. Antzuolan ere 12:00etan batuko dira Herriko

Plazan, eta jende kopuruaren arabera erabakiko dute manifestazioa edo elkarretaratzea egin. Beste herrietan ez da mobilizaziorik egingo. Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Elkarteak herritar guztiei parte hartzeko dei egin die, "pentsio publiko, duin, bidezko eta nahikoen aldeko konpromisoa berritzeko". Agijupens elkarteak ere oharra atera du mobilizazioetan parte hartzera deituz, "gutxieneko pentsioen igoera lortzea" ezinbestekotzat jotzen dutelako.



Pentsiodunek Arrasaten egindako manifestazio bat. GOIENA

Ekiola: argindarra zuk sortu, eta zuk kontsumitu

Argindarra modu jasagarrian ekoizteko eta autokontsumitzeko sortutako promotorea da Ekiola SL; Energiaren Euskal Erakundeak eta LKS Krea-ek sortu dute, eta eguzki-plaken instalazioak eginaz autokontsumo kooperatibak sortzea lortu nahi dute

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Etxeko kontsumo elektrikoa norberak ekoizteko eta kontsumitzeko helburuarekin jaio da Ekiola SL promotorea, eta aste honetan egin dute aurkezpen ekitaldia, Hernaniko Txillida Lekuko Zabalaga baserrian. Energiaren Euskal Erakundearen eta LKS taldeko Krea enpresaren arteko lankidetzari esker sortu da, eta Eusko Jaur-laritzaren eta Mondragon Taldearen babesa du. "Euskal Herrian bazegoen aspalditik era honetako sistema bati lotutako eskari bat, eta Europa mailako legediek gero eta energia berdeagoa ekoizteko beharrak finkatu dituzte. Horrez gain, Euskal Herrian aspalditik errotuta dagoen tradizio kooperatiboa ikusita, era honetako ekimen bat martxan jartzeko une aproposa zela iruditu zitzaigun. Euskal Herriko leku ezberdinetan izaera kooperatiboko eguzki-parkeak sortu nahi ditugu, eta



Astlehenean Hernanin egindako aurkezpeneko partaideak. TU LANKIDE

horien jabeak kontsumitzaileak izango dira, herritarrak. Energia merkaturatzaile bati argindarra erosi beharrean, eurek sortutako energia kontsumitzeko aukera eman nahi diegu", azaldu du Krea Promotion&S-

tructuring taldeko energia berri-erregulazio zuzendari tekniko Hodei Arzakek.

Helburu nagusi hori lortzeko, herririk herri panel fotovoltaiko osatutako eguzki-parkeak sortuko dituzte. Gutxi gorabehera, hektarea bateko parke batekin 300-500 familia hornitzeko adina energia sortuko lukete. "Ez da berdina Arabako lautadako hektarea bat eta Gipuzkoako lur malkartsuetan egin daitekeen bat. Gipuzkoan 300 familiarentzako energia sor genezake eta Araban, aldiz, 500 familia ingururentzako".

Azpeitia izango da era horretako parke bat egingo duen lehen herria, eta Arabako herri batzuetan egingo aukera nahiko landuta dute.

Funtzionamendua

Kooperatiba bakoitzak eraikiko ditu eta erabiliko ditu instalazioak. Erabiltzaileek inbertsio bat egin beharko dute hasieran -zenbatekoa promozioak egingo unean zehaztuko dute-, eta ostean, operazio eta mantenu-kostu batzuk ordaindu ere. Instalazioen erabilera epea 25 urtekoa edo handiago izango da.



LKS KREA

zehatzik lotu Debagoieneko herrietan, oraingoz.

Inbertsioa egingo duten balizko erabiltzaileek jasoko dute laguntzarik?

Horretan lanean gabilta, eta hainbat bide egon daitezke inbertsio hori finantzatzeko. Esaterako, Europako Batasuneko *Next Generation* programara aurkeztu dugu egitasmoa; haren babesa lortuz gero, inbertsioaren %40 inguru finantzatzeko luke Europak.

"Inbertsioek laguntzak izateko lanean gabilta"

HODEI ARZAK
EKIOLA ETA LKS KREA

Ekiola promotorean dihardu, eta energia berriztagarrien zuzendari teknikoa da Krea Promotion&Structuring-en. **Izan duzue harremanik Debagoieneko udalekin?** Gaur-gaurkoz, Oñatiko Udalarekin bakarrik egon gara, baina badugu asmoa Arrasatera eta gainerako herrietara joateko eta informazioa zehatzago azaltzeko. Informazioa hedatzeko fasean gaude; ez dugu ekimen



Saharaldeba elkarteko hainbat kide, elkarretaratze batean. SAHARALDEBA

Saharaldebak janari bilketa egingo du martxo hasieran

Hain zuzen, martxoaren 5ean eta 6an egingo dute, Arrasateko Eroskin; diru ekarpenak ere egin daitezke

X.G. DEBAGOIENA

Saharako egoerak hobera egiten ez duela ikusita, beste urte batez, janari bilketa egiteko beharra ikusi dute Saharaldeba elkarteko kideek. "Bildutako jakiak *Elikatu itxaropen bat* izeneko hamabosgarren Sahararen aldeko Euskal Karabana ekimenera bideratuko ditugu, eta lan solidarioaren bitartez ahalik eta oinarritzko elikagai gehien batu nahi ditugu Debagoienean", azaldu dute elkarteko kideek. "Aljeriako hamadan 45 urtez dirauen duen erbestearen ondoren, nazioarteko laguntza gabe

ezinezkoa litzateke errefuxiatu-riko saharar komunitatearen itxaropena mantentzea. Are gehiago, COVID-19ak kanpamentuetan duen eragina ikusita eta gatazka armatua berpiztu egin dela kontuan hartuta". Janari bilketa presentziala martxoaren 5ean eta 6an egingo dute, Arrasateko Eroskin. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea jarri dute, une honetatik aurrera erabilgarri dagoena: ES13 2100 2948 8901 0022 2533. "Pandemiagatik dendara fisikoki joan nahi ez duten horiek ekarpena egin dezakete", azaldu dute.

Gipuzkoako ekonomia %4,5 eta %6,5 haztea espero du Adegik

Hori da 2021era begira egindako aurreikuspena; enpresen %87k lantaldeak ez gutxitzea espero dute

X.G. DEBAGOIENA

"Azken hilabeteetan erregistratutako bilakaera ekonomikoa positiboa izan da, eta 2021. urtea hazkunde handiko eta enplegu-sorrerako urtea izango da, baina modu desberdinean sektoreen eta enpresen artean. Gure aurreikuspenen arabera, 2021ean BPGren batez besteko hazkundera %4,5 eta %6,5 ingurukoa izango da", adierazi dute Adegikoek prentsa ohar bidez.

Hala, 2021ean zehar "2.000-3.000 lanpostu berri" sortuko direla espero dute.

Aurreikuspen baikor horien oinarrian 2020ko azken hiruhilekoan enpresetatik jasotako datu positiboak daude. Kontstatutako hiru enpresetatik bik fakturazioa igotzea lortu azken hiruhileko hartan. Horrez gain, enpresa gipuzkoar horien fakturazioa %1,2 igo da, batez beste, aurreko hiruhilekoaren aldean. "Hamar enpresatik zazpik handitu edo mantendu egiten dute eskari-zorroa, eta hamar enpresatik lauk uste dute eskari-maila normala edo altua dutela".



ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

Eske... ba, nik... diotenez...

Gizakiaren funtsa elkarrizketatik eraikitzen da. Elkarrizketarik ez badago ez dago gizarterik eta gizarterik ez badago ez dago ezer. Beraz, elkarrizketak garrantzitsuak dira, baldin eta gizarte aberats eta plurala nahi badugu. Ezinezkoa da elkarrizketa mota guztiak definitzea, denak edo gehienak dira onak, tartean errespetua badago, noski. Baina badira elkarrizketa askoren erantzunak ondorengo hitzekin hasten direnak. Ziur nago zuk, nik bezala, sarri erabili dituzula.

Eske: hurrek, nerabeek eta hain gazteak ez diren askok erabilitakoa. Hitz honen ondoren datorrenak ez dakar ezer onik, eskusaren bat, gezurren bat, beste norbaiti zerbait leporatu... Esandakoa esanda, ezer onik ez, ziur.

Ba, nik: presta zaitetz, zuk esandakoa gainditu egingo du eta. Berdin da zer, gaixotasun bat, traumaren bat, minen

bat, erronkaren bat...

berdin da, zuk esandakoaren gainetik jarriko du berea eta.

Dioenez: hemen, famatua, izen handiko pentsalari, zientzialari edo ezaguna den norbait ekarriko du bere ezpainetara, bere

NAHIZ ETA OSO ZAILA DEN –NIRETZAT, BEHINTZAT–, ENTZUN, ADITU, HAUSNARTU ETA ERANTZUN

argudioei indar edo pisu gehiago emateko. Erantzunak luzea izateko aukera asko ditu.

Diotenez: hau oso ona da. Inork ezagutzen ez duen norbaitek zerbait esan du. Inork ez daki nor den, baina denon ahotan bolo-bolo dabilen berria edo notizia da.

Aja eta ja: ez dabil erantzuten, entzuten edo bertan dagoela adierazi nahi dizu. Baina ez zaio batere axola kontatzen ari zarena. Hobe duzu elkarrizketaz aldatu, aurrekoa gogaituta daukazu.

Hitz hauekin eta antzerakoekin hasten diren esaldiak erabiltzen ditugunean, aurrean dugun hizlaria eta elkarrizketa bera gutxietsi egiten dugu; azken batean, gure erantzunak gabiltza mentalki prestatzen, eta horrek aurrean dugunarekiko arreta jaistea dakar.

Nahiz eta oso zaila den –niretzako, behintzat, bai–, entzun, aditu, hausnartu eta erantzun.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA

EREMU GORRIA

HANDIK ETA HEMENDIK

Bota gatza

BLANCA URGELL

HTTPS://LABUR.EUS/GK89U

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Floren Aoizek idatzi zuen behin tortilla egiteko arrautzak hautsi behar direla. Tradizio baten katebegi bihurtu zen hala, Perón, Stalin eta Robespierrek batera bederen. "On ne saurait faire d'omelette sans casser des oeufs" esan omen zuen François-Athanase Charette de la Contrie-k (1763-1796), Frantziako erregearen aldeko "zuriak" eta errepublikaren aldeko "urdinak" elkarren kontra gogor borrokatu ziren Vendéeko gerra zibilean nagusietako bat izan ondoren.

[...] Gurean halako balentriarik ez arrautzekin. [...] Nola egiten ziren ez da dokumentatu. Denok dakigu, baina: hautsi egin behar jango badira. Ez apurtu. Hozkailua ireki eta plaust: arrautza lurrera. Apurtu. Sinonimo ezsinonimoak.

Hautsi misterioitsuagoa da *apurtu* baino, eta honegatik ziurrenik zaharragoa. Forma aldetik erraza: *hauts* + *-i*, *etorri* eta *gorri*-ren *i* berarekin. Etimologikoki 'hauts bihurtu' dirudi, eta *EHHE*-n diote geroago hartu zukeela 'apurtu' adiera.

Mendebaldeko *hausi* zaharragoa da, baina. [...] Araua hitz bukaeran *ts* edo *tz* ahoskatzea da, eta aspaldiko

joera honek indarrean dirau. Axular batek ez zuen *balitz*... *liTZateke* egiten, baizik eta *liZateke*, izan aditzaren *za(n)* erroari dagokionez; **baliZA* > *baliz* > *balitz* antzina gertatu, *balitz* maizago erabili eta, honen analogiaz, gaur guztiok *litzateke*. Hortaz, antzinago *hauts* **haus* bide zen, eta hortik *hausi*. Gero **haus* > *hauts* gertatzean forma berriaren araberako *hautsi* sortu zuten batzuek. Analogia ez da beti-beti gertatu, eta honegatik dugu *gazi/gatz* pareta, noizbait *gatza* **gaz* zela erakusten diguna.

Arrautzak hausten hasi eta gatza botatzen buka. On egin dizuela!

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Goienagusik 188 bazkide ditu; %80, emakumezkoak"

LYDIA FERNANDEZ DE LUCO GOIENAGUSI ELKARTEKO PRESIDENTEA

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Hamar urte bete dira elkarteak sortu zutela, eta jakin-min gosez jarraitzen dute, inoiz ez baita berandu horretarako.

Une honetan, martxan duzue bazkide berriak egiteko kanpaina, baina zenbat bazkide dituzue?

Aurten, 188 bazkide gara Goienagusin; %80 emakumezkoak eta %20 gizonezkoak. Eta partaideak bailarako herri guztietakoak dira: Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Antzuola, Oñati... Ia-ia herri guztietan ditugu bazkideak.

Erretiratutako lagunek osatzen duten kultur talde bat gara, non partaide guztiek interes orokor bat partekatzen dugun: gauza interesgarrien jakintzan sakontzea.

Zein baldintza bete behar dira une honetan martxan duzuen bazkide kanpainan izena emateko?

Bi baldintza bete behar dira: Debagoiengan erroldatuta



Lydia Fernandez de Luco, Montereon parkearen sarreran. XABI GOROSTIDI

egotea eta 55 urtetik gorakoa izatea.

Nola doa aurtengo lehen egitaraua?

Oso ondo, egia esan. Tamalez, egitarau osoa hitzaldiz osatuta dago, testuinguru nahasi

honetan ezin izan baitugu irteerarik antolatu. Jakintzan sakontzeaz gain, elkarrekin aisialdiaz gozatzea ere bada gure helburuetako bat, eta irteerak tresna paregabea dira bi helburu horiek betetzeko.

Euskal Herri mailan egin izan ditugu irteerak, baina baita Debagoienetik irten gabe ere, gauza interesgarri asko baititugu etxetik urrun joan gabe.

Hitzaldiak ez diren bestelako saio batzuk ere egiten dituzue...

Hala da. Berriki, Iban del Campo zinegile arrasatearrarekin egin genuen bat. Bere pelikula bat proiektatu genuen, eta, ostean, galderaz beteriko solasaldia egin genuen zuzendariarekin. Maiatzean, adibidez, zuzeneko musika saio bat egingo digute Arrasate Musikalekoek. Bailarako beste elkarte batzuekin elkarlana egitea gustatzen zaigu, eta saio hori da horren erakusle. Bertako irakasle batzuek jazz emanaldi bat egingo dute, eta ostean, musika estilo horri buruzko xehetasunak emango dizkigute. Beste adibide bat, Bergaran: pinturako eskola magistral bat egingo digu Ricardo Azkargortak.

Akuarela bat margotuko dugu zuzenean, teknika horren nondik norakoak modu praktikoan azaltzeko. Magia saio bat ere egingo dugu; arrakasta handia izan ohi du. **Urtean zehar 50 ekitalditik gora egiten dituzue. Imajinatzen dut agenda eta kontaktu zerrenda**

potoloa izango duzuela antolatzen aritzen zaretenok...

Egundoko lana da, dudarik gabe. Urtean zehar 55 ekitaldi inguru izaten dira: hogeitahiru, lehen hiruhilekoan; beste hogeitahiru, bigarrean; eta hamabost, hirugarrenean. Askotarikoak dira, gainera. Aurtengo lehen hiruhilekoan, adibidez: zientzia eta teknologiari buruzko zazpi saio, osasunari buruzko lau, historiari eta arteari buruzko lau, euskara eta literaturari buruzko zortzi... Zuzendaritza batzordean sei lagun gaude, baina egitaraua lotzeko lanak, orokorrean, lehendakariaren eta lehendakariordearen artean banatzen ditugu.

Zeren arabera aukeratzen dituzue intereseko gaiak eta hizlariak?

Saio guztiak ebaluatu egiten ditugu, partaideen gustukoak izan diren edo ez jakiteko; lehen, paper bidez, eta orain, *Google Drive* bidez. Horrez gain, urtero errepikatzen diren klasikoak daude. Marina Lertxundi musikariak, adibidez, hamaika aldiz bisitatu gaitu. Goienagusi duela hamar urte eratu genuen, baina sortu aurreko urtean saiakera antzeko bat egin genuen, eta han ere izan zen. Jose Domingo filosofoa hamar aldiz etorri da, Urko Barros historialaria bederatzia aldiz...

ITURRI ONETIK

Beratu musika jaialdia, martxoan Oñatin

Beratu musika jaialdia egingo dute aurten ere. Laugarrena. Ohi bezala, martxoan. Iaz ere martxorako dena gertu zutela, bat-batean, COVID-19ak eragindako larrialdi egoera etorri zen eta dena itxi behar izan zen. Azaroan egin zuten. Besteak beste, Joseba Irazoki eta Gaizka Isuntzarekin. Aurten, martxoaren 19tik 21era izango da, Santa Ana aretoan eta Lazarragako lorategian. Parte hartuko dutenen artean: Aitor Etxeberria -*El Txef_a*- *Markak* dokumentalarekin, zuzeneko soinu bandarekin...

ALBISTE IZAN ZEN

2006-02-12

18/98 sumarioa salatzeko agerraldia

18/98 izenez ezagun egin zen makro-epaiketa salatzeko elkarretaratzea egin zuten Bergarako epaitegiaren aurrealdean hainbat debagoiendarrek. Sindikatuetakoa, EAJko eta ezker abertzaleko hainbat aurpegi ezagun batu ziren. Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate ohiak eta Maite Aristegi Amaiurko eledun ohiak hartu zuten hitza eta dei egin zuten Bilbon hurrengo astean egingo zen manifestaziora joateko.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

'Emakumeak zientzian' berbagai izan da

Emakume Zientzialariaren Eguna izan zen atzo, eta sarean *#emakumeakzientzian* traol erabilienetakoa izan da:

@luistxo: "Ekarpen txikitxo bat, *#emakumeakzientzian*; profil bat gehiago Wikipedian: Aina Badiola".

@Anagalarraga1: "Nire superheroiak *#emakumeakzientzian* gazteak dira, eta Elhuyarren biltzen ditugu haien bizipenak, ondoren datozenezat eredu izan daitezten".

@txemap23: "Tanta bakoitzaren garrantzia bermatuz! Otsailak 11, Emakume Zientzialarien Eguna. Aupa zuek!".

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi OÑATI

2050erako Debagoiena eskualde adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa lortzeko helburuarekin jaio da Debagoiena2030 ekimena. Hamahiru erakunde sustatzailek osatzen dute Gobernu Batzordea eta tartean da ULMA Taldea.

Urtebete da pandemia hasi zenetik. Nola laburbilduko zenuke talde bezala bizi izandakoa?

Egia esan, ez da batere erraza izan. Horrelako pandemia baterako mundu osoan inor ez zegoela prestatuta esango nuke; eta ULMA ere egoera horretan zegoen. Larrialdi egoera heldu zenean, azkar batean erantzun beharrean egon ginen, bi helburu nagusirekin: gure langileak babestea eta negozioei jarraipena ematea. Aipatzekoa da benetan gure langile kolektiboak orokorrean erakutsi duen jarrera arduratsua eta negozioak aurrera ateratzeko gogoia.

Debagoiena2030 egitasmoko kide da ULMA. Zergatik?

Erantzun motza da kooperatibaren printzipioekin bat datorrelako, baina bada erantzun luzeagorik. Kooperatibek eraldaketa soziala dute oinarri-oinarrian. Kooperatiba guztiek ditugu gure eraldaketa sozialeko proiektuak eta ekimenak. ULMA Taldeak bere fundazioaren bidez kudeatzen ditu hauek. Baina harago joan gura dugu, eta, gizartean eragina handiagoa izan dadin, gizarte bezala eragin behar dugu. Kooperatibak gizarte horren zati bat besterik ez gara, bakoitza bere irismenarekin. Zerbait handia egin nahi badugu, denon artean egin behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa da mahai baten inguruan eragile ezberdinak elkartzea. Hori da ULMA D2030 egitasmoko kide izateko arrazoia.

Zein izan beharko litzateke

D2030en rola datozen urteetan?

D2030ek helburu komunak dituzten eragileen elkar lekua izan behar du. Esan dudan moduan, hainbat eragile gaude Debagoienean antzerako helburuekin, bakoitza bere aldetik lanean, eta

"Erronkarik handiena da gizarteari D2030en helburuak beharrezkoak direla sinetsaraztea"

LANDER DIAZ DE GEREÑU ULMA TALDEKO PRESIDENTEA

ULMA da Debagoiena 2030eko erakunde sustatzaileetako bat. Hango presidenteak argi du erronkei erantzun gura bazaie elkarrekin egitea ezinbestekoa izango dela



Lander Diaz de Gereñu, ULMAko zerbitzu zentraletan. ULMA

garrantzitsua da indar horiek guztiak elkartzea eta proiektuak batera egitea. Mahai gainean dauden helburuak ezin dira erakunde batzuetatik bakarrik aurrera eramán, gizartearen

atxikimendua behar da, eta hor daukagu erronkarik handiena: gizarteari sinetsaraztea D2030 ekimenaren helburuak beharrezkoak direla guztiontzat.

ULMAk talde bezala zein lanketa egiten ditu D2030ek bere egiten dituen klimarekiko, inklusioarekiko eta digitalizazioarekiko?

ULMA Taldean hain negozio ezberdinak egonda, bakoitzak bere lanak egin behar ditu. Baditugu lan talde komunak, noski, baina lehengaien merkatuan aritzen den negozio batek eta IOT arloan dabilen beste batek ez dituzte ez behar berdinak, ez aukera berdinak gai horiek lantzeko. Helburu orokor bezala, garbi dago hor egon behar dugula, baina gero egunerokoan, negozio bakoitzak egin behar du bere bidea, eta horretan ari gara.

Nola ikusten duzu kooperatibetako langileria, halako erronkekiko?

Langile asko daude ULMA Taldean, eta ezin da orokortu. Galdetzen hasten garenean sorpresa asko hartzen ditugu eta gure langile asko proiektu askotan buru-belarri sartuta daudela ikusten da. Dena den, bakoitzaren egoera oso desberdina izan daiteke, baina kontzientzia badagoela esango nuke. Ardura postua dugunon lana ere bada erronka horiek hor daudela azaleratzea eta kolektiboa erakartzea.

Nola egiten duzue erantzukizun sozialarekiko konpromiso hori balio horiek langileenganaino helarazteko?

Langile askok etxetik ekartzen dute erantzukizun soziala. Kooperatibak lan eremuan ere aukerak ematea da gakoa. Kooperatibak bere balio eta

printzipioak ditu eta behin baino gehiagotan aipatzen ditugu. Dena den, egun batean zerbait entzuteagatik inork ez du barneratzen, jarraitasuna behar da eta eredugarria izaten kutsatzen duzu kolektiboa; kooperatiba eredugarria baldin bada bere printzipio eta balioekiko, errazagoa izango da kolektiboak bat egitea eta transmisio hori gertatzea.

Sarri entzun izan dugu kooperatiben erantzukizun kolektibo horrek gainbehera handia izan duela.

Ez dut uste kooperatiben kontua denik, gizartearena berarena baizik. Hala ere, ez dut uste horrela denik ehuneko ehunean. Gizartea orain dela 50 urte baino indibidualistagoa da, eta hori ongi gertatzen ekarri duelakoan nago, baina orokortzea ez da ona. Ingurura begiratzen baldin badugu, erantzukizun hori erakusten duten ekimen asko ikusten dira. Beharbada, ekimen horiek beste era batera egiten dira edo beste ikusgarritasun bat ematen zaie, baina hor daude.

Egiten da ezer hori irauli dadin?

Zalantzarik gabe, kooperatibek baditugu tresnak erantzukizun kolektibo hori azalertzeko eta bultzatzeko. Eta martxan ere jartzen ditugu. ULMA Taldeak orain dela urte batzuk sortu zuen ULMA Fundazioa, eraldaketa sozialerako tresna gisa erabiltzeko. Hainbat ekimen egiten dira eta elkarte askorekin gaude harremanetan ibilbide hori egiteko. Ez dut esango erraza denik eta bidean azkar goazenik, baina bagoaz, eta gero eta garbiago daukagu ibilbidea zein den.

"DEBAGOIENA2030EK HELBURU KOMUNAK DITUZTEN ERAGILEEN ELKAR LEKUA IZAN BEHAR DU"

"GIZARTEA DUELA 50 URTE BAINO INDIVIDUALISTAGO DA, BAINA EZ DA ONA OROKORTZEA"

Osintxu XIX. mendean geratu da

LEO ARGOTE VIVAR

OSINTXUKO AUZOKIDEA
BERGARA

Bejondeiela Zubietako bizilagunei! 2015ean prozesu bat ireki ei zuten Zubieta kalea biziberritzeko, eta, sei urte pasata, lortzeko atarian daude.

Osintxun, aldiz, zain jarraitzen dugu. 2011n auzoa pizteko proiektu ugari aurkeztu bazitzaizkion ere Udalari, gure auzoak ez omen du lekuri bere agendan. Edo, bidezkoa izateko, apenas lekuri.

Auzoari Bergarako Udalak egokitu dizkion hogeita hamar mila euroak ez dira, inondik ere, nahikoak auzoan ezer egiteko. 2019an Udalak argitaratu zuen egutegian seinatu zuen etxeen arazoak gain, ibaiaren arroaren mantenurik eza gehitzen zaio, giza zerbitzuen eskasia, mantentze-lanen gabezia, eta abar, eta abar.

Honen adibide, udan Atxuriondoko putzuetan elkartzen diren gazte ugariak sortzen dituzten arazoak: baserrietarako pisten itxiera, zabor ugariaren pilaketa, bizilagunekin talkak... Baina, beste kasuetan bezala, Udalak ez du parte hartzen arazo horren konponketan, hori osintxuarrena eta osintxuarrena besterik ez den arazoa baita.

Zer egin behar dugu Bergarako Udalak lehenengo mailako biztanle bezala tratatu gaitzan?

Gutun hau baliatu nahiko nuke Angiozarko, Uberako, San Joango, Elosuko, Basalgoko eta San Prudentzioko bizilagunei nire elkartasuna bidaltzeko. Bergarako auzoak ere bizirik nahi ditugu!

2021a euskara erdigunean jartzeko urtea izan dadin

URKO AIERBE SARASOLA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EKO
KIDEA
DEBAGOIENA

Pandemia gizadiaren historian mugarri garrantzitsua izango da, eragin sakona izan eta abagune erabakigarri gertatzen ari delako.

Pertsonon izatea, humanitatea eta mundua bera sakonki eraldatzen hasiak diren abagunea. Horrek hizkuntzaren ikuspegitik ere eragiten gaitu. Euskal Herria euskalduntzeko prozesua burutzetik urrun gaude, eta pandemiaren eta aldaketa-abagunearen astinaldiak prozesu horretan kostata eraiki ditugun zutabeak dar-dar batean uzten ari dira.

Euskalduntzea ondo ez doan adierazleak begibistan ditugu, pandemiarekin okerrera egin duten adierazleak. Horrela, pandemiak aukeratzeko atakan jarri gaitu: azken hamarkadetan aurreratutakoa

irabazpidean jartzeko normalizazio-prozesuan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo esanguratsua egin, ala hori egin ezean berriz ere atzerako joeran erori.

EHEren ustez, jauzi hori egiteko, hizkuntza-politika berria behar dugu. Horrek eskatzen du eragile guztiek beraien jardunaren erdigunean euskara kokatzea, euskaratik eta euskaraz pentsatu eta aritzea, behingoz.

Euskalduntzea bizkortzeko borrokak berrindartzea euskaltzaleon erronka izango da aurten. Euskaldunon hizkuntza-eskubideen eguneroko urraketak agerian utzi eta euskaraz bizi ahal izatea oztopatzen digun zapalkuntza estrukturala salatu eta gainditzeko, euskaltzaleen aktibazioa sustatzearen erronka.

Hori guztia estatuen kanpo esku-hartzerik gabe egin behar den aldarrikapena ere areagotu beharko dugu. Hori baita pairatzen dugun hizkuntza-gatazkaren muina:

estatuen inposizio linguizida. Euskal herritarrok soilik erabaki behar dugu zein nolako hizkuntza-politika garatu nahi dugun Euskal Herrian. Horri begira, EHEk ekarpen garrantzitsua egingo du aurten. Ilusioa eta grina berreskuratu eta euskalduntzearen aldeko borroka berrindartzeko urtea izan dadin 2021 hau.

Goraneren amantal arrosa

ION ALBIZU GONZALEZ

ARETXABALETA

Goraneren *-Barre librea-* transexualitateari buruzko bideoa biral bihurtu da egunotan. Egia esan, gaia bera biral bihurtu da: eztabaida lasai eta osasuntsu baten zoritxarrerako.

Goranek inozentziaz hitz egiten digu helduoi, dagokion bezala, zintzo – eta zorrotz– hitz eginez. Baina, egia esan, Gorane helduen sorkuntza bat da.

Goranek Martinari buruz hitz egiten du; bueno, Martini buruz. Ez dago eragozpenik, analisi

ona. Denok begiratzen diogu Martini, denok saiatzen gara harenganako begirada aldatzen. Lasai hartu dezakegu arnasa: helburua finkatuta, pertsona identifikatuta.

Baina Goranek Andoitz, Luzia, Sara, Haritz, David eta Nora ere aipatzen ditu. Eta bere buruaz ere hitz egiten du. Neska da, inolako zalantzarik gabe –ilea, arropa, keinuak...–.

Nolakoak izango dira besteak? Hori da burura etorri zaidan lehen gauza. Gorane edo Martin bezalakoak?

Besteek ere ez ote zuten lortuko araua, apur bat bada ere, apurtzea? Badirudi generoaren gaia hesitutako bidea dela, eta, askatasunez igaro ahal izateko, hesitik salto egin behar dela.

Genero-estereotipoak hausteko, transexuala izan behar da? Edo homosexuala edo lesbiana?

Ba al dute gure txikiak generoak era desberdinetan bizitzeko erreferenterik? Guk zer eskaintzen diegu?

Pentsa dezagun keinu bakoitzean, debeku bakoitzean, opari bakoitzean, irribarre bakoitzean... Pentsa dezagun ea horrek Andoitz, Luziaren, Sararen, Haritzen, Daviden, Noraren eta Goraneren bizitza mugatu ala zabaltzen duen. Guraso gisa, eta gizarte gisa.

Begirada hor egon behar da jarrita. Hor dagoelako gako Martinek –eta beste guztiak– bizitza libreagoa bizi ahal izateko.

Martinek salto egitea erabaki du; orain behar duena da arantzadun hesirik inork ez jartzea. Bitartean, besteentzako, denontzako, hesi bako bidea eraiki behar dugu.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

Bazkideen beherakadari erantzuna eman nahian

lazko datuekin alderatuta, %47,5 jaitsi da Musakolako kiroldegiko abonatuak kopurua, "pandemiaren eta hura kontrolatzeko neurrien eraginez"; Kirol Zerbitzuek dei egin dute jarduera gidatuen ate irekietan parte hartzera: "Kiroldegia segurua da"

Hasier Larrea ARRASATE

Pandemiak zeharo baldintzatu ditu kirola egiteko guneak, eta kirolari asko kiroldegietatik aldentzea eragin. Joera hori aldarazi nahi dute Kirol Zerbitzuetako arduradunek; Arrasaten, esaterako, hilaren 22tik 26ra egingo diren jarduera gidatuen ate irekietara gerturatzera deitu dituzte herritarrak: "Interesa dutenek dohainik izango dute aukera nahi duten ikastaroan izena eman eta egun batez probatzeko", adierazi du Aitziber Muñoz teknikariak, kiroldegira deitu edo bertako harrerara hurbiltzeko gonbidapena eginda.

Aurten, pilates, yoga, body balance, zunba, spinning, spinning-pump eta k-stretch modalitateekin lotutako ikastaroak eskainiko ditu Musakolako kiroldegia. "K-stretcha da aurtengo nobedadea: hamaka berezi batzuen bitartez gorputzeko atal desberdinen luzaketak lantzen dira ikastaro horietan", adierazi du Ander Garay zinegotziak. Orain arte, Uarkapen baino ez zegoen jarduera hori praktikatzeko aukera. "Momentuz, 26 taldek jasotzen dituzte ikastaroak, nahiz eta ikasturte hasieran 72 talderi eskaintzen genien zerbitzu gidatua", adierazi du Garayk. Iazko ikastur-



Aitziber Muñoz teknikaria eta Ander Garay zinegotzia, igerilekua atzean dutela. H.L.

tean, 29 ikastaro eskaini ziren, 240 ikasleren parte hartzeaz.

Igerilekuko ikastaroak

Etendako ikastaro eta zerbitzu batzuk, igerilekukoak tarteko, berraktibatuta egin dituztela adierazi dute Garayk eta Muñozek. Hori horrela, datorren astelehenean emango diete hasiera jandak izena eman duten umeei zuzendutako igerian egiteko ikastaroei; izen emate berriei edota 0-4 urte arteko *zapaburuei* zuzendutako ikastaroak, berriz, martxoan hasiko dira.

Kiroldegia, "toki segurua"

Victor Fuentes PSEko idazkariak ere herritarrak eta, bereziki, iazko erabiltzaileak kiroldegira gerturatzera animatu ditu, "toki segurua, garbia eta kontrolatua" dela argudiatuz. Kiroldegietan oso kutsatze gutxi gertatzen direla ere aipatu du: "Europa mailan eginiko ikerketa baten arabera, 100.000 bisitatatit bakarra".

Musakolakoari dagokionez, "Udalak pandemiaren bilakarekin sor daitezkeen neurri berrietara egokitzen jarraituko duela, segurtasun neurri oro

bermatua dagoela eta garbiketa eta desinfekzio lanak egoerari erantzuteko egokituak daudela" esan dute Garayk eta Muñozek.

Prezioen igoerarik ez

2021eko kuotak 2020koen berberak izango direla nabarmendu du Udalak. Konkretuki, urteko abonamendu plusa, helduen kasuan, 210,60 eurokoa izango da, gazteen kasuan 125,50 eurokoa eta familiena, 336,10 eurokoa; hilekoa, berriz, helduentzat 20,20 eurokoa, gazteentzat 12,10 eurokoa eta familientzat 32,20 eurokoa, hurrenez hurren. Eremu lehorra eta hezea bereiziz, igerilekuko urteko abonamenduak 140,30 euroko prezioa izango du helduentzat, 83,60 eurokoa gazteentzat eta 224 eurokoa familientzat; lehorrean prezioak berberak izango dira. Azkenik,

udako abonamendua 70,10 euro kostako zaie helduei, 41,70 euro gaztetxoei eta 112 euro familiei.

4.906 abonatuak 2.588ra

Bazkideak ia erdira jaitea "osasun egoera kontrolatzeko neurriek eta pandemiak eragindako ziurgabetasunak" eragin dutela adierazi du Garayk. Urteko plus abonuan gertatu da jaitsiera handiena: 2.121 abonatu ziren iaz; aurten, berriz, 957. Gipuzkoa mailan "antzeko datuak" jaso dituztela adierazi du. Aretxabaletako kiroldegian, adibidez, %30 jaitsi dira bazkideak -3.300etik 2.315era-, bertako iturrien arabera. Aretxabaletako erabiltzaileen %31 dira kanpokoak: "Horietako askok zailtasunak dituzte etortzeko, dekretu aldaketak direla eta", adierazi du Asier Mujika teknikariak.

Igerilarien 50 kexa jaso ditu Udalak

Musakolako igerilekua itxita egon den hiru hilabete eta erdian "alternatibarik eskaini ez izana" leporatu diete dozenaka erabiltzailek Udalaren Kirol Zerbitzuei, BAZen erreklamazioa idatzita, kiroldegira bertara deituta edo beste bide baten bitartez.

Antxintxika triatloi taldeak GOIENARI jakinarazi dionez, klubeko igerilariak euren kabuz erabaki dute Eskoriatzako eta Aretxabaletako igerilekuetara joatea, edo, kontrara, igeri egiteari uztea. "Zortea izan dugu udazken eta negu garaian harrapatu gaituelako, lehia gutxi izaten baititugu garai hauetan", adierazi du Patxi Torres lehendakariak, eta gehitu du kideren batek kexa formalak aurkeztu duela kiroldegian, "igerilekua denbora gehiegi egon delako itxita eta bestelako aukerarik eskaini ez dutelako".

Udalak, berriz, hauxe adierazi du: "Duela hiru urte, igerilekua hilabetez itxi behar izan zenean, hitzarmena sinatu genuen Aretxabaletako kiroldegiarekin, Arrasateko erabiltzaileek hara joateko aukera izan zezaten. Pandemiak, ordea, ez du aukera hori baliatzea posible egin, kiroldegi guztiak baitaude mugatuta".

Alternatibean faltan, itxita egondako denboragatik bazkide erabiltzaile guztiei dirua bueltatu die Udalak. Bestalde, "jasotako kexa guztiak idatziz edo telefonoz" erantzun dituztela adierazi dute Kirol Zerbitzuek.

Vasco-Navarro bide berdearen seinaleak berrituko ditu Udalak

Vasco-Navarro trenbidearen bide berdeak 123 kilometro ditu eta Lizarratik Bergararako ibilbidea egiten du. Bidearen Arrasateko zatian, zazpi kilometrotan, norabide-seinaleak dituzten hemezortzi zutoin eta bost jarraipen-baliza jarriko ditu Udalak, 12.033 euro inbertituta eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuta: "Gero eta ziklista

eta oinezko gehiago erakartzen dituen bidea da", adierazi dute Udaleko ordezkariak.

Proiektuaren helburua da, Udalaren esanetan, Euskal Herriko bide berdeak Arrasate parean egiten duen ibilbidea behar bezala seinalezatzea. Udalak Aisia Events SLU enpresaren aholkularitzarekin egin du proiektua, eta, aurreikuspenen arabera, otsail bukaeran hasiko dira seinaleak egokitze lanak, "eta martxo amaierarako egongo dira erabilgarri".

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

Hurkoa Fundazioarekin elkarlanean 2021ean ere

Aurten ere, "hauskortasun egoera larrian" dauden adineko pertsonen esku-hartzean jarraituko du Arrasateko Udalak, Hurkoa Fundazioarekin elkarlanean eta Hauskor programaren baitan; horretarako, 14.262,30 euroko partida dauka erreserbatuta

Eneko Azurmendi ARRASATE

Maitane Muñoz Gizarte Ongizatea eta Gazteriako zinegotziak nabarmendu du berezko zahartzete prozesuak "kalteberatasun egoera" sortzen duela, eta nariadura prozesuak eta mende-kotasun prozesuak garatzeko arrisku egoera. "Hurkoa Fundazioarekin elkarlanean Udaltik egindako azterlanari esker, sozialki hauskorra den pertsonaren kontzeptua mugatu ahal izan dugu, baita beharrak, zailtasunak eta gabezia ezagutu ere, eta horren arabera baliabideak ezarri, inork kalteberatasun egoerarik jasan ez dezan. Muinean, inor atzean gera ez dadin eta arrasatear guztiok batera egin dezagun aurrera".

Elkarlanean 2018az geroztik

2018an, azterlanaren oinarri izan zen programa pilotua jarri zuten abian fundazioak eta Arrasateko Udalak, "hauskortasun-egoeran dauden adinekoei arreta emateko asmotan". Udalak azaldu duenez, Adinberri Fundazioaren laguntza jaso zuen ekimenak eta proiektu horren helburua izan zen gizarte baliabideak eta zerbitzuak iristen ez zaizkien pertsona ahulak identifikatzea, "haien ongizatean laguntzeko eta nariadura egoerak prebenitzeko".

Emaitzek diote arrasatearren %24,2k 65 urte edo gehiago dituztela eta %12k, 75 urtetik gora. Inkestatu zituzten 218 lagunetatik 152 bakarrik bizi dira, eta erorikoak, osasun arazoak, kalera irteteko gabeziak, zailtasun ekonomikoak eta irisgarritasun mugak izaten dituztela jakinarazi dute. Halaber, "azterlanaren emaitzek Hauskortasunaren Arretarako Plan Integrala definitzeko balioko dute".

Inkestak 65 urtetik gorakoei

65 urtetik gorako adinekoei hainbat arlotan ze egoera bizi



Adineko bat, gurpil-aulkian, laguntzarekin, San Andres auzoan. E.A.

ARRASATEN, 65 URTE BAINO GEHIAGOKOA DA BIZTANLERIAREN %24,2; 75 URTETIK GORAKOAK %12 DIRA

duen jakitea izan da azterlan horren helburua, eta, zehazki, arlo hauek aztertu dira: osasuna eta eguneroko jardueretan izan ditzaketen mugak; harreman sozialak eta parte-hartze sozial eta komunitarioa; ongizate emozionala; etxebizitzaren egoera; errealitate ekonomikoa eta erabilgarri dauden gizarte-baliabideen berri izatea.

Osasun arloan, 10etik 6,8

Osasun arloari dagokionez, balorazioa 6,8 puntukoa da, 10eko eskala batean. Bakarrik bizi diren pertsonen %19,5 erori izan dira behin edo behin eta zailtasunak izan dituzte altxatzeko. Bestalde, %15,4k maiz izan dituzte osasun-arazoak eta horrek euren kabuz moldatzea eragotzi izan die. Azkenik, %10,6k esan dute osasun-arazoei kalera irtetea galarazten dietela.

Horrez gain, inkestatuaren %70ek adierazi dute "gaitasun ona edo oso ona" dutela eguneroko jarduerak eta lanak egiteko. Halere, "gaitasun txarra edo oso txarra" dutela diote %9k. Bakarrik dauden pertsonen artean, %31k zailtasunak dituzte ekonomia-edo lege-jarduerak egiteko eta %30ek, etxeko lanak egiteko.

%15ek, bakardadea

65 urtetik gorako pertsonen harreman-egoerari buruz lortutako datuen arabera, arlo horretan egoera positiboa da; izan ere, %84k eguneroko dituzte harremanak hurbileko familiarekin eta %95ek nahiko babes jasotzen dute familiarengandik. Kontrara, %5ek ez dute halako laguntzarik. Gainera, %3,3k esan dute ez dutela norengana jo laguntza behar izanez gero, eta, ongizate emozionalari dagokionez, galdetutako %15ek bakardadea edo tristura sentitzen dute.

Oro har, bizi-kalitate ona dute -10eko eskalan 7 bat-, "baina badago hauskortasun testuinguru bat, bakardadea eta isolamendu egoerekin, eta pertsona hauen beharrei gertuagoko erantzuna eman behar zaie".

Mugimendu feministak hilaren 27an egingo du bigarren bilera

Martxoaren 8a prestatzeaz gain, otsailaren 20an egingo duten eskualde mailako ekintza indartu guran ari dira

E.A. ARRASATE

Aurreko zapatuan egin zuten lehen bilera, Kulturateko areto nagusian, eta aurreko urte batzuetan baino jende gutxiago batu zen, edukiera dela eta. "Hala ere, 40 bat emakume batu ginen eta lantaldeak antolatuta genituen", azaldu du Jasone Giraldok, Arrasateko Emakumeen Mundu Martxako kideak.

Martxoaren 6an Irun eta Hendaiarteko zubian egingo duten ekitaldiari begira, zapiak prestatzen dihardute orain. "Gure pribilegioetatik aldatu beharko genukeena esaldien bitartez adierazi gura dugu zapietan. Arrasateko emakume talde ezberdinekin partekatuko ditugu zapiak eta guztion artean zapi bat irudikatuko dugu, gero martxoaren 6an erabil dezaten. Ez dugu gura, ordea, bakarrik zapia pasatzea, besterik barik. Zerbait

sinbolikoa izatea gura dugu, mugak apurtzea eta zubiak eraikitzea irudikatuzko".

Aurrez, hilaren 20an, Debagoieneko zapi guztiak batuko dituzte, eta Eskoriatzara eramán. Gero, ekitaldia egingo dute han.

Herritarrei, gerturatzeko deia

Hilaren 27an, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dute bigarren bilera irekia. "30 pertsona bakarrik sartu ahal izango gara. Badakigu aurreko zapatuan etorri ez ziren emakume dezentek etorri gura dutela bigarren saiora eta lantaldeetan parte hartzea gura dutela. Beraz, ikusiko dugu nola antolatzen garen. Ikusten badugu lehenengo saioan batutako asko gaudela, emakume berriei lekua egin beharko diegu, guztien arteko elkarlana eman gura diogulako garrantzia", azaldu du Giraldok.



bertako
Igoak | ascensores

Euskal Herria hobetzeko prest?
Bertakoren emakumezkoen kirola, gutxiengoa, egokitua eta inklusiboa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea eraikitzeko.



OROTARIKO ZERBITZUA
100 €-tik / hileko
Arrunta 70€-tik / hileko



Garaia Berrikuntza Gunea
20.500 Arrasate



943 903 450



info@bertako.eus



www.bertako.eus



Zaldusperra lekualdatuko dute autobus geltokia, behin-behinean, Garibain *Ekobulebar*-eko lanak bukatu arte. TXOMIN MADINA

EH Bildu: "Gu entzuteko konpromisorik ez dute"

Udal Gobernuak Zalduspoko geltokiaren harira egindako adierazpenak direla-eta, eta 'Laubide' proiektuaren harira EH Bilduri aipamena egin zionez, koalizioak "ñabardura batzuk" egin gura izan ditu: "Ez dute benetako konpromisorik gurekin hitz egiteko"

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Lehenik eta behin, aukera bakarra izan dugu Udal Gobernuarekin *Laubide* proiektuaz hitz egiteko eta ez da egon haren aldetik benetako konpromisorik gure proposamenak aintzat hartzeko", azaldu du EH Bilduk, ohar bidez.

Nabarmendu dute "puntu oso zehatz" batzuen inguruan soilik erantzun ziela Gobernuak, "eta oso azalek hori ere". Era berean, *Ekobulebar*-eko obrarentzat luzamendua eskatu ziotela ere adierazi dute: "Ezertan hasi aurretik zer egitera goazen ondo pentsatzeko denbora izan genezan". Hala ere, Gobernuak kasurik egin ez ziela esan dute: "Hara non ikusten ditugun egun gutxira hondeatzaileak jo eta ke lanean, aurrez ezarritako data baino hilabete lehenago".

Proiektuen bateragarritasunaz

Bestalde, Udal Gobernuarekin izandako bilera hartatik, azaldu dutenez, ez zuten "inondik ino-

ra" ondorioztatu *Ekobulebar* eta *Laubide* proiektuak osagarriak zirenik. "Esan ziguten, behar bada, epe luzera, gure proposamenetako batzuk aintzat hartuak izan zitezkeela. Hori ez da, inolaz ere, osagarriak izatea. Gainera, gure ustez, *Laubide* eta *Ekobulebar* proiektuek apenas dute ezer komunean, antagonikoak dira oinarritik hasita".

Herritarrei proiektua azaltzen

Proiektuaren gaineko ezjakintasun handia dagoela ere azpimarratu dute. "Ze obra burutuko da azkenean Garibai-Biterin? Jatorrizko proiektuarekin jarraitu eta autobus makrogeltoki bilakatuko da, errotondatzar eta guzti, ala aldatu egin dute ha-

"EKOBULEBAR' ETA 'LAUBIDE' PROIEKTUEK KOMUNEAN EZ DUTE EZER, ANTAGONIKOAK DIRA OINARRITIK"

sierako asmoa? Obra hastear den honetan, norbaitek badaki?".

Horrez gain, *Laubide* proiektua azaltzeko "ahalegin berezia" egiten ari direla azaldu dute. "Egiari zor, herritar askoren babesa jasotzen ari gara".

HAPO aldatu beharraz

"Udal Gobernuak kideek diote autobus geltokiari beste kokapen bat emateko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren barruan eremu batzuk birkalifikatu egin beharko lirakeela, horretarako denbora asko beharko litzatekeela eta gaiari buruz herritarrei galdetu nahi dietela", gaineratu dute. "Ez al dute pentsatu hori alde aurretik egin beharko litzatekeela eta ez gero, behin obrak eginda? Hori bakarrik behar genuen, *Ekobulebar*-a egiten dirutza gastatu eta gero, damutzea eta eremu batzuk aldatzen hastea are diru gehiago xahutuz".

Oharraren harira, Gobernuak ez du iritzirik eman gura izan.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Indar zentripetuez

Bazen behin Erromatar inperioa bere biztanle andana baina hiritar kopuru murriztarekin. Bazen behin "sufragio unibertsala" deitu zioten unibertsaltasunetik urrun zegoen eskubide hori. Bazen behin oinaztarrek duela mende batzuk su eman zioten arimadun herri bat; kanpo eraso hori jasan eta harresiaren barnean babesten zituena intramuros horretan egoteko adinako balioa omen zuten herritarrek.

Urteak pasata badirudi paradigma eraldatu dela orain: lehen gune pribilegiatutzat jo zitekeen alde zaharra gainbehera nabarmenean murgildurik utzi dute. Eta ez nabil dagoen degradazio orokortuaz soilik, bertakoak bereziki kolpatzen dituen arrakala digitalaz baizik. Indarrak aldatu dira; badirudi lehen zentrifugoki mugitzen zen arren, orain zentripetu bihurtu zaigula energia. Modernitatea periferiatik datorrigun honetan, nola liteke extramuros horretatik barnerago joan ezin izatea?

Bai, norbaitek oraindik zalantzarik badu, erdialdeko zuntz optikoaren faltaz ari naiz. Eta ez, ez da ezinezkotasunagatik, borondate politiko falta argiatatik baizik.

195.600 euro, 91 ostalaritza establezimendu laguntzeko

Udalak, orain arte, 2020ko azaroari eta abenduari dagozkien dirulaguntzak eman dizkie herriko ostalariei

E.A. ARRASATE

Arrasateko Udalak, orain arte, 195.600 euro bideratu ditu herriko 91 ostalaritza establezimendu laguntzeko.

Modu horretan, 1-3 langile artean dituzten 64 establezimenduk 1.000 euroko dirulaguntza jaso dute -128.000 euro, guztira-; 4-6 langile artean dituzten 20 establezimenduk, 1.200 eurokoa -48.000 euro, guztira-; eta zazpi langile edo gehiago dituzten zazpi establezimenduk 1.400 euroko laguntza jaso dute -19.600 euro, guztira-.

Horiez gain, pandemiaren ondorioz terrazetan zerbitzua emateko beharrezko diren inbertsioetan ere laguntzak eskaini ditu Udalak, eta 2021ean beste deialdi bat irekiko duela aurreratu du. Halaber, 2021ean jarraitzea izango dute ur eta zabor tasaren gainean 2020an ezarritako hobariak eta baita terrazaren kuotaren hobariak eta terrazaren azaleraren zabalpenak ere.

Azkenik, "ostalarien eskaerari erantzunez", segurtasun neurriak gogorarazteko binilo moreak jarri dituzte tabernetan.

San Felipe Elkarlaguntzako 176 bazkide hil ziren iaz

San Felipe Elkarlaguntzak jakinarazi duenez, erakundeko bazkide ziren 176 lagun hil ziren iaz, eta 2019an, berriz, 148 hil ziren. Hala, heriotzek %19 egin dute gora. "2020a COVID-19ren hasiera urtea bezala gogoratuko dugu. Ezin bestela izan, pandemiak Debagoieneko biztanleak ere zigortu ditu", azpimarratu dute erakundeko kideek.

OHARRAK

Ontzi arinen kanpaina

Bihar, informazio puntua eta tailerrak, Biteri plazan (10:30-14:00 eta 15:30-19:00).

Elkarretaratzeak

Pentsiodunek bihar 12:00etan egingo dute, plazan. Leku berean, torturaren aurkako ekintza egingo dute 12:30ean, eta 20:00etan, *Gazteon kriminalizazioa gelditu!* lelopean elkartuko dira.



Monterronen grabatutako bideoa ere igo du elkarteak sarera, prozesuan ikasi dutenaren lekukotzak batzen dituen. TXATXILIPURDI

Gizartea eraldatzeko gakoak, komunikaziotik

Txatxilipurdik Marshall Rosenberg psikologoaren 'Komunikazio ez bortitza' liburua euskaratu du, "euskal komunitateari ekarpena egiteko asmoz"; elkarteak itzultzen duen hirugarren lanak harreman osasuntsuagoak eraikitzeke oinarriak ditu jomugan

Hasier Larrea ARRASATE

Francesco Tonucciren *Haurren hiria* eta Heike Freireren *Berdean hezi* euskaratu ostean, "edozein pertsonarentzat baliagarri izan daitekeen" *Komunikazio ez bortitza* liburuari heldu dio Txatxilipurdi elkarteak, "hezitzaileen jardunari laguntzeko eta jendarteak egunerokotasunean izan ditzakeen gatazketan konponbideak proposatzeko", aipatu du Amaia Etxabe zuzendariak.

Liburua itzultzeko "prozesu luzea" egin dutela gogoratu du Lander Juaristik, egitasmoaren koordinatzaileak: "Nerea Mendizabalengana jo genuen lehenbizi, bera baita Euskal Herrian gai honi buruzko titulua daukan bakarra; formakuntza saio batzuk egin genituen berarekin, eta hitzaurrea ere idatzi du". Behin gaia ezagututa, Rosenbergen liburua itzultzea erabaki zuten elkarteke kideek, "kontzeptuaren oinarriak" azaltzen dituelako, batik bat. Diego Martiartuk ekarri du euskarara, eta, Juaristik esandakoaren arabera, "egiteko samurra izan ez duen arren, sekulako lana burutu du". Liburuaren azala, berriz, Txatxi-

lipurdiko kide Oihane Sanchezek marraztu du.

Eraldatzeko tresna

Urteak daramatza Txatxilipurdik harremanetan sortzen diren gatazken inguruan hausnartzen. Une oro komunikazio bortitzarekin lotutako adibide ugari gertatzen direla aipatu du Etxabek: "Bortizki komunikatzea ez da zertan oihuka hitz egitea, botere harremanekin du zerkusia, hizkuntza sexistarekin". Modu horiekin "talka" egiten du proposatzen duten ereduak, entzute aktiboa eta gatazketan alde bakoitzak izan ditzakeen beharren identifikazioa sustatuz.

Azken finean, "egungo korrontearen aurka" doan praktika jartzen du mahai gainean, eta kontziente dira "patxadaz egin beharreko" ariketa dela, "bidean frustrazio eta oztopoak" aurkitzen baitituzte. Hala ere, gizarte eredu "osasuntsuagoa" eraikitzeke "aurrerapausotzat" jo dute ekarpena. Liburua elkartearen bulegoan daukate salgai, momentuz, eta hedapena pentsatzen hasiak dira dagoeneko.

Ostalaritza AURRERA!

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE
Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!

IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ
JAI ZALE • DAT • ETXOSTE

Talentua eta pasioa, antzerkiaren zerbitzura

Txalo konpainiak 'Konpromisoa' izeneko obra taularatuko du domeka honetan Amaia antzokian, 19:00etan hasita; Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxaga dira protagonistak jatorri frantsesa duen "komedia surrealista eta sakon" horretan

Hasier Larrea ARRASATE

Euskaldunentzat aski ezagunak diren hiru aktorek indarrak batu dituzte publikoari momentu on bat eskaintzeko helburuarekin. Batuketa artistiko horren emaitza da *Konpromisoa* izeneko antzezlan. 80ko hamarkadaren hasieran sortu zuen obra originala Philippe Claudel autore frantsesak, eta euskaratzeko eta egokitzeko ardura hartu du Martin Agirrek.

Begoña Bilbaoren zuzendari-tzapean, antzerki idazle frustratu batek –Joseba Apaolaza– gabezia ugari dauzkan etxebizitza saltzen lagunduko dio aktore bezala arrakasta urria eskuratu duen aspaldiko adiskide bati –Ramon Agirre–. Etxea erosteko interesa agertuko du hirugarren pertsona –Zuhaitz Gurrutxaga– "artaburu eta mozolo batek, eta orduan hasiko da istorioa korapilatzen", azaldu du Gurrutxagak berak. Izan ere, lagun zaharren artean trapu zikinak azaleratuko dira, eta "salmenta prozesu arrunta izan beharko lukeena elkarriketa surrealista bilakatu da; antzezlan barruko antzezlan, hain justu", adierazi du teledibistako aurkezleak.

Estreinaldia, duela hilabete

Eibarko Koliseo aretoan egin zuten lehen emanaldia Txalo konpainiakoe, urtarrilaren 8an, eta ordutik zortzi antzetzoki desberdinetan aritu dira obra aurkezten. Gurrutxagaren esanetan, "pandemiaren eraginez nahi baino entsegu gutxiagorekin" joan ziren estreinaldira, baina, behin publikoaren aurrean jarrita, "urduritasunak ahaztu eta esperientzia ederra" eskaini zieten Koliseora gerturatu zirenei. Orain lasaiago dagoela dio elgoibartarrak: "Azken funtzioetan asko gozatu dut oholza gainean, oso momentu onean gaude". Jendarean aritzeak on egiten diola konturatu da, gainera: "Zuzenekoetan seguruago sentitzen naiz entseguetan baino, gutxiago kostatzen zait neure buruarengan sinistea".

HASIERAN SALMENTA SAIKERA BAT ZENA 'NAIF' KUTSUKO ELKARRIZKETA BIHURTUKO DA

Lankideei lausenguak

Hirugarren antzezlan badu ere, bere burua "oraindik" aktore bezala ikusten ez duela aipatu du Gurrutxagak, hain zuzen, alboan dauzkan kideengatik: "Josebak eta Ramonek 30 urte baino gehiago daramatzate interpretaziotik bizitzen, eta lehen eguna balitz bezala bizi dute ofizioa: nola mimatzen duten koma bakoitza obraren irakurketan, nola ematen dizkioten esaldi bakoitzari mila buelta praktikan jarri aurretik... Ikaragarria da euren lana nola mimatzen duten frogatzea". Hori lehen pertsonan ikustea "pribilegioa" dela aipatu du, ogia erosten dugun unearekin konparatuz: "Inork ez du ikusten nola egin den ogia labean, eta nik aukera hori eduki dut". Hurrengo lanetan ofizioa nola errespetatu behar den lagunduko diolakoan, bi aktoreen ondoan egotea "ikaspen galanta" izan delakoan dago, gainera.

Pandemia, ohiturak aldatzeko

Konpromisoa ez da hiru aktoreek esku artean daukaten proiektu bakarra; ondorioz, asteburuetan "bizpahiru egunez" lan egitea tokatzen zaiela adierazi du Gurrutxagak. Ez deritzo notizia txarra, ordea: "Ez gara kexu, garai hauetan lan egiteko aukera daukagulako". Are gehiago, irakurketa positiboa egiten du zenbait aspektutan: "Antzetzokiek irekita jarraitzen dute gaur egun; beraz, 'kultura segurua da' diogunean, ez gara eslogan simple batez ari, benetan baita segurua. Bestalde, uste dut lehen antzerkia ikustera gerturatzeko ez zen jendea animatzen dela orain, aisialdi eskaintza murriztu izanagatik bada ere". Barre egin eta hausnartu nahi duenak beti izango baitu alboan antzerkia, ikustera ohituta ez badago ere.



Andoni Osinalde egilea, eskuinean, anaiaren eta amaren konpainian. ZURIÑE ALTUBE

11 urterekin, hamaika istorio kontatzeko urratsak ematen

Andoni Osinalde gazteak 'Las aventuras de Stran' izeneko ipuina argitaratu du: "Askoren artean, lehena"

H.L. ARRASATE

Haurtzaroaren eta gaztaroaren arteko adin horiek izaten dira norbere imajinazioa zuzentzeko garairik onetsuenak, eta bada herrian sekulako etekina ateratzen dionik, Andoni Osinalde 11 urteko arrasatearrak berriki argitaratu baitu *Las aventuras de Stran. Un chico diferente* izeneko ipuina. Gazteleraz idatzita badago ere, lehen zirriborroak euskaraz idatzi zituela aipatu du Zuriñe Altubek, egilearen amak: "Konturatu nintzen Stranen abenturak neska-mutil gehiagorengana iristeko erabaki zuela gazteleraz idaztea, eta uste dut horretan eragina izan zuela itxialdian ikusi genuen Jordi Sierra i Fabra idazlearen konferentzia batek, *bullying*-ari eta idaztearen jardunari buruzkoa".

Liburuak jaso ditu lehen kritikak, "positiboak", oro har. Hala ere, ez dirudi Osinalderen sormen

lan bakarra izango denik: "Dagoeneko zortzi istorio inguru dauzka buruan, bigarren ipuina amaituta dauka eta hirugarrena bukatzen dabil", dio idazlearen amak. Alea eskuratu nahi duenak ipuinaren izen bera daraman webgunera jo dezake: "Apropos sortu genuen webgunea, jabetzeko arrakasta ez datorrela idaztetik bakarrik; lan gehiago egin behar da proiektua ezagutarazteko, eta asko ikasi dugu".

Proiektu "familiarra"

Idazle gaztea ez da bakarrik egon bere abentura literarioan murgiltzerakoan, alboan izan baititu Eki anaia eta Jon Arbizu laguna. "Ikastolan jolasten sortu zuten bi lagunek Stran izeneko superheroiak, eta etxeko Playmobil jostailu artean bururatu zitzaizkien anaiari eta bieie ipuinerako mundu eta pertsonaia berriak", argitu du Altubek.

50 sarrera banatuko dituzte 'Taldeen kontzertua' ikusteko

Arrasate Musikaleko kideek ikuskizuna eskainiko dute gaur, 18:30ean hasita, Amaia antzokian. Egoera arruntean Aratusteen bueltan ematen duten urteroko kontzertua izan beharko lukeen arren, aurtengoak ez du moztarri eta jai kutsurik izango. Hala ere, ikusleak alaitzeko kantu mordoxka joko dituzte: *QUASAR*, *Aske bizi*, *Thriller*, *Island in the*

sun, *Popcorn pizza*, *Txuri Urdin* eta *Galtzaundi*, besteak beste. Zehazki, 70 musikari igoko dira oholtzara; zazpi talde, guztira: Jurasiko's, Junior's, Senior's, Izan Suzuki, Haize Egur taldea, Metal taldea eta Banda taldea. Amaia antzokiak gaur egun eskaintzen dituen 255 eserlekueetatik 200 inguru protagonistek eta euren gonbidapena duten ikusleek beteko dituzte. Gainontzekoak leihatilan banatuko dira, dohainik, kontzertua hasi baino ordubete lehenago.



Aspaldiko adiskideak sesioan, etxearen bezero posiblea lekuko dela. ARRIAGA ANTZOKIA



Rosa Mondragon eta Itsaso Aspiazu, udaletxeko bulegoan. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

Berbak eta kontuak berreskuratzeko atala

Udalaren ataria berritzen eta edukiak eguneratzen ari dira. Hala, herriko ondarea ezagutzera emateko ahalegin horretan, 'Gure berbak eta kontuak' atala sortu berri dute. Euskara Saila eta Kultura Saila elkarlanean ari dira ondarea jasotzen

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko berbak eta kontuak berreskuratu eta ezagutzera emateko atal bat sortu dute Udalaren webgunean. Euskara Sailak eta Kultura Sailak elkarlanean egindako lana izan da. *Aramaio.eus* atariko azalean ikusi daiteke *Gure berbak eta kontuak* atal berria.

"Gureak diren berba eta kontuak berreskuratzera eta ezagutzera ematea da helburua. Horretarako, ahalegin handia egin da urte askotan, lan eta ikerketa desberdinen bitartez, eta altxor hori aprobetxatu nahi izan dugu, batez ere, belaunaldi gazteei ezagutzera emateko", azaldu du Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak. Hainbat berba ezezagunak izan daitezke; beharbada, gaur egun erabiltzen ez direlako, baserriarekin lotutakoak, batez ere: *galbaie*, esate baterako. "Beste batzuk oraindik ere bizirik daude eta horiek erabiltzea posible da: *oñaskero*, adibidez", gaineratu du. Kontu

eta kondairekin, Aramaioko aitona-amonek bizi izandako pasadizo asko dituzte bilduta: "Eurek kontatuta, gainera, aho-tsa eta bideoz grabatuta, eta gehienak ezezagunak dira".

Txipi Ormaetxearen liburua Atal berri hori sortzerakoan hainbat lan edo ikerlan izan dituzte oinarri. Horietao bat Txipi Ormaetxearen *Aramaio euskara* liburua da: "Berba asko jaso zituen liburuan". Horrez gain, ikerketa desberdinak egin izan dira urteetan eta elkarrizketak grabatuta dituzte: "Asko, *ahotsak.eus* webgunean biltzen direnak. Horrez gain, Aramaioko Udalak ere argitaratu zuen herriko ipuinen eta kondairen

MODU ERAKARGARRIAN OSATU NAHI DUTE ATALA: ARGAZKIAK ETA BIDEOAK ERABILIZ

liburuxka. Batik bat, horiek dira guretzat erreferentzia".

Ekarpenak egiteko aukera

Modu erakargarrian osatu nahi dute sortu berri duten atala. Horretarako, testuez gain, udal teknikariek jasota dituzten argazkiak eta bideoak ere erabiliko dituzte atala osatzeko. "Argazki zaharrak biltzeko beka bat sortu zen orain dela urte batzuk, eta asko ditugu gordeta. Eta bideoei dagokienez, *Ahotsak*-ekin batera elkarrizketa gehiago egiteko proiektua garatuko dugu aurtengoan", azaldu du Mondragonek.

Jakitun dira atal berriak kuriositatea sor dezakeela herri-tarren artean. Hori horrela, ekarpenak jasotzeko ateko zabalik dituztela azaldu du Mondragonek. "Berba bat proposatu, etxean entzundako kanta bidali...", dio. Ekarpentak egin nahi dituenak *aramaiokoudalaeu@gmail.com* helbidera idatz dezake mezua.



Eguaztenea, tabernak zabalik. A.E.

Egoerara egokitu eta hainbat udal eraikin zabaldu dituzte

Joan den astean hartutako neurriak berrikusi eta eguneratu ditu Udalak; gaur, berriro ere elkartuko dira

A.E. ARAMAIO

Aramaio osasun egoera bere onera etortzen dabil; azken aste honetan, beheranzko joera hartu dute positibo kopuruek. Hala ere, intzidentzia-tasa 500 baino handiagoa izanda, eta Arrasateko Oinarrizko Osasun Eremuko intzidentzia-tasa ere 500 baino handiagoa denez, Osasun Sailak herri *gorrien* zerrendan sartu zuen Aramaio astelehenean. Zerrenda horretan egoteak dakar ostalaritza zerbitzuek itxi beharra, eta eskola kirola bertan behera utzi beharra, besteak beste. Hala ere, martitzenean, Auzitegi Nagusiak tabernei irekitzeko baimena eman zien: eguaztenea ezker, tabernak zabalik daude Aramaion.

Udal eraikinen egoera

Osasun egoera nolakoa zen ikusita, joan den astean hainbat udal eraikin ixteko agindua

ezarri zuen Udalak. Hala, neurri horiek berrikusi eta hainbat eguneraketa egin dituzte asteon.

Kultura etxean liburutegia zabalik dago, mailegu zerbitzua-rekin bakarrik; aldiz, ludoteka itxita egongo da. Gainerako klase eta ekintzak 12 urtetik gorakoentzat bakarrik daude martxan. Musika etxeko eskaintza 12 urtetik gorakoendako bakarrik egongo da zabalik; eta entsegu lokalean jarduera profesional edo semiprofesionalak bakarrik daude baimenduta.

Kirola, bakarka

Eremu gorrian egoteak dakar kirola egiteko muga batzuk: kirola bakarka egin ahal izango da eta bertan behera geratuko da taldeko edozein kirol jardura, izan entrenamendu izan lehiaketa. Kiroldegia zabalik egongo da baimena dutenentzat eta 12 urtetik gorakoentzat.

Garbitasun lanak egiten

Udalak bi peoi kontratatu ditu hiru hilabeterako. Urtarrilean hasi ziren lanean, eta, batik bat, garbitasun lanak egingo dituzte. Santa Ana barruan garbiketa sakona egin dute, eta kultura etxeko hezetasun arazoak ere konpondu dituzte.

Ametzun behera doan bidean arekak garbitu dituzte; eta orain, Zabala eta Untzilla artean ari dira garbiketak egiten.



ARAMAIOKO UDALA

Hitzekin jolasean, euskaraz bada, hobeto

Txirritola Euskara Elkartek urteko batzar orokorra martxoan egin nahi du; iazkoa egin gabe, aurten, bi urteotako errepasoa egingo dute. Bestalde, 2021eko ekintzetan buru-belarri dabilta lanean: literatur lehiaketa laster jarriko dute martxan, esaterako

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkartek 2021ean egingo dituen hainbat egitasmo zehaztu ditu dagoeneko. Egoera zaila bizitzen ari da gizartea; eta, ondorioz, baita euskara elkarte ere. Hala ere, euskarak behar duen bultzada emateko indartsu daude Txirritolako kideak.

2021ari begira jarritako erronken artean dago batzar orokorra martxoan egitea. Urteko memoriaren berri eman beharko dute batzarrean, eta baita urte berri-rako dituzten egitasmoen berri ere. "Elkarteari eman nahi diogun norabidea erakutsiko dugu. Gainera, iaz ez genuen batzarrik egin; martxoan egitekoak ginen, baina konfinamenduak harri-patu gintuen. Aurten, bi urteotako errepasoa egingo dugu", azaldu du Txirritolako kide Oihana Ameskuak.

Otsailean, literatur lehiaketa

Aurreratu dezaketzen proposamenen artean dago ohiko bilakatu den literatur lehiaketa. Hiru kategoriatan izaten dira: 12 urtera artekoa bat; 12 eta 16 urte bitarteko bigarren kategoriatan; eta 16 urtetik gorakoena saila. Aurten, berritasun moduan, erabaki dute 12 eta 16 urte bitarteko kategoriatan eta 16 urtetik gorakoenean ipuinak idatzi beharrean mikroipuinak idatzi behar izatea: 100 hitzera mugatutako mikroipuinak.

Literatur lehiaketako sari banaketa eguna berezia izaten dela nabarmendu du Ameskuak –antzezlan, ipuin kontalaria...–; ea aurten zer egiteko aukera duten. Txirritola elkartearen asmoa da sari banaketa Aste Santuaren ondoren izatea.

Irakurzaletasun kanpaina

Irakurzaletasuna bultzatzea eta, batez ere, euskaraz irakurtzea bultzatzea da Txirritolaren nahietako bat. Apirilean, Aste San-



Ipuin lehiaketako sari banaketa, 2019ko maiatzean. GOIENA

100 HITZETARA MUGATUTAKO MIKROIPIUNAK IDAZTEKO AUKERA EGONGO DA AURTEN

tuaren ostean hasiko dira kanpainarekin. Liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartu eta irakurtzen dutenek fitxa bat bete dute, eta ondoren, fitxa hori postontzian utzi. Kanpainak iraungo duen hilabetean jasotako fitxa guztiekin zozketa egingo dute. "Euskaraz irakurtzera bultzatzeko modu bat da. Kanpainaren amaieran idazle bat gonbidatu ohi dugu; aurten, asmoa da irakurketa talde feministarekin batera adostea idazlea. Maiatzean Katixa Agirreren *Amek ez dute* liburua irakurriko dutenez, gure proposamena Katixa bera gonbidatzea izango da", dio.

'Hitzak mendietan' ekimena

Iaz egin zuten *Hitzak mendietan* egitasmoaren harrera ona ikusita, aurten ere horrekin jarraitzea erabaki dute. Hala, Ara-

maioko hainbat mendi puntako buzoietan koadernotxo batzuk utzi dituzte: kasu honetan, Orixolen, Tellamendin, Murun eta Asension utzi dituzte koaderno horiek. "Arazo teknikoak egon dira tartean. Egin duen euriarekin koadernoren bat hondatu egin da, edo umeldu. Hori eragozpena izan da. Hala ere, ikusi dugu Murun dagoenak baduela istorio bat", azaldu du. Orixolen, esaterako, bertsolaritzarekin zerikusia duten ariketak egin behar izan dituzte: errimekin bertsoa osatu; gaia hartu eta hortik abiatuta bertsoa osatu... Mendietan dauden koadernoak jaso egingo dituzte, eta ondoren, argitaratu. Iaz, kultura etxeko horma batean jarri zituzten istorioak; aurten ere, horrelako zerbait egitea pentsatu dute.

Udaberri aldera, beste saiake bat egingo dute: *Udaberri hitzak mendietan*. Bere "xumetasunean" ariketa polita dela uste dute. Gainera, egungo egoeran mendira joatea arnagune bilakatu dela diote; eta, hain zuzen, euskaraz aritzeko arnagune ere bilakatu nahi dute, mendia eta euskara uztartzuz.

Adikzioei buruzko formakuntza eskainiko dute Zigoitian

Gazteekin lan egiten duten profesionali zuzenduta dago; izena eman behar da otsailaren 24a baino lehen

A.E. ARAMAIO

Drogen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteari buruzko ikastaroa egingo dute otsailaren 27an, zapatua, Zigoitian. Goiz eta arratsaldez izango da saioa: 10:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 17:30era.

Helburua praktika osasungarriak sustatzea da, eta gazteekin lan egiten duten profesionali zuzenduta dago. Plaza mugatuak izango direnez, aurrez eman behar da izena, epmaraba@yahoo. es helbidera mezua bidalita edo 650 47 17 18 –Koldo– telefono

zenbakira deituta. Otsailaren 24a baino lehen, eguaztena, eman behar da izena.

Arabako lurralde historikoan bizi direnei zuzendutako ikastaroa da. Gainera, ez da kuota-rik ordaindu behar izango: doakoa da. Osasun egoera dela eta, COVID-19aren aurkako neurriak errespetatu beharko dira. Horrez gainera, bazkaria norberaren kontu izango da: ogitartekoa, tuperra...

Ikastaroa egiten dutenek Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria jasoko dute.

Emakumeek euskal dantzetan izan duten papera, berbagai

Hitzaldia egingo du Oier Araolaza dantzariak otsailaren 17an, 18:00etan; lekua erreserbatu behar da

A.E. ARAMAIO

Lagun artean dantza taldeak antolatuta, hitzaldia egingo du datorren eguaztenean Oier Araolazak. *Emakumeek euskal dantzetan: gezur baten istorioa* izena duen hitzaldia eskainiko du, 18:00etan, kultura etxean.

Parte hartu dute emakumeek euskal dantzetan? galderatik abiatuta eskainiko du hitzaldia. Izan ere, XX. mendean erroten ideia izan da emakumeek ez dutela euskal dantzetan parte hartu. Hori egia edo gezurra den azalduko du Araolazak: eta

ideia hori okerra bada nork asmatua den ere azalduko du. Horrez gain, emakumeek dantzaren baziren nola dantzatzaren ziren, gizonen bezala egiten zuten, era bereziren bat ote zuten... Galdera horiei erantzuten saiatuko da Araolaza. Hitzaldira joan ahal izateko aurrez erreserba egin beharko da, entradium.com atarian.

Kezka eta Argia dantza taldeko kide da Araolaza; eta *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan* liburua argitaratu zuen 2020an.

Aldakan Beltz taldeak emanaldia eskainiko du gaur, barikua

Gaur, barikua, musikaz gozatzeko aukera egongo da kultura etxean, 18:30ean. Aldakan Beltz taldeak emanaldia eskainiko du: doakoa izango den arren, lekua erreserbatu beharko da aurrez. Mugarik gabeko musika eskainiko dute: cumbia, sanba... eta bestelako doinu dantzagarri batzuk. Aldaka dantzan jartzeko aukera paregabea izango da.

Administrazioarekin tramiteak online egiteko BakQ gakoa

Aramaioko udaletxean eska daiteke BakQ herritarrendako identifikazio elektronikoa. BakQ pertsona fisikoak identifikatzeko bitarteko bat da –ez da elkarreendako–; eta modu horretan administrazio publikoarekin tramiteak online egiteko aukera dago. Galdetegi bat bete behar da. Ondoren, gakoak SMS bidez jasoko dira.

Beharreen daudenek bizi dituztenak, agerian

'Zu bezalako norbait' erakusketa dago ikusgai Arkupen otsailean; Aretxabaleako Caritas taldera gerturatutako herritarrengandik jasotako egoeren berri ematea du horrek helburu, eta, era berean, hausnarketa sustatzea

Mirari Altube ARETXABALETA

Kanpotik etorritako familiek dituzten zailtasunak zein bertakoen beharrak jaso dituzte hainbat paneletan *Zu bezalako norbait* erakusketan. Otsail osoan egongo da ikusgai, Arkupeko erakusketa aretoan, eta herritarren artean hausnarketa sustatzea gurako lukete.

Errolda eta zaintza

Aretxabaleako Caritasen herri-askori egin die harrera azken urteetan; batzuk bertan jaiotakoak dira eta beste batzuk kanpotik etorritakoak, legezko paperak dituztenak zein gabeak. "Oso gertuan ditugun herritarrak ondo bizi direla pentsatu arren, askotan, ez da horrela. Era berean, kanpotik lan bila datoze-lako edozein baldintza onartu behar dituztela uste izaten da", adierazi du Lara Garcia kideak.

Erroldatzeko zailtasunak izaten dituzte hainbatek: "Gertatu ohi da pertsona batek etxebizitza errentan hartu gura izatea baina maizterrak ez gura izatea etxe horretan errolda dadin. Ondorioz, ezin du lanik topatu, osasun zerbitzurik jaso edo dirulaguntza publikorik eskatu. Beste batzuetan, ostera, erroldatzea onartzen du maizterrak, baina diruaren truke. Legezko kontraturik egin gura ez duten ugazabak ere badaude".

Zaintza da hausnarketarako beste gai bat: "Zaintzaileen baldintzak ez dira onak izaten, orokorrean, eta kanpotik etorritakoenak, are eta okerragoak. Zaintzaileak hartzen dituzten familia askok uste dute paperik ez izateagatik hainbat onura ez dituztela merezi: soldata duina, atsedean hartzeko egunak...".

Iaz, "lan handia"

Pandemiak familia askoren egoera okertu zuen iaz, eta asko izan ziren Caritasera gerturatutakoak. "Bereziki, ostalaritzan



Lara Garcia eta Paloma Martinez, Arkupeko erakusketa aretoan. MIRARI ALTUBE

UMEEN BEHARREI ZELAN ERANTZUN ETA HELDUEI IKASKETETAN ZELAN LAGUNDU AZTERTZEN DABILTA

lan egiten duten latinoamerikarrek, egun batetik bestera inongo diru sarrerarik gabe geratu zirenak", dio Paloma Martinez kideak. Konfinamenduan, gainera, eskolako jantoki gabe geratu ziren familiak, eta gastu horri aurre egin ezinik: "Behar hori asetzeko, astero-astero banaketa bereziak egin genituen".

Urte "zail" hartan albiste onik ere izan zuten Caritasen; herriko lantaldea indartu egin zen, bi lagun izatetik laura pasatuta: "Begi gehiagorekin errealtate gehiagori erreparatzen diogu, ikuspegi ezberdinarekin, gainera, eta proiektu gehiagori heltzeko moduan gaude". Era berean, Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harreman estuan dihardute lanean: "Informazioa trukatzeko dugu, baita jendea hara bideratu ere, laguntzak jaso dituztenak".

Proiektu berriak esku artean

Urte berriak ez du ekarri aldaketarik, eta beharrek "bere horretan" jarraitzen dute. Horiez gain, beste behar batzuk ere atzeman dituzte, "oinarritzotzat hartzen ez" direnak, sarritan. "Umeei eragiten diete, eta dira errefortzu-eskolak, udalekuak eta eskolaz kanpoko ekintzak -musika, dantza, kirola...-, besteak beste. Ume guztiek izan beharko lukete parte hartzeko aukera, garapen pertsonalerako zein harremanetarako direlako onuragarriak", dio Martinezek. Hori, baina, ezin dela mugatu Caritasera hurbiltzen diren familietara uste du: "Beste batzuk ere badaudelako horren beharreen. Pentsatzen gabilta zelak bideratu laguntza hori, eta ekarpenak ondoetorriak izango dira".

Bestetik, enplegua topatzeko ikasketak behar dituzten helduekin ere lan egin gura dute: "Horiei laguntzeko eta horiek motibatzeke jarraipena egitea garrantzitsua da. Horretarako jendea gurako genuke".

Laguntza eskatzeko zein emateko bidea zabalik du Caritasen: 688 76 80 84 eta caritas.aretxabaleta@gmail.com.



Ibarra futbol zelaiko argindar dorreetako bat. IMANOL BELOKI

Futbol zelaiko argiteria berritzeko lanak hastear dira

Hamasei led proiektagailu jarriko dituzte eta energia kontsumoan ia %57 aurrezte aurreikusi dute

M.A. ARETXABALETA

Ibarra futbol zelaiko argiztapena berritzeko lanak esleitu ditu Udalak. Sei enpresa aurkeztu ziren deialdira eta Tecuni aukeratu dute horretarako. Lanek 56.900 euroko kostua izango dute -gehi BEZA- eta Energiaren Euskal Erakundearen dirulaguntza programara aurkeztuko da Udala. Hiru hilabete beharko dituzte lanak egiteko.

Egungo argiteria 19 metroko lau dorreekin osatuta dago, eta bakoitzak sei proiektore ditu. Ekipamendu horren ordez hamasei led proiektagailu jarriko

dituzte, eta bakoitzak 1.500 watteko potentzia izango du; guztira, 24 kW. Hala, argindarraren kontsumoan %56,60ko energia aurrezte lortuko dela adierazi dute.

Teknologia berriari esker, gainera, argiek bizitza erabilgarri luzeagoa izango dute, eta proiektore berriek erregulazio sistema bat izango dute beharren arabera: entrenamenduak, partiduak...

Efizientzia energetikoa eta aurrezpena izan dira argiztapena hobetzearen irizpideak. Instalazioko argien gastua urtean 7.000 euro baino gehiago murriztea aurreikusi dute.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Bidegorria ez da kaka-lekua

Urkuluan paseoan ibiltzen den herritar batek kexa azaldu du, txakur "kakaz beteta" egoten delako bidegorria: "Laster, saltoka joan beharko dugu horiek ez zapaltzeko".



Txapel Txin, astelehenean, Algara ludotekako neska-mutikoekin. GOIENA

Aratusteei keinu egingo diete herriko ikastetxeek

Domekan ez da izango mozorro-jairik kaleetan; hala ere, Txapel Txinen bisita jaso dute astean neska-mutikoek, urtero legez. Txapelaren ordezkari maskara eroan du jantzita eta umoretsu jardun du han eta hemen, alaitasuna darion mezua zabaltzen

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Txapel Txinek ez du hutsik egin pandemia sasoiaren ere, eta ume artean ibili da astean. Algara ludotekan jaso dute haren bisita, baita ikastetxeetan ere: Kurtzebarri eskolan eta Arizmendi ikastolako Basabeazpi eta Almen guneetan. Pozik agertu da egin dioten harrerarekin, besarkadak, dantzak eta kantuak jaso dituelako trukean.

Umeek "merezi" dutelako ibili da hara eta hona Aratusteei keinu bat egin guran: "Topera ibili naiz ume artean, Aratuste giroak dakarren alaitasuna merezi dutelako". Dena den, gogorazi die maskara ibili behar dela une oro: "Herriko komertzioek neurritan egin didaten maskara darabilt neuk ere!".

Ospakizunak, barruan

Udalak eta Karnabalen Lagunak taldeak joan den astean iragarri zuten aurretik ez dela Aratuste jairik izango. Eta ikastetxeetako ikasleak ere ez dira irtengo kalera martitzenean; hala erabaki dute guztiek.

Kurtzebarri eskolako kideek gaur, egubakoitza, egingo diote

keinutxo mozorro jaiari. "Herrian ez da ezer ospatuko, baina eskolok tradizio kultural horri eusteko erantzukizuna daukagu", adierazi du Mikel Uribarren zuzendariak. Lantzen diharduten proiektuarekin zerikusia duen ekintzaren bat edo beste egingo du talde bakoitzak; mozorrotu egingo dira, batzuek dantzak gertatu dituzte eta beste batzuek, bertsoak.

Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunekoek ere gaur ekingo diote jai giroari ikastolako txarangarekin, eta martitzenean jarraipena izango du horrek: goizean, Euskal Herriko Inauteriak izango dituzte gogoan, eta txino dantza ere egingo dute, eta arratsaldean, mozorro festaren eta desfilearen txanda izango da. "Pandemia honek umorea eta irribarrea ez digu kenduko!", adierazi du Eneritz Urrutia irakasleak.

Pausoka haur eskolan martitzenean ospatuko dute, oraindik erabat zehaztuta ez izan arren. "Taldeen banatuta izango da, eta, eguraldi ona bada, kanpora irtengo gara 2 eta 3 urtekoekin", azaldu du Jaione Zugastik.

~~ara~~
~~tuste~~
~~ak~~
aurten ez.

zaindu
eta
etxean
geratu!

... datorren urtean hobeak eta gehiago.

liburuxkak
jai egitarauak
errekordatorioak
pegatinak
kartelak
txartelak
etiketak
errifak
INPRESIO DIGITALA

EGUZKIGRAF
inprimategia

Ekimenei berrekiteko gertu liburutegian

Pandemia egoerak ekarritako neurriak beteta dihardute lanean, eta erabiltzaile kopuruak behera egin duela igarri dute. Irakurzaletasuna bultzatzeko antolatu izan dituzten ipuin kontaketak eta literatura-solasaldiak bueltan izango dira martxotik

Mirari Altube ARETXABALETA

Maskarak jantzita eta eskuak garbituta sartu behar da Arkupeko udal liburutegian, beste hainbat tokitan legez. Hala, pandemia egoerari aurre egiteko zehaztutako neurriak zorrotz betetzen dihardute azken urtean. Edukiera da aldaketarik handiena, eta erabiltzaile kopuruak behera egin duela igarri dute bertako kideek.

Egun batzuetan, beteta

Edukiera erdira jaitsi dute, eta hori bermatzeko hainbat aulki kendu dituzte mahaietatik. Helduen gunean 24 lagun egon daitezke une berean, haur liburutegian zortzi eta Txiki-txokoan lau. Ordenagailuei dagokienez, helduen gunean zortzitik lau erabil daitezke, eta umeen gunean lautik bi. Abenduan, ikasleen azterketa sasoiaren, bete egiten zela azaldu du Joseba Lopez de Armentia arduradunak. "Egun-kariak irakurtzeko gunean ere jartzen ziren ikasleak orduan.

Txiki-txokoa ere segituan betetzen da, eta beste umeren batean etortzeko esan behar izan dugu hainbatetan". Era berean, ohi baino erabiltzaile gutxiago dabilela uste du: "Ezjakintasuna izan daiteke; pentsa, ekainean zabaldu genituen ateak eta irailan galdezka deitzen ziguten ea irekita zegoen. Beldurra dutenak ere badaude". Horren adibide dira datuak: 2019an, 16.990 mailegu eskaera izan ziren; 2020an, 10.270. "Poliki-poliki hasi gara berreskuratzen lehengo datuak", dio Lopez de Armentiak.

Lan karga handiagoa ere ekarri die egoera horrek: "Ordenagailuak, mahaiak zein aulkiak garbitu egin behar ditugulako erabili ondoren". Herritarrek

LIBURUAK BERROGEIALDIAN IZAN BEHAR DITUZTE KAXA BATEAN SARTUTA, ASTEBETEZ

liburuak itzultzen dituztenean, gainera, berrogeialdian uzten dituzte: "Astebetez egon behar dute kaxa batean sartuta. Horrek atzeratu egiten du maileguan hartzeko epea".

Ipuin kontaketak eta solasaldiak

Irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin ipuin kontaketak antolatu izan dituzte umeendako eta literatura-solasaldiak helduendako. "Iaz, baina, bertan behera utzi behar izan genuen guztia; batetik, egoeratik, baina, bestetik, Udalak aurrekontua erdira murriztu zuelako bai liburuak erosteko, bai ekitaldietarako".

Aurten ekimenei berrekiteko asmoa agertu du: "Onartzekotan dauden udal aurrekontuan partida leheneratu dutelakoan nago. Hortaz, gure asmoa da martxoan bertan ipuin-kontalari bat ekartztea". Edukiera mugatua denez, Arkupeko bigarren solairuko gelan antolatzea halako ekitaldiak pentsatu dute: "Eta izena aurretik eman beharko da".

Aitor Sarasua bertso-paper lehiaketa jarri dute abian

Bertsularien Lagunak elkarteak deitu du eta lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 28a da

A. ARANBURUZABALA ARETXABALETA

Bertsoaren aldaera guztien presentzia bermatzeko gain, plaza-tik harago dauden bertsulariei adierazteko aukera emateko asmoz abiatu du Bertsularien Lagunak elkarteak Aitor Sarasua bertso-paper lehiaketa.

Gazteak eta helduak

Bi maila zehaztu dituzte: 16 urte bitartekoak gazteen sailean lehiatuko dira –gutxienez lau bertso eta gehienez zortzi– eta hortik gorakoak, helduenean –gutxienez sei bertso eta gehienez hamar–. Eta egile bakoitzak nahi adina bertso sorta bidal lezake. Gaia, neurria eta doinua –azken hori zehaztu beharra dago– libreak izango dira.

Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 28a da –epaiaren berri martxoaren 20an emango dute– eta honako helbide hone-



Aitor Sarasua. 'BERTSOA.EUS'

tara bidali beharko dira: *sarasua.lehiaketa@gmail.com*. Helduek dirua jasoko dute saritzat –300 euro, 200 euro eta 100 euro hiru onenek, hurrenez hurren– eta gazteei, Bertso Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak eman- go dizkiete, besteak beste.

Adierazpenerako askatasuna landuko dute martitzenean

Adierazpen askatasuna eta gorrotoaren diskurtsoa izeneko hitzaldi-solasaldia antolatu dute Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Zurrumurruek Aurkako Sareak ZAS! elkarlanean. Otsailaren 16an izango da (18:00), Arkupen, baina izena aurretik eman behar da, honako helbide honetan: *ongizate@aretxabaleta.eus*. Azken eguna hilaren 14a da.

OHARRAK

Odol ematea

Astelehenean odola emateko autobusa izango da Durana kalean (16:45-20:00). Herritarrek ematera gonbidatu dituzte.

Kiroldegia zabalik

Etzi, otsailak 14, Aratuste-domeka izan arren kiroldegia zabalik izango da (09:00-14:00), itxita egongo zela iragarrita egon arren.

Imanol Zubero Soziologian doktorea eta Mikel Mazkarian Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren ordezkaria elkartuko dira gaiaren gainean jarduteko. Eta honako galdera hauei erantzuten ahaleginduko dira: *Zer da adierazpen askatasuna? Beharrezkoa da? Zertarako balio du?* Era berean, hausnartu egingo dute mintzen eta kaltetzen duten adierazpenen gainean, eta kaltearen eta irainaren arteko muga hori non jarri behar den partekatuko dute elkartutakoekin.



Herritar bat, liburutegian, Joseba Lopez de Armentia arduradunari kontsulta egiten. MIRARI ALTUBE

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Kukumarroa, Fernando Eskoriatza plazan, herriko gaztetxoan atzetik, puxika eskuan duela. GOIENA

Kukumarro pertsonaia gehiago ezagutzeko saioa

Urtero gupida barik aritzen diren kukumarroek deskantsua hartuko dute aurtengo Aratuste-martitzenean. Hala ere, Eskoriatzako pertsonaiaren baitan gehiago jakiteko, 'Kukumarroen Inauteriak' izeneko hitzaldia izango da gaur, 19:00etan, Zaldibarren

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Aratustee berezitasunak dituzte. Izan ere, Eguen Gizenean Urdelarderekin ematen zaie hasiera festei. Gero, mozorro desfile lehiaketa, herri bazkaria eta bestelako hitzorduak izaten dira, eta Aratuste-martitzenean, aldiz, herriko ikastetxeetako haurren dantzaldiekin batera, kukumarroen eguna izaten da. Eskoriatzako pertsonaia berezia eta antzinatik datarren tradiziokoa.

Antzinako pertsonaia

Eskoriatzako Aratuste garaiko tradizioan antzinatik agertzen diren pertsonaia dira kukumarroak, gaur egunera arte mantendu direnak.

Kukumarroak mendian bizi diren basagizonak dira, eta negu amaieran menditik jaitsi eta herriko jendea zirikatzen eta beldurtzen saiatzen dira. Horren aurrean, haurren isekak jasotzen dituzte. "Kukumarro txorimalo!" eta halakoak.

Janzkera bitxia

Aurretik amantal loreduna eramaten dute jantzita, heltzear dagoen udaberria irudikatuz, eta bizkar gainean ardi-larrua eramaten dute, bukatzear dagoen negu gorriaren adierazgarri. Eskuetan, berriz, txerriaren puxika puztua, eta buru-berokiarekin batera kono formako koloredun kapela.

Oier Araolazaren azalpenak

Kukumarroa zer den? Zer zerkusi dagoen Eskoriatzako kukumarroaren eta Urdiango momoxarroen artean? eta halakoak aterako ditu Zaldibar antzokira gerturatzen direnen aurrera. Neguko festetan egiten diren zenbait erritoren, festaren eta

HERRI ASKOTAKO INAUTERIAK IZANGO DITU AZTERGAI, GAUR, OIER ARAOLAZA ANTROPOLOGOAK

tradizioren inguruko gaiak ere izango ditu hizpide Oier Araolaza antropologoak. Hain zuzen, zer duten komunean Gau Beltzak, Eguberriek eta Inauteriak, esaterako; edo, nola ospatzen ziren lehen, eta zer aldatu den gaur egungo festetan, besteak beste: "Inauteriari begirada zabal bat eskaintzen diot. *Kukumarrua, kokomarrua, mozorrua* edo *kokua...* zer izan den eta gaur egun zer den gure kulturaren landuko dut. Ezaugarriak aztertuko ditut. Gaur egun, mundu osoan zabaldua dagoen festa da, eta herri askotan bere nortasun propioa du... Hala, hori izango dut aztergai", adierazi du Oier Araolazak.

Gonbidapena, derrigorrezkoa

Hitzaldia doakoa izango da, baina, Zaldibar antzokiko edukiera mugatua denez, gonbidapenak eskatu beharko dira, kultura etxera deituz -943 71 46 88- edo 650 49 51 66 zenbakira (*whatsapp*-a) bidalita.



Herriko ikastetxeetako haurrek Urdelardero eguna ospatu zuten atzo. I.B.

Taldeetan banatuta ospatu dute haurrek Urdelardero eguna

Herriko ikastetxeetako haurrak Ibarraundi museoa eta udaletxea aurrean aritu dira aurten abesten

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolako eta Arizmendiko Jose Arana guneko ikastolako haurrek modu berezian ospatu dute Urdelardero. Batzuk, baserriar jantzita atera dira eta *ziriarekin*, beste batzuk ez, baina, eguraldia lagun burbuiletan banatuta aritu dira kantuan.

Luis Ezeiza eskolako haur hezkuntzako ikasleak, 3, 4 eta 5 urtekoak, Ibarraundi museora joan ziren abastera, 11:30ean, eta bertan kantatu ostean, gozokiak irakasleei eman, eta gero, gelan banatu zizkieten haurrei.

Lehenengo eta bigarren mailako haurrek, bestalde, 10:30ean plazara joan, eta bertan abestu zuten. Jose Aranako ikasleek ere, eskolako moduan, museoan eta udaletxe parean kantatu zuten *Urdelardero* abestia.

Egoiliarrei abesteko gogoz

Luis Ezeizako eta Jose Aranako haurrak joatekoak ziren nagusien egoitzara *Urdelardero* abastera. Azkenean, ez dira joan, egoiliarrek konfinatuta daudelako. Dena den, egoitza barrutik entzungo zituzten haurren kantua, seguruenez.



I.B.

Plastikozko hesi birziklatuak

Eskoriatzako Udalak Santa Ana auzoan liburutegi alboko hesi zati bat konpondu du. Hain zuzen ere, %100 plastiko birziklatuz egindako hesi-zatiak erabili dituzte lan horretarako, eta, aurrera begira, auzoan bertan egoera txarrean dauden beste hesi-zati batzuk ere konponduko dituztela adierazi dute.



Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoek Auzoko Eskoriatza taldekoekin egindako saioa. AUZOKO ESKORIATZA

Migrazioaren lanketa feminista taldekoekin

Auzoko Eskoriatza taldeko kideak Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideekin lanketa saioak egiten ari dira. Hizkuntzak partekatze, Eskoriatzara iristean jaso zuten harreraren gainean hitz egiteko eta bi taldeetako kideek elkar ezagutzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Auzoko Eskoriatza taldekoak Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideen bisitak izaten ari dira beraien saioetan. Hitzordu horietan, hizkuntzak partekatze lanketarekin aritu dira, elkar ezagutzen, eta, hori horrela, auzotarrek auzokideei Eskoriatzara etortzean izan zituzten beharrez galdetu eta solasaldi ederrak izan dituztela adierazi du Iratxe Arresek, Auzoko Eskoriatza taldeko koordinatzaileak.

Migrazioa ardatz

2021eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, beste hainbat aldarrikapenekin batera, emakumea eta migrazioa izango da gai nagusietako bat, eta emakume migratuen eskubideen defentsan aterako dira kalera, baita Eskoriatzan ere. Horren harira, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideek emakume migratzaileen hitzak plazaratu nahi dituzte. "Lanke-

tarekin hasi bakarrik egin gara; izan ere, bi saiotan elkartu gara Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoekin, baina oso saio emanorak izan dira. Hala, otsailaren 20ko Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako ekintza zehaztuko dugu eta Martxoaren 8rako ekintzak ere prestatu gura genituzke hemendik aurrera", adierazi du Arresek.

Ikasleekin lanketa saioa

Hilaren 22an, berriz, eta beste urte batzuetan egin duten moduan, Huhezi fakultatera joango dira bisitan Auzoko Eskoriatza eta Auzoko Aretxabaleta taldeetako kideak. Bertan, ikasleekin eta irakasleekin batuko dira, esperientziak partekatze eta

EMAKUMEEN MUNDU MARTXAREN BAILARAKO EKITALDIA ESKORIATZAN AMAITUKO DA

Auzoko proiektuaren nondik norakoak azaltzeko.

Emakumeen Mundu Martxa

Otsailaren 20an, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa bailarako ekitaldia izango da, eta Eskoriatzan amaituko da; mugak, transnazionalak eta migrazioa izango ditu ardatz egitasmoak. Egunerako egindako oihalak herri batetik bestera eramango dituzte, eta Eskoriatzan denak jasoko ditu furgonetak, martxoaren 6an, Irun eta Hendaia arteko zubian oihala guztiak jositako eskegitzeko.

"Oihalean, emakume emigranteek nola bizi izan duten migrazioa adieraziko dugu. Hala, testu bat irakurriko dute, eta Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoek eta Auzokoko Eskoriatzakoek ekintza bat gauzatuko dugu, egunean bertan ikusi ahal izango dena", adierazi du Kristina Kardenalek, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideak.



Iñurrategi anaiak. Mendiari bihotz emanak liburuaren pasarte bat. SUA ARGITALETXEA

Alberto eta Felix Iñurrategi anaien abenturak binetetan

Komiki-liburuaren aurkezpenarekin batera, CVCEPHOTO argazki erakusketa irekiko da hilaren 19an, Zaldibarren

I.B. ESKORIATZA

Otsailaren 19an, 19:00etan, *Iñurrategi anaiak. Mendiari bihotz emanak* komiki liburuaren aurkezpena izango da Zaldibar antzokian. Felix eta Alberto Iñurrategi anaien mendi ibilbideari eta, bereziki, duela 20 urte mendi istripuan hil zen Felixi omenaldia egiten dion komiki liburua aurkezteko, Alberto Iñurrategi bera izango da bertan, eta baita liburuaren idazle Ramon Olasagasti eta Cesar Llaguno marrazkilaria.

Orain dela bi urteko *Everest herri oso bat gailurrean* izeneko komikiari jarraipena emanez, *Iñurrategi anaiak. Mendiari bihotz emanak* izeneko argitaratu dute Mendifilm jaialdiak eta Sua argitaletxeak. Ramon Olasagastik idatzi du gidioa, Cesar Llagunorenak dira marrazkiak eta Felipe H. Navarrok koloreztatu ditu irudiak.

Komiki liburuaren aurkezpenarekin batera, Eskoriatzako Dorleta liburu-dendan hartutako liburuak jarriko dituzte Zaldibar antzokian salgai –gaztele-razko eta euskarazko liburuak—. Hala, herriko komertzioak bul-tzatze asmoz.

CVCEPHOTO argazki erakusketa

Aurkezpenaren egun berean, otsailaren 19an, Zaldibar antzokian CVCEPHOTO argazki erakusketa inauguratuko da, eta otsailaren 28ra bitartean egongo da ikusgai.

Argazki erakusketak CVCEPHOTO lehiaketaren seigarren edizioaren irudi irabazleak biltzen ditu, eta mendiarekin lotutako hainbat diziplinatako irudi zoragarriak ikusteko aukera izango da. Erakusketa Zaldibar antzokiko kristalezko sarreran egongo da ikusgai, kanpotik ikusteko moduan.

'Pepa eta Kutxo' clown ikuskizuna izango da domekan, Zaldibarren

Domekan, *Pepa eta Kutxo* clown ikuskizuna izango da; bertan, elementu asko nahasten dira: pailazo klasikoaren jokoak, mimoa, partaidetasun antzerkia, objektuen antzerkia, absurdoaren antzerkia... Egoera barregarriak asmatuko dituzte ikusleen konplizitatearen truke. Sarrerak hiru eurotan erosi daitezke, kiroldegian.

'Mendian hil, hirian hil' proiektiorako sarrerak salgai daude

Joan den astean proiektatu zuten *Mendian hil, hirian hil* dokumentala Zaldibar antzokian. Zapatu honetan beste emanaldi bat izango da, baina sarrera guztiak agortuta daude. Hori horrela, hilaren 20an ere izango da ikusteko aukera, Zaldibar antzokian, 19:00etan. Sarrerak hiru eurotan erosi daitezke, kiroldegian.

"Umorearen beharra dugu garai latz honetan"

OLATZ PAGALDAY ANTZEZLEA

Eskoriatzarraren ogibidea den antzerkia oso kolpatua izan da pandemia garaian. Hala ere, egoerari aurre egin, eta saio berriak prestatzen ere izan da, geratu barik

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hogei urtetik gora daramatza Olatz Pagalday eskoriatzarrak oholtza gainetan antzezten. Plaza eta antzoki askotan aritu da, eta, 2020ak erritmoa moteldu arren eta lan egiteko oztupo gehiago izan arren, ikuskizunak egiten jarraitu du, baita berriak sortzen ere.

Ogibidez antzerkigilea izanda, ikuskizunak emateko zailtasunekin aritu zarete azkenaldian?

Bai, baina ez hori bakarrik; lanbide ez egonkorra izan da betidanik, eta egoera honek eze-gonkorrago bihurtu du. Programatzailengan beldur puntu bat nabaritu da pandemiaren hasieran. Antzokiak gune seguruak direla ikusi da, eta umorearen eta irudimenaren, kulturaren, beharra dugu guztiok, gaur egungo egoeran are eta gehiago. Ea gehiago programatzen den.

Azkenaldian, zertan aritu zara?

Aspaldi egin barik nuen *Erdaldun berrien kluba* antzezlana-rekin aritu nintzen, urrian, Bergarako Seminarixoan, esaterako. Horrekin batera, Deabru Beltzak-ekin *Olentzeroren eskuritzak* antzerkia antzezten aritu gara aretoetan... Horrez gainera, aurretik prestatuta genuen ikuskizun bat pandemia egoerara moldatu behar izan dugu.



Olatz Pagalday, *Erdaldun berrien kluba* antzezlanean. IMANOL SORIANO

"ETXEKOEN AURREAN ANTZEZTEA BEZALAKORIK EZ DAGO; GUSTATUKO LITZAIDAKE"

Tonu umoretsuan dantza, musika eta jolasa ardatz, ikuskizunaren izenburuak dioen moduan, diberti-dantzarik ez da falta.

Maskarak direla-eta ikusleen emozioak eta irribarreak ikusi ezin izateak kolpatu egiten du, nolabait?

Zalantza barik. Hasieran, arraroa egiten da, jendearen espresioek asko laguntzen dizutelako antzezlana aurrera eramaten, eta egin ahala hobetzen. Norbakoaren espresioak mugatu egiten dira eta talde indarra galdu egiten da.

Eskoriatzako Zaldibar oholtza gainean izandakoa zara. Besteren batekin ikusiko zaitugu?

Ea horrela den. Gustatuko litzaidake gertukoaren aurrean berriz antzezte. Urduriago jarri arren, etxean antzezte bezalakorik ez dago.



Sorginak Emakume Taldeko zenbait kide, iaz. SORGINAK TALDEA

Martxoaren 8an zer egin erabakitzeke batuko dira

Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkarteko kideek urtebete daramatzate ekintzarik antolatatu gabe

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gaur, egubakoitza, batuko dira Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkarteko kideak, Martxoaren 8an egingo dituzten ekintzak antolatzeke. 2020ko Emakumeen Nazioarteko Egunean batu ziren azkenengo aldiz Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkartekoak, eta, ordutik hona, ez dute ezer antolatu. Hori horrela, ekintza xume bat bada ere, zerbait egiteko prest daude, eta zer egin zehazteko batuko dira.

Ospakizun handiak mahai baten bueltan egin ohi dituzte urtero Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkarteko kideek Emakumeen Nazioarteko Egunean. Izan ere, urtero batzen dira elkarteko kideak, elkarrekin bazkaldu eta musika jarrita dantzaldia egiteko. Aurten, baina, ez dute halakorik egingo, egoerak hala behartuta.

Agian, kontzertua

"Urte osoan ez dugu ekintzarik egiteko aukerarik izan. Azaroan San Milixan eguneko artisau azoka izaten da, eta beti izaten gara bertan taloak egiten, baina, aurten ez denez ospatu, ez gara elkartu. Horrekin batera, azpimarratzekoa da 2020ko Martxoaren 8an izan genuela azken ospakizun eguna, gero konfinamendua iritsi baitzen. Hala, gaur batuko gara taldeko zenbait kide, Emakumeen Nazioarteko Egunean zer egin erabakitzeke, eta aurrera begirakoak ere aztertzeke. Garbi dugu urteroko bazkaria eta dantzaldia ez dela egingo, baina nork bere proposamenak jarriko ditu mahai gainean, eta horietako bat kontzertu akustiko bat antolatzea izango da. Ea ateratzen den", adierazi du Garazi Orobengoak, Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkarteko kideak.

Egoerari umorez aurre egiten

Deabru Beltzak teatro konpainiarekin batera *Diberti-dantza* izeneko ikuskizunarekin buru-belarri aritu da Pagalday.

Pandemia garaiko saioa

Pandemia egoeran, musikaz, jolasez eta dantzaz osatutako formula berezi bat taularitzen dute, ikus-entzuleak hankaz gora jartzeko, pandemia garaian jendea alaitzeko asmoz.



Diberti-dantza ikuskizunaren une bat. DEABRU BELTZAK

OHARRAK

Txertoari buruzko dei faltsuak

Ertzaintzaren ohar bat jaso dute Udalean, ohararaziz telefono deiak izaten ari direla, Osakidetzatik deituko balute bezala, COVID-19 gaixotasunaren aurka txertoak etxean emateko aukera eskainiz. Horrelako deiak iruzurra direla azpimarratu gura izan du Leintz Gatzagako Udalak.

Zuhaitz Eguna, hilaren amaieran

Leintz Gatzagako Gurel Elkarteko kideek jakinarazi dutenez, otsailaren amaiera aldera Zuhaitz Eguna antolatzeke asmoa dute. Hala ere, oraindik zehaztu barik dute eguna, udal ordezkariekin landu nahi dutelako egitasmo hori non eta nola egin.

Eguneroko zurrunbilotik altxatu, eta etorkizuneko Bergara zehazteko plana

Udal Gobernuak atzo aurkeztu zuen 'Bergara Izan, Bizi, Ekin' plana, hemezortzi helburu eta horiek lortzeko "ekintza zehatzak" jasotzen dituena: "Bergara jasangarritasunetik, feminismitik eta justizia sozialetik eraiki nahi dugu, elkarrekin eta elkarlanean"

Jokin Bereziartua BERGARA

Atzo iluntzean, Seminarixoan egindako ekitaldian, alde zurreretik gonbidatutako "askotariko herritarren" aurrean aurkeztu zuen Udal Gobernuak *Bergara Izan, Bizi, Ekin* plana. 2023an bukatuko den agintaldi osora begirako plana da, Udal Gobernuak "bere buruari" egindako honako galdera hau erantzutera datorrena: "Nolako Bergara irudikatzen dugu hemendik urte batzuetara? Ikusi dugu etorkizuneko argazki hori geure buruan, eta horra heltzeko marraztu dugu bide-orria. Izan garenaz harro eta izan nahi duguna argi. Bergaran bizi nahi dugu. Elkarrekin, elkarlanean eraikiko dugun Bergara bizian. Jasangarritasunetik, feminismitik eta justizia sozialetik, elkarbizitza erraztuko duen Bergara atseginean".

Birusak baldintzatutako plana

Hilabete barru, urtebete betekoa da COVID-19ak eragindako krisia hasi zenetik eta Gorka Artola alkateak aitortu du pandemiak "neurri handi batean" baldintzatu eta atzeratu duela *Bergara Izan, Bizi, Ekin* planaren edukia eta aurkezpena: "Iazko martxorako oso aurreratuta genuen zirriborroa, baina COVID-19a agertu zen eta ezinbestean moldaketa batzuk egin behar izan genituen. Agintaldi hasieratik argi genuen etorkizunera begirako ekintza plan bat diseinatu behar genuela; orain aurkezten dugun plana COVID-19ak behartutako aldaketekin egindakoa da".

"Oso izaera propioa" duen herria
Bergara Izan, Bizi, Ekin planak hemezortzi helburu jasotzen ditu eta helburu horietarako "ekintza

zehatzak" proposatzen ditu Udal Gobernuak, "denboretan edo kronograma baten neurgarriak" izango direnak. Atzoko ekitaldian nabarmendu zuten, hain zuzen, "malgua, dinamikoa eta neurgarria" izango den plana dela.

Hemezortzi helburu horiek *izan, bizi eta ekin* aditzen bueltan zehaztu dituzte; Gorka Artolak azaldu dio GOIENARI ardatz horietako bakoitzaren atzeko esanahia zein den. Hasteke, *izan* aditza oinarri duen ardatzean "izaera oso propioa duen" herria da Bergara, Artolaren ustez: "Historiatik dakarren izaera da, baina egunerokotasunean ere nabarmentzen dena eta moldatzen doana. Argi dugu etorkizuneko Bergarak balio oso markatu batzuk izan behar dituela, herri bizia, koloretsua eta atsegina izateko:

gaur egun behar-beharrezkoa den jasangarritasuna, feminismitik begiratzen duena, justizia sozialean oinarritzen dena eta elkarbizitza ardatz izango duen gizarte bat nahi dugu gure herrian. Agertoki horretara heldu ahal izateko helburu eta ekintza batzuk zehazteko beharra sentitu genuen".

"Garai berrietara egokituta"

Planaren bigarren ardatza *bizi* aditzaren bueltan mugituko da. "Bergara bizigarri baterako aukerak ahalik eta atseginak izango dituen nahi dugu, eta gertoki horretara heltzeko ere arlo guztietan egingo dugu lan", aurreratu du Artolak.

Eta hirugarren ardatzak *ekin* aditza du oinarri: "Eraldaketa-erako edota garai berrietara egokitzeo Bergarak izango duen

iniziatiba eta gogoia irudikatuta nahi dugu, eta eraldaketarako grina hori ekintzetara ekarri".

"Epe ertain-luzerako" helburuak

Esandako moduan, hemezortzi helburu zehaztu ditu Udal Gobernuak *Bergara Izan, Bizi, Ekin* planean: euskara gizarte-ko elementu bateratzaile bihurtzea; memoria partekatua bultzatzea; Bergara atsegina eta jasangarria eraikitzea; ume eta gazte guztien ongizatea bermatzeko, eskolak komunitateko eragile bihurtzea; Bergarako biodibertsitatea babestea eta zaintzea; belaunaldi arteko harremanak sortzea; auzoen garapen orekatua eta jasangarria bultzatzea; bergararren oinarritzko beharrak bermatzea; kirola, gizarte kohesiorako tresna moduan bultzatzea; herriarrendako lan duina bultzatzea; administrazioa herritarrengana gerturatzea eta prozedurak erraztea; Bergararen eraldaketarako kultura bitartekaritza sustatzea; emakumeendako espazio erreferenteak sortzea; auzolana komunitatea eraikitzeo tresna bihurtzea; 2023rako Bergaran CO2 isurketak %10 eta %20 artean murriztea eta energia kontsumoa %10 gutxitzea; eraldaketa soziala sustatzea; lehen sektorea eta herri jasangarria uztartuko dituen politikak sustatzea; eta herrigintzan gazteen inplikazioa erraztea. Helburu horiek zeren

arabera zehaztu dituzten galderetara, honako hau adierazi du alkateak: "COVID-19a agertu aurreko lanketan, ostekoan eta teknikariekin batera egindako lanketa guztietan *Izan, Bizi eta Ekin* ardatzen bueltako behar batzuk identifikatu genituen eta horren arabera zehaztu ditugu helburuak".

Ekintzak "neurgarriak" izatea

Helburu horien arabera ekintzak neurgarriak izan behar direla zehaztu du Udal Gobernuak. "Ekintza bakoitza aurre-erroteko orduan ezarri behar-ko dira neurtzeko irizpideak. Argi dagoena da, adibidez, 2023rako CO2 isurketak edota energia kontsumoa murrizteko helburuak modu oso errazean direla neurgarriak. Bergara atsegina eta jasangarria jarri badugu helburu moduan, espazioen erabilera neurtu daiteke hori, esaterako. Argi dagoena da ekintza bakoitzak zehaztuta izango duela neurtua izateko irizpidea", esan du Artolak.

Oraingo, bakarria indarrean

Hain zuzen ere, atzo aurkeztutako ekintza planaren barruan, badago dagoeneko indarrean dagoen neurri bat: urte hasieratik herri osoan ibilgailuek gehienez 30 kilometro orduko abiadura har dezakete. Trafiko-ko Zuzendaritza Nagusiak -DGT moduan ezaguna dena- bide-segurtasuna handitzeko egin

"Datozen urteetarako gure jardunaren ardatza izango da ekintza plan hau"

Atzo iluntzean Seminarixoan egindako ekitaldian Udal Gobernuak zortzi kideak izan ziren, baina lauk hartu zuten hitza: Gorka Artolak, Ainhoa Letek, Nagore Iñurrategi eta Ekaitz Aranberri. Azpimarratu zuten, besteak beste, ekintza plan hau izango dela Udal Gobernuaren lanerako oinarria: "Datozen urteetarako gure jardunaren ardatza izango da plan hau. Malgua, dinamikoa eta neurgarria. Izan ere, egoera aldagarria den heinean, bereziki une honetan bizitzen ari garen osasun pandemia batean, behar berriak ere sor daitezke denborak aurrera egin ahala, eta pertsonen unean-unean dituzten beharrei erantzutea da gure nahia".



Udal Gobernuak: Luarizaristi, Arantzabal, Lete, Gonzalez, Artola, Iñurrategi, Aranberri eta Asula -Kristina Markina falta da-. I. SORIANO

Herri "koloretsua eta solidarioa"

Gorka Artola alkatea buru duen Udal Gobernuak "argi" du nolako Bergara nahiko luketen etorkizun hurbilean: "Koloredun herria nahi dugu. Pertsona guztiak aintzat hartuko dituen. Pertsona

helduek bizitza duina izan dezaten lan egiten duen herri solidarioa. Haurrak eta gazteak subjektu izango dituen herria. Bergararrak euren herrian bizitzen geratu daitezten etxebizitza, lana... bermatuko

dizkiena. Egoera zaugarrian dauden pertsonak aintzat hartuko dituen, argi dugulako ez dugula nahi inor atzean geratu dadin. Bertidasunean oinarritutako herrian sinisten dugulako".



Bergararen ikuspegi panoramikoa, duela hilabete inguru, Zabalotegiko dorretik ateratako argazkian. GOIENA

duen moldaketa da eta herri guztiek ezarri beharko dute 2021eko ekainerako, baina Udal Gobernuak urte hasieratik ezartzea erabaki zuen, gidariak ohitzen joan daitezela. Hasieran ohitura aldaketa ekarriko badu ere, Bergara "atsegin eta jasangarriago" baten bidean neurri egokia dela argi dauka alkateak: "Gidariok esfortzu bat egin beharko dugu, leku batzuetan abiadura handiagoak hartu izan direlako. Baina kaleko gainerako erabiltzaileendako –oinezkoak, bizikletak, patineteak...– eremu seguruago bihurtuko dugu herri gunea; ahalegina egin behar dugu elkar ondo moldatzeko".

2023a eta 2030a begiz jota

Ekintzekin jarraituz, badira 2021ean bertan martxan izango diren proiektuak; adibidez, Zubieta eta Masterreka kaleak

berriro urbanizatzeko proiektua eta Arrizuriagako jauregia egonkortu eta bertan kultura proiektu bat garatzen hastea.

Beste ekintza batzuk, aldiz, epe luzeago bati begira daude. Mundu mailako klima larrialdiari aurre egiteko, esaterako, 2023ra begira isurketak eta energia kontsumoa murriztu nahi dute, eta, horretarako, besteak beste, energia plana egingo dute, eraikin publikoetako energia kontsumoa kontrolatu eta Gorkako kantuan energia berriztagarria jarri. Horrez gain, badira epe luzeago batera begirako

NEURRI BAKARRA DAGO INDARREAN, ORAINGOZ: 30 KILOMETRO ORDUKO ABIADURA GEHIENEZ

beste hainbat ekintza: 2030erako plan estrategikoa egitea eta udal ordenamendua eta baliabideak plan estrategiko horretan ezarritako helburuak betetzera bideratzea; oinezko eta bizikletendako Bergarako baliabideak berreskuratzea eta horretarako mapa sortzea; erdiguneko eremu bat eraberritzea gune estali bat eratuz; Bergarako auzoen "diagnostiko integrala" egitea, landa eremuko etxe guztietara banda zabala eroatea edota baserri bideak zaindu, seinaleztatu eta ezagutaraztea; industrialdeak biziberritzeko plana egitea; eta Emakume Etxearen proiektua mugimendu feministarekin batera diseinatzea. Besteak beste, sortzeke dagoen Emakumeen Etxe hori emakume migratzaile eta aniztasun funtzionala dutenentzat erreferentzia bihurtzea nahiko luke Udal Gobernuak.

Helburuen arabeko ekintza batzuk

Jarraian, Udal Gobernuak zehaztu dituen hiru ardatzen arabeko bi edo hiru helburu eta horiek lortzeko ekintzak ageri dira, adibide gisa.

'IZAN' ardatza: bi helburu eta helburuok lortzeko ekintzak

- **Euskara gizarteko elementu bateratzaile egin** Euskararen normalizazioan urratsak egiten jarraitu eta "bergararrak batzeko" tresna izan dadin egitasmoak lantzea da asmoa.
Ekintzak: Harrera Plana berritzea euskara aintzat hartuta eta lan munduan euskararen erabilera sustatzeko proiektua garatzea.
- **Memoria partekatua bultzatu** Memoria kolektiboa eraikitzea: "Historia handiko herria da Bergara, garaira egokitzen jakin duena. Memoria kolektiboa eraikitzea goaz herritarrekin batera".
Ekintzak: 36ko gerrako eta gerraosteko gertaeren txostena egitea.

'BIZI' ardatza: hiru helburu eta helburuok lortzeko ekintzak

- **Bergararren oinarriko beharrak bermatu** Baliabideak jartzea, bitzita duina bermatzeko eta egoera zaurgarriak ekiditeko.
Ekintzak: Etxe hutsak alokairuan jartzeko plana eta Jaurilaritzak estaltzen ez dituen gizarte larrialdietarako laguntzak bermatzea.
- **Herri atsegina eta jasangarria eraiki** Pertsonak erdigunean jarri, umeen eta adinekoen ongizatea aintzat hartuta: "Umeentzat eta adinekoentzat aproposa dena denentzat delako apropos".
Ekintzak: San Joxepeko eguneko zentro arina martxan jartzea eta udal ordenamenduak eta baliabideak bideratzea egiteke dagoen 2030erako plan estrategikoko helburuak betetzera.
- **Biodibertsitatea zaindu** Natura-guneak babestu beharreko "altxorra" dira, herri atsegin eta bizigarri baterako "ezinbesteko".
Ekintzak: Bergara eukaliptorik gabeko herri egin eta gaur egun indarrean dagoen biodibertsitate planetik ekintzak garatu.

'EKIN' ardatza: hiru helburu eta helburuok lortzeko ekintzak

- **Herriaren eraldaketarako kultura bitartekaritza sustatu** Bitartekari lanak egin bergararren eta eragileen artean, kultura sorkuntza bultzatzeko eta "proiektu eraldatzaileak" abiatzeko.
Ekintzak: Arrizuriaga eraikina egonkortzeko lanak gauzatu eta Arrizuriagarako kultura proiektua egin.
- **Emakumeendako espazio erreferenteak sortu** Gizarte parekide baten aldeko borrokan lagunduko duen elkargunea.
Ekintzak: Emakume Etxearen proiektua diseinatu, betiere mugimendu feministarekin elkarlanean.
- **Isurketak eta kontsumoa murriztu 2023rako** Larrialdi klimatikoari aurre egiteko neurriak; helburua da CO2 isurketak %10 eta %20 artean murriztea eta energia kontsumoa %10 gutxitzea.
Ekintzak: Etxebizitzetan energia efizientzia hobetzeko obrak egiteko diru laguntza lerroa sortzea, Udalak energia berriztagarria erostea lehenestea eta Udaleko kontratazioetan ingurumena zaintzeko klausula sartzea.

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoia
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Empresaregistratua: 1190/025

Zapia egiten laguntzeko dei egin dute biharko

Martxanterek Emakume Mundu Martxaren Nazioarteko Egunaren bueltan egingo dituzten ekimenetan esku hartzeko deialdia egin dute. Bihar, hilak 13, herri mailako ekimena egingo dute Bergaran, ibarreko karabanara batuko den zapia egin nahi dute

Xabier Urzelai ARRASATE

Emakume Mundu Martxaren Nazioarteko V. Ekintzak aurrera doaz, eta Debagoiengan otsailaren 20a izango da egun esanguratsua. Egun horretan bailaratik pasako da karabana, eta herri bakoitzeko ordezkariak aurretik landutako gai eta lelo propioekin egindako zapiak batuko dituzte karabanara.

Hala, Martxanterek biharko, zapatua, egin dute deialdia. Goizean, 10:30ean batuko dira, San Martin plazan, zapi handi bat egiteko. "Guk erabakitako leloa izango duen zapia egitea da asmoa, koloreztatzea, jostea... Eta, bitartean, Mundu Martxaren bosgarren edizio honetarako prestatu duten dosieraren irakurraldi kolektiboa egingo dugu", adierazi dio GOIENARI Maite Aristegik.

Biharko ekitaldia ez da, baina, hor amaituko, zapia egin eta gero, 12:00etan, pentsiodunen aldarrikapenekin bat egiteko kale agerraldira batuko dira eta: "Hori ere emakumeon borroka delako, duintasunaren aldeko borroka delako eta uste dugulako hor ere indarrak batu egin behar direla. Hala, aldarrikapen horretara batzeko eskarea egiten diegu herritarrei".



luz, Martxoaren 8an Bergaran egindako kale agerraldia. GOIENA

Transnazionalak, eta mugak

Emakume Mundu Martxaren bosgarren edizio honetan, transnazionalak, mugak eta migrazio-politikak salatu nahi dituzte: "Sistema arrazista, kolonial, kapitalista eta heteropatriarkalaren tresna izateaz gain, pertsona migratzaileen zein jatorrizko lurraldeetan dauden bizitzak zapaltzen dituztelako".

Hain zuzen ere, aurtengo martxaren leloa izango da *Zubi guztien gainetik, mugarik ez! Transnazionalik ez!*

**"GUK ERABAKITAKO
LELOAREKIN ZAPIA
EGINGO DUGU BIHAR"**

**"ARRAZISMOA EZ DA
LIMOSNA EMANEZ
GAINDITZEN"**

**"HERRI BAKOITZAK
GAI BATEAN JARRIKO
DU INDARRA"**

MAITE ARISTEGI, MARTXANTERA

Mugak eta zubiak, sinbolo

Bosgarren edizio honetan aukeratu dituzten sinboloen gainean egin du berba Aristegik: "Mugek pertsona moduan eragiten gaituzte, eta herri moduan ere mugek mozketak dakarte. Hala, atzerritarrei buruzko legeak berak ezartzen dituen mugak nabarmendu nahi ditugu, pertsona euren duintasunez bizi daitezen zelako trabak jartzen dien lege horrek. Horregatik nahi ditugu muga horiek apurtu. Eta bestalde, zubiek laguntzen dute elkartzeko, batzen. Baina batuketa hori maila berean dauden pertsonen artean egin behar da, eta horregatik borrokatu behar da denon eskubideen alde, dauden mugak gainditu behar ditugu, zubiak eraikiz", dio Aristegik.

Lan horretan, Martxanteretako kideak garbi dauka norbanako bakoitzak egin behar duela bere ekarpena, borroka besteen esku utzi batik, eta transnazionalen gainean egin du berba: "Eurak dira mundu mailako ekonomian agintzen dutenak, sekulako bitartekoak dituzte. Hala, aurtengo Emakume Mundu Martxan transnazionalak berba izan ditugu, eta sistema horrek emakumeengan duen eraginaz jabetzea garrantzitsua da. Horregatik diot, borroka kolektiboaz harago uste dut norbanako moduan jabetu behar dugula gure borroka pertsonalak ere eragina duela, herri bakoitzak badituelako erremintak transnationalei aurre egiteko, eta otsailaren 20an etorriko den karabana honen bitartez horiek azaleratu nahi ditugu. Bakoitzak bere herrian, bertako botere publikoekin, administrazioarekin... posible da transnationalei aurre egitea".

Hitzorduak, M8a aurretik

Hauek dira aurreikusita dituzten hurrengo hitzorduak Bergaran: otsailaren 17an, arrazismoari buruzko online formakuntza irekia egingo dute –Euskal Herri mailakoa–. Otsailaren 20an, bergararrak Debagoienetik pasako den karabana ekintzara batuko dira. Martxoaren 6an, herriz herri doan karabana Irutera iritsiko da, eta Irutera eta Hendaia arteko mugan amaituko dute ekintza hori. Eta Martxoaren 8an, kale agerraldia egingo dute Bergaran.

Herri bakoitzak lanketa propioa

Ekimen global horren aurrean herri bakoitzak gai konkretu baten jarriko du fokua, eta Bergaran aukeratu dutena zein den azaldu du Aristegik: "Arrazismoa aukeratu dugu, eta horren aurrean hartzen dugun jarrera. Bistaratu nahi duguna da kariatatea edo limosna ematea ez dela soluzioa. Arrazismoari aurre egiten zaio lan kontratuak bermatuz, edota hutsik ditugun etxebizitzak kanpotarrei errentan emanez. Eta lelo horrekin egingo dugu Bergaran zapia, ondoren, beste herri batzuetan egingo dituzten zapiekin batera karabanara batuko dena". Hala, hilaren 20ko karabanaren azken geltokia Eskoriatza izango da: "Han izango da azken ekitaldia, eta, gauden egoera dela eta, xumea izango da".

Zuber-ekoak greban daude

Enpresak ez dizkie hiru hilabetetako soldatak ordaindu langileei, eta arazo ekonomikoengatik Zuber itxi egingo dutela jakinarazi diete. Hala, martitzena ezker, bertako sei langileak greba mugagabea daude. Otsailaren 1etik aurrera egindako lana soldatak kobratu ahal izateko dela baieztatu nahi dute langileek, ez "enpresaren zorrak estaltzeko".





Otsailerako antolatu dituzten ekimenen berri emateko talde argazkia, asteon, Arrano tabernaren atarian. BIZIRIK

Arrano eta Artatse "libre eta bizirik" nahi dituzte

'Herriko tabernen' auziaren barruan 2015eko Auzitegi Gorenaren epaia gauzatzen hasiko diren beldur eta Arrano tabernari eta Artatse elkarteari elkartasuna adierazteko, erakusketa bat, hitzaldi bi eta elkartasun jaialdi bat antolatu dituzte otsailaren zehar

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Arrano taberna eta Artatse elkarte "libre eta bizirik" nahi dituztelako, Bizirik izeneko egitaraua antolatu dute otsailerako. Herriko tabernen auziaren bueltan antolatu dituzte ekintzok, aferaren bueltako azken ordukorik ez badago ere: "Lokalak ixteko agindua eman zuten, baina orain gelditu dago; komeni zaienean aktibatuko dute".

Erakusketa, hitzaldiak eta jaialdia

Lau ekintza nagusi antolatu dituzte: otsailaren 11tik aurrera, Bizirik izeneko erakusketa jarriko dute, herriko "hainbat artistak" egindako marrazkiekin; otsailaren 17an, Arranoren bueltan bizitakoak kontatuko dituzte Pello Belastegi, Ana Sebal, Ane Jauregi eta Oihan Ibarra herritarrek; otsailaren 24an, legez kanporatzeen garaiak eta Herrikoen kontrako operazioak izango dituzte hizpide Txema Matanzas abokatuak eta Aitziber Plazaola preso ohi ber-

gararrak; eta, bukatzeko, otsailaren 27an, elkartasun jaialdia izango da udal pilotalekuan. Jaialdi horretan, besteak beste, Talka eta Indai musika taldeek eta Moises Aspiazu dantza taldeko dantzariak hartuko dute parte. Erakusketa Arrano tabernan jarriko dute eta bi hitzaldiak ere bertan izango dira: "Hitzaldiak 18:00 bueltan izango dira, seguruenik, baina aldatetako egon daitezke; otsailaren 27ko frontoiko jaialdia ere 17:00 aldera hasiko da, baina egoeraren arabera hartuko dugu azken erabakia".

40 urte lehen lokala ireki zenetik 2021ean, 40 urte beteko dira Arrano zaharreko lokala zabaldu zela

EKINTZAK PANDEMIA BETEAN ANTOLATU ARREN, ESPERO DUTE BERGARARREK ONDO ERANTZUNGO DUTELA

Irizar kalean, Simon Arrieta plazatik gora, eta 30 urte Arrano taberna eta Artatse elkarte zabaldu zirela egun dauden lekuan. "Sekulako ilusioa zegoen Bergara ezkerretik eta abertzaletasunetik eraikitzeko. Urteak pasatu ahala, gure akatsekin eta bertuteekin, bergarar askok sentitzen dute eurak ere Arrano eta Artatseren parte direla. Makina bat jende pasatu da; izan lagunarteko bazkari, kontzertu, parranda, hitzaldi edo barra osteko hizketaldietan", adierazi dute.

Pandemia betean antolatu dute egitaraua, baina espero dute bergararrek ondo erantzunango dutela: "Orain arte erakutsitakoagatik, bergararren konfiantza osoa daukagu". Otsailerako ekintzez gain, aurreikusten dute gehiago antolatzea: "Ez dugu onartuko Madrilgo bulegoetan eta auzitegiaren gure etorkizuna erabakitzea; sententzia faxista honen aurka egiteko ekimen ugari egingo ditugu urte honetan zehar".

Bizilagunen atari-bilerak udal eraikinetan egiteko aukera dago

Sei eraikin daude erabilgarri; eskaera idatziz eta bilera data baino hamabost egun lehenago egin beharra dago

J.B. BERGARA

COVID-19ak eragindako larrialdi egoerak iraun bitartean, Udalaren jabetzako instalazioetan atari-bilerak egiteko aukera dago. Eskaera idatziz eta gutxienez bilera-data baino hamabost egun lehenago egin beharko dute horretarako beharra duten bizilagunek, eta bertan harremantarako telefonoa eta helbide elektronikoa adieraziko dira. Sei aukera eskaini ditu Udalak: Irizar jauregiko Euskaldunberri aretorako gehienezko edukiera 21 laguneko da (943 77 91 00);

UNEDerako edukiera, 30 laguneko (943 76 90 33); Zabalotegi-ko Txiki-Txokoan, gela bakoitzeko hamalau laguneko (943 77 91 06); Martoko Txiki Txokoan, gela bakoitzeko hamabi laguneko edukiera (943 77 91 06); Agorrosinen erabilgarri dauden bi aretoetan, batean 30 laguneko edukiera eta bestean sei laguneko (943 77 70 95); eta Labe-garietako kiroldegi berrituko aretoan gehienezko edukiera hamabi laguneko da, betiere kiroldegia zabalik badago eta lokala erabilgarri (943 76 56 41).

OHARRAK

Udaleko monitore zaharrak doan lortu ahal dira

2021erako informatika-ekipoak berriro direnean kendu behar izan dituzten monitoreak doan emango ditu Udalak. Otsailaren 25era arte eskatu daitezke, BAZen edota www.bergara.eus-en.

Ekida kultura ekimenaren aurkezpena

Kulturari eta arteari "ikuspuntua sozialista" emateko ekimena da; gaur aurkeztuko dute, Zubietako eskola zaharrean (18:00).

Kartzela zaharra: liburu bat eta bertso trama

Otsailaren 19an *Naparra kasu irekia* liburu aurkeztuko du Jon Alonso idazleak, 19:00etan. Edukiera 35 laguneko izango da eta mezua bidali beharra dago kasuirekia@gmail.com helbidera. Hilaren 21ean, berriz, bertso trama izango dute, 18:00etan: Jokin Bergarak, Eli Pagolak, Amaia Iturriotzek eta Maider Arregik hartuko dute parte; sarrerak 17:00etan salduko dira, hiru eurotan.

Gipuzkoa mailako pilota partiduak domekan

Bi partidu jokatu dira, 10:30ean: kadeteetako bigarren mailaren barruan, Bergarako Alberdi eta Lazpiur Zumaiaiko bikote baten aurka lehiatuko dira. Bigarren lehia, lau eta erdiko txapelketan, Bergara eta Zumaia izango dira nor baino nor gehiago.

Udal langile batzuek jarraipena eman diote Hikaldiari

2020ko Euskaraldiaren barruan esperientzia pilotu moduan abiatu zuten Hikaldia, hitanoa praktikatzeko, eta udal langile batzuek ekimenari jarraipena eman diote. 27 langilek eman dute izena: "Taldea naturala izateak lagundu egiten du konfiantza giroa sortzen, eta, hortaz, errazagoa da askatzea. Egoera bitxiak eta berriak bizitzen ari gara".

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

EHUko pintura ikasleen lanak, gaurtik ikusgai

'Sopas & Sober' izeneko erakusketa gaurtik otsailaren 28ra arte egongo da ikusgai Aroztegi aretoan. Pintura Masterreko ikasleak dira lanen egileak, eta aitortu dute obrak elkarren artean "ezberdinak diren" arren, "elkarri lotuta" daudela

Jone Olabarria BERGARA

Hamasei artistaren lanak batuko ditu Aroztegi aretoak gaurtik aurrera gozagai egongo den *Sopas & Sober* erakusketan. Euskal Herriko Unibertsitatean Pintura Masterra ikasten dabilzan artistak dira egileak, eta, aitortu dutenez, lanak "oso anitzak" dira, bai estilo eta baita teknika aldetik ere: "Toki ezberdinetatik gatoz, eta ezberdinak dira baita gutako bakoitzak aurrez egindako ikasketak ere, baina topaketa-puntu berean batu gara". Ikasurte honetan jarriko duten bigarren erakusketa da Aroztegiarekin ikasleentzat.

Erakusketaren izena bera- *Sopas & Sober* - "nahaste" horretatik sortu dela aitortu du erakusketako komisario Madalen Pinuagak: "Gure berezitasunekin, denok nahi dugu erakusketa horretan egon. Gerora konturatu ginen zelako anitza den erakusketa, eta, hala ere, artista bakoitzak bere papera duela horren baitan".

Sentimenduetatik sortua

Komisarioak azaldu duenez, mas-terretik kudeatu dute erakusketak, eta, ikasurtea hasi zenetik sei hilabete pasata, azaldu dute bertan landutako hainbat alor egongo direla ikusgai: "Batasuna, dekostrukzioa eta konstrukzioa, solapamendua, hurrenkera, aurkikuntza, kontrola, probokazioa eta oroitzapenak".

Bearten beka, hilaren 28ra arte

Arte plastikoetan lan egiteko urtebeterako espazioa doan erabiltzeko aukera ematen du beka. Herrian bizitzea, erroldan alta emanda egotea eta 18-30 urte izatea dira baldintzak. Hilaren 28ra arte eman daiteke izena: beart.elkarte@gmail.com.

Nahiz eta erakutsitako obren artean "aniztasuna" egon eta obra horien ezaugarriak ezberdinak izan, diote "argi" dagoela espazio bera baino "askoz gehiago" partekatzen dutela: "Horretaz gain, elkarren artean lotzen dira guztiok ditugun arte-nozio ezberdinak eta sortze-prozesuetarako egiten ditugun bilaketak. Jakin-min edo kezka horien eraginez, gure obrak elkarri lotuta daude".

Guztira, 16 artista

Komisarioak azaldu duenez, behin erakusketa muntatuta, hainbat lan kanpoan geratu behar izan dira. Honako artista hauek erakutsiko dute euren lana: Itxaso Urrutikoetxea, Sara Piñero, Alex Casey, Almudena Maseso, Katrina Biurrun, Sara Ayesa, Edurne Naberan, Jon Amorrortu, Intza Arakistain, Maialen Gallastegi, Maddalen Pinuaga, Fernando Couto, Amaia Ibarbia, Felipe Leal, Guillermo Lopez eta Marcos Rico.



Aitzol Iturbe eta Mirene Begiristain, martitzenean, Seminarixoa. JOSU BILBAO

Trantsizio sozioekologikoa ardatz, hitzaldi "arrakastatsuak"

Laboratorium museoak eta Udalak antolatuta, sortako lau hitzaldietatik hirugarrena egin zuten martitzenean

J.O. BERGARA

Elikadura burujabetzarako bidea nola egin izenpean eskaini zuten martitzenean hitzaldia Seminarixoa Mirene Begiristainek eta Aitzol Iturbek. Euskal Herriko Unibertsitatean Ekonomia doktorea eta irakaslea da Begiristain. Iturbe, ordea, ikasketaz fisikaria den arren, nekazaritza ekologikoan dihardu, 2015. urteaz geroztik, Antzuolako Iralatorre baserrian.

Nekazaritza eredu "ezberdinak" azaldu zituen Iturbe antzuolarrak: "Hemengo erakundeetatik eredu agroindustrialak bultzatu

da, eta horrek dituen ondorioak aztertu ditugu". Ildo beretik Begiristain ere: "Herri batean elikadura burujabetza eta elikadura estrategia bat lantzeko hainbat gako zehaztu ditugu, lurrari lotuta, banaketa ereduari, dietari lotuta..."

Balorazio "positiboa"

Laboratorium museoeko teknikari Rosa Errazkinek azaldu du hitzaldiek "interesa piztu" dutela: "Orain arte egindakoetara 70 lagundik gora etorri dira. Egoera kontuan hartuta, ez da gutxi, pozik gaude".

Neurri bereziekin, haurrentzat eskaintza prest ez-Aratusteetan

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen biharko emanaldirako segurtasun jarraibideak zehaztu dituzte, frontoian

J.O. BERGARA

Otsailaren 13an egingo den Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldirako jarraibideak jakinarazi ditu Udalak. Garaiz hurbiltzeko eskatu dute, sarrean jende pilaketak ekiditeko. Ateak 17:15ean irekiko dituzte. Horretaz gain, pilotalekura sartzeko, eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu beharko dira, eta hanka azpiak alfonbra-desinfektatzailearekin.

Behin barruan egonda, pilotalekuan derrigorrezkoa izango da maskara jantzita edukitzea.

6 urtetik beherako umeei ere gomendatzen zaie. Emanaldiaren bukaeran ezingo da inor kantxara irten, eta irteera mailakatu egingo da. Zehaztu dutenez, ikuskizunak irauten duen denbora guztian sarrera nagusia zabalik mantenduko da, pilotalekuko airea berritu dadin.

Zapatuko emanaldiaz gain, Kiliklon taldearen *Inauteriak bizi* ikuskizuna ikusgai izango da Seminarixoa otsailaren 16an, 18:00etan. Sarrekerak lau eurotan eskura daitezke, *seminarixoa.eus* atarian.



Erakusketa izango diren lanetako batzuen egileak, Aroztegi aretoan, erakusketaren muntaia lanetan. MADDALEN PINUAGA

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarra 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea /
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarra 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loranendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11



Gazte bat organikoaren ontzia jasotzen. MAIDER ARREGI

Birziklatze-tasa handia lortzeko bidea irauli zuen atez atekoak orain 10 urte

Hondakinen kudeaketaren, bilketaren eta tratamenduaren auzia puri-purian egon zen 2010eko hamarkada hasieran. Antzuola izan zen Debagoieneko lehen herria atez ateko bilketa eredu ezartzen, eta martxoaren 7an beteko ditu hamar urte sistemak

Maidar Arregi ANTZUOLA

2010eko hamarkada hasieran, hondakinen kudeaketa arazo bilakatu zela jakin bazekien gizarteak, eta baita ordezkari politikoak ere. Puri-purian egon zen gaia izan zen hondakinen kudeaketarena, bilketarena eta tratamenduarena. Debagoieneko herrietan ez ezik, baita Gipuzkoan ere: atez atekoa edo edukiontzia; erraustegia, bai ala ez. Guztiek, ordea, argi zuten birziklatze-tasa bikoiztu egin gura zutela. "Orduan, gure etxetan eta lurraldean hondakinen kudeaketari zegokionez arazo bat geneukan eta ez ginen oso kontziente. Sasoi hartan, horren inguruko kontzientzia hartu genuen eta irtenbidea bilatu nahian gure aletxoak jarri genuen", gogorarazi du 2007-2011 agintaldian alkate izan zen EAE-ANVko Pedro Iturbek.

Usurbil izan zen lehen herria atez ateko hondakinen bilketa

sistema Gipuzkoan ezartzen. Hango esperientziak baliatuta, 2011ko martxoaren 7an, Antzuolan ezarri zuten atez atekoa. Gipuzkoako laugarren herria izan zen, Usurbilen, Hernaniren eta Oiartzunen ondoren.

Orduko Debagoieneko Mankomunitateak eskualde osoan atez ateko sistema ezartzearen aldeko apustua egin zuen, eta Debagoieneko herri guztietan atez atekoa jartzeko ezarpen-plana egin zuen. Modu "mailakatu ezartzea" erabaki zuen, eta Antzuolan hastea proposatu, "herriaren tamaina eta ezarpenarako izan zitezkeen abantailak" kontuan hartuta. Baita erakutsi zuten "aldekotasunagatik" ere. Hala, 2010eko uztailaren 7an, Antzuolako osoko bilkurak ontzat eman zuen Mankomunitatearen proposamena, aldeko zazpi botorekin: EAE-ANVren bostak eta Aralar-Zutik-Ezker Batua koalizioaren biak. EAJko

hiru zinegotzitik bi joan ziren, eta abstenitu egin ziren; PSE-EEko zinegotzi bakarra, berriz, ez zen joan.

Jose Mari Iturbe zen agintaldiko Ingurumen eta Nekazaritza zinegotzia eta atez ateko mahai batzordeko kidea: "Behin erabaki politikoa hartuta, gure lana

Antzuolan atez ateko sistema antolatzea izan zen. Makina bat bilera egin genuen herritarrekin euren parte hartzea sustatzeko. Modu horretan, iritziak jaso eta sistema ezartzeko urratsak egin genituen. Hasieran, kezka handia zegoen; 60 lagun inguruko hainbat bilera egin genituen. Bertan, azaldu genuen nola sailkatu behar ziren hondakinak. Zenbaitek desadostasuna erakutsi zuten, egiteko zailtasunak ikusten zituelako. Hala ere, zailtasunak zailtasun, gaur egungo datuak ikustea besterik ez dago. Oro har, herritarrek ondo erantzun zioten, eta diote, atez ateko sistemari".

%28ko tasatik %87,9kora

2010ean, Debagoienean gutxien birziklatzen zuen herria Antzuola zen -%28 inguru-. Atez atekoa ezarri eta urtebetera, %87,92ko tasa lortu zuen. 2013an, berriz, 10 urtetako daturik onena eskuratu zuen: %89,99. "Uste genuen ondo genbiltzala, baina datuek ez zioten hori. Aldaketa txiki batzuekin, gehien birziklatzera igaro ginen. Erraz egokitu ginen; hasieran, zalantza eta kezka ere bazen", dio Pedro Iturbek.

Mankomunitatearen datuen arabera, 2019an, antzuolar bakoitzak 337,45 kilo etxeko-hondakin sortu zituen -924,52 gramo egunean-. Organikoari dagokionez, etxeko eta auzo-konposta barne, 107,25 kilo sortu zituen -293,84 gramo egunean-. Organikoaren kopuruari inausketa eta lorezaintzako hondakinak gehituz gero, antzuolar bakoitzak 119,63 kilo sortu zituen -327,75 gramo egunean-. Errefusari dagokionez, berriz, bakoitzak 65,03 kilo -178,16 gramo egunean-.

2019an, Debagoienean, 24.729 tona etxeko-hondakin bildu zen

horietatik 5.366 tona, errefus zabortegira bidali zen.

2019ko birziklatze tasei dagokionez, Gipuzkoan, %59,26 birziklatu zen; Antzuolan, %79,99; Oñatin, %78,48; Arrasaten, %75,91 eta Bergaran, %80,75.

Azken urteetan, behera

Gorabeherak izan ditu hamar urteotan atez atekoak, eta behe-rakada igarri dutela adierazi du Beñardo Kortabarria alkateak. "Egia da azken urteetan pixka bat jaitsi egin dela eta lehen hobeto bereizten zela. Erraustegia egitearekin kointziditzen du datuen behe-rakada horrek. Erraustegiak halako mezu bat helarazten die herritarrei, esanez: 'Zuek bildu nahi duzuen moduan, guk erreko dugu'. Hori ez dator bat uste dugunarekin. Ingurumena zaindu egin behar dela uste dugu. Behar eta erronka horretan, hondakin gutxi sortu eta ahalik eta egokien bereizi behar dugu. Eta birziklatzeko aukera duten hondakinak birziklatu".

Nola hobetu daiteke?

Orain dela bi urte, *Garbi jokatu* lelopean kanpaina abiatu zuen Udalak. "Kanpainaren bitartez adierazi gura genuen atez atekoarekin zintzo jokatu behar dela. Herritarren gehiengoak egindako hautua da eta errespertatu egin behar da; onurak denondako dira eta. Esaterako, Mankomunitateak abiatu berri duen ontzi arinak ondo birziklatzeko kanpaina dugu orain esku artean. Ontzi arinetan inpropio asko dago; hau da, egon behar ez diren gauza asko dago. Ondorioz, ez dago saltzerik, eta horrek Mankomunitateari 150.000 euro inguruko galera dakarkio. Ondo bilduz

Ontzi arinak ondo bereizten ikasteko

Debagoieneko Mankomunitatearen *Ondo bereiztua, asko aurreztua* kanpainaren baitako kontzientziazio ekimenari Antzuolan eman diote hasiera, Arazi elkarteko kideek dinamizatuta. Haurrentzako hainbat tailer egiteaz gain, informazio-puntu bat ere jarri zuten zapatuan. Helburua da ontzi arinak ondo sailkatzen ikastea.



Haurrak plastikoa sailkatzen. ENENKO AZURMENDI

gero, 150.000 euro horiek fakturatik kendu egingo genituzke, eta, gainera, ingurumena zaintzen eta errespetatzen ariko ginateke", argitu du alkateak. "Herriarrei gogorarazi egin behar diegu konpromiso hori. Alde onak azaldu eta agerian jarri behar dira. Pandemia honek erakutsi digu bizi garen moduan ezin dugula jarraitu. Gizakiak egindakoaren eraginez munduak sufritu egiten du, eta, gure ingurua guk ez badugu zaintzen, ez du inork zainduko. Hori azaleratzeko kanpaina egin, eta jendeari beharrezko azalpenak eta informazioa eman behar diogu, eurengana gerturatzuz beharrezkoa den une guztietan".

Ekonomikoki defizitariora?

Atez atekoaren bilketa kostua handiagoa da. Horregatik, oposizioak defizitariora dela leporatu ohi dio Gobernuari, eta bestelako hondakinen kudeaketa ereduak bilatzeko aldarrikapena egiten du. "Udalak zerbitzuetatik ez du dirurik atera behar. Beraz, zaborra edo hondakinak biltzeak kostua dauka. Udalak herritarrei kostu hori baino gutxiago kobratzen die, baita edukiontzi handiak izanez gero ere; berdina izango litzateke, kostu horren zatia Udalak bere gain hartuko lukeelako. Logikoa da Udalak dirurik ez galtzea eta ezta irabaztea. Baina egia da horretara gerturatzen ari garela. Atez atekoa ez da, berez, defizitariora; izan ere, kale garbitzea defizitariora da, baita argindar publikoa edukitzea... Jendeak zergak ordaintzen ditu eta Udalak zerbitzuak ematen ditu horren truke", argudiatu du alkateak.

Herritarren ahotsa

Aldeko jarrera erakutsi dutenen artean, gustura daudela eta ondo moldatzen direla diote. "Norberaren ardura da ondo sailkatzea. Bosgarren edukiontzi jarrita, batzuek ez lukete errespetatutako", dio Rosa Yarzak.

Bosgarren edukiontziak eskaintzen duen erosotasuna gura dute beste batzuek. "Hasieran, oso ondo moldatzen nintzen. Bizimodua aldatu egin da, eta, nire kasuan, lan-ordutegia dela eta zaila egiten zait atez atekoaren ordutegira moldatzea, eta zaborra balkoian utzi behar izaten dut astebetetz. Bosgarren

"Sistematik eraginkorra"



PEDRO ITURBE
ANTZUOLAKO
ALKATE OHIA

"Birziklapen datuak txarrak ziren eta hasieratik argi genuen aldatu egin behar genuela hondakin sistema. Katalunian eta Italian birziklatze maila handia zuten sistemak bazirela azaldu ziguten Usurbilen. Bertatik bertara ze arazo eta ze aukera zeuden baloratzeke, Katalunian eta Mallorcan izan zen Antzuolako udal ordezkari bat. Hamar urteren ostean, orduko zalantzak eta kezak argitu egin dira, eta herritarrek ondo kudeatzen dute sistema; gehiengoa gustura dago. Atez atekoa defizitariora dela diotenei, esango nieke birziklatzeko sistemaren ziklo osoa kontuan hartzeko. Ez da garestiagoko. Hainbat txosten tekniko eta akademiko daude eginak. Bilketa bere horretan bai da garestiagoko, baina, ziklo osoa kontuan hartuta, herritarrendako hobeagoa da atez atekoa".

edukiontziaren proposagoko da niretzako", adierazi du Mikel Aguerok.

Sistemak izan duen bilakaera

Debagoieneko lehenengo herria izan zen Antzuola 2007-2011 agintaldiaren hondarrean atez atekoa ezartzen. Antzuolaren ostean etorri ziren Debagoieneko beste herri batzuk, 2011-2015 agintaldian. Bilduk lortu zuen garaipea bai Gipuzkoako Foru Aldundian, eta baita ere Debagoienean. Oñatin hasi ziren atez atekoa martxan jartzen eta,

**337,45 KILO HONDAKIN
BATU ZIREN 2019AN
ANTZUOLAN; EGUNEAN
923,52 GRAMO SORTZEN
DITU HERRITAR BATEK**

"Edukiontziaren, eroasoagoa"



**BASILIO
ORMAZABAL**
EAJ

"Antzuolan jendeak hartu du birziklatzeko kontzientzia, eta hori da egiten duen balorazio positiboa. Duela hamar urte, ez zen askorik birziklatzen, eta egungo birziklatze datua %80 ingurukoa da. Baina bilketa sistema oso garestia da. 40 gune ditugu eta kamioia hiru orduz aritzen da bueltaka. Ekonomikoki garestiagoko da. Bosgarren edukiontzi eroasoagoa eta merkeagoa da. Hamabi bat edukiontzi jarrita, eta norberak nahi duenean hondakinak ateraz gero, askoz ere merkeagoa izango litzateke. Auzo-konpostari dagokionez, kantitate txikia batzen da urtean -20.000 bat kilo-; udal langileak behar dira lan horretan, ez dauka zentzurik, eta garesti irteten da. Atez atekoa EAE-ANVren inposizioa izan zen. Ez zioten herriari galdetu; damutuko zirela uste dut; faktura pasa die".

pixkanaka, bailara osora hedatu zen hondakin bilketa sistema: Bergarara, Aretxabaletara eta Eskoriatzara. Elgetan eta Arrasaten adostasuna lortu zuten eta bosgarren edukiontzi jarri zuten martxan.

Elgetan herri kontsulta egin zuten 2014an eta bosgarren edukiontzi nagusitu zen. Arrasaten Hondakin Mahaia eratu zuten eta, adostasunez, edukiontzi marroia ezarri zen. Aramaion eta Gatzagan ez dago atez atekorik, ezta bosgarren edukiontzirik; norberak etxean egiten du auzo-konposta edo konpost-gunera eramaten du organikoa.

2015-2019 agintaldian, EAJK bailarako lau herritan irabazi zuen, eta horietako hirutan -Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatza- edukiontzien sistema ezarri zen, herritarrei galdeketa eginda.

Pandemiari egokitutako Aratusteak antolatuta dituzte

Ez da ohiko Aratuste-festarik izango aurten; egoerara egokitutako egitaraua antolatu dute Udalak eta eskolak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ez dira ibiliko Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea bere horretan festaz gozatzen aurten; ezta ere herritarrek Aratuste-dantzak egiten eta kuadrillak moztarrotu lehiaketan parte hartzen. Azken unera arte zer egin aztertzen ibili da Oinarin taldea, eta, baimen guztiak lortuta, azkenean, kalejira egingo dute. "Nahi bai, baina egoerak ez du aukera askorik eskaintzen. Baimena lortuta, eta egoera ikusita, kalejira egingo dugu, 10:00etan hasita", dio Oinarinek.

Herri Eskolak ere pandemia-ara egokitutako ekintza antolatu du: "Aratuste-festa gurasoen eta ikasleen arteko festa handia izaten da; aurten, ikasleak izango dira protagonista. Arratsaldean moztarrotuta etorriko dira eta burbuletan batuko gara, osasun neurriak betez".



Potx eta Lotx pailazoak. GOIENA

Potx eta Lotx

Etxean azken ikuskizunarekin etorriko dira bihar Antzuolara Potx eta Lotx pailazo oñatiarrak. Egoera honetan umorea oso garrantzitsua dela erakutsiko dute -17:00etan, pilotalekuan-. Sarreak salgai daude liburutegian.

Baso-lanak trenbidean

Kaxeta eta Lizarraga bitartean trenbideko pasealekua itxita egongo da hiruzpalau astez, baso-lanen ondorioz. Astegunetan egongo da itxita, astelehenetik egubakoitzera. Asteburuetan, berriz, zabaldu egingo dute.

Bestalde, Udalak jakinarazi du Jauregiko tunela konpontzeko lanak bi aste barru hasiko dituela Diputazioak.



MAIDAR ARREGI

OHARRAK

Kabalkada

Otsailaren 20an, Aiherran 2019an egin zen kabalkada eskainiko dute Torresoroa aretoan. Doako sarrera da, baina aurrez erreserbatu behar dira: [Labur.eus/sarrerakantzuola](mailto:Labur.eus@sarrerakantzuola).

Zine emanaldia

Hilaren 27an, *The Florida Project* filma Torresoroan, 18:00etan, euskarazko azpititulekin. Sarrera aurrez erosi behar da.

Transexualitatea berbagai

Transexualitatea abiapuntu duen *La Veneno* telesailaren atal bat eskainiko du gazte txokoak bihar. Ondoren, solasaldia egingo dute. Izena eman behar da: idolazgatzetxokoa@gmail.com.

Alboratuta dagoen errituala indartu nahian

Eguaztenean, hogeit bat lagun elkartu ziren Goibeko Euskaltzaleen Elkarteak antolatuta Oier Araolaza antropologoak Espaloian egindako hitzaldian. Koko-batzea izan zuen hizpide eta hainbat gako eman zituen ospakizunaren berreskuratzea hasteko

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetan, gaur egun, alboratuta dago koko-batzea. Gaiarekin lotuta *Ahotsak.eus* egitasmoak Elgetan jasotako lau lekukotzarekin hasi eta amaitu zuen hitzaldia Araolazak. "Inauterien gako guztiak daude lekukotza horietan, Inauteri osoa: eske erronda, koko-jantzia, kantua, zarata eta pertsona desitxuraztea", esan zuen.

Azaldu zuen bi Inauteri eredu nagusi daudela: *disfrazaren* Inauteria eta moztaroen Inauteria. "Disfratzatea da beste itxura bat hartzea, baina identitatea galdu gabe. Ikusgarritasuna da helburua, eta ahalik eta ederren agertzea publiko baten aurrean. Hala, protagonista aktiboak eta ikusle pasiboak daude. Moztaroen Inauteria oso bestelakoa da. Bizitzeko Inauteria da eta guztiak dira aktiboak nahiz eta batzuk harreragileak izan eta besteak bisitariak. Gero, helburua da inork ez ezagutzea eta identita-



Oier Araolaza eibartarra hitzaldia egiten, eguaztenean. L.Z.L.

tea galtzeraino desitxuraztea. Anonimotasun hori oinarri-oinarrizkoa da. Askatu egiten gaitu gure irudi publikotik, eta aukera ematen digu egun batez nahi duguna izateko eta nahi dugun moduan jokatzeko".

Koko-batzearen osagaiak

Nazioarteko jaiak dira Inauteriak eta hainbat adibide deigarri eman zituen Araolazak hitzaldian. "Behin eta berriz errepikatzen den festa errituala da, eta gurean behin eta berriz

errepikatzen diren osagaiak ditu". Aipatu zituen jantzien nolokotasuna, eske errondaren funtzioa, parranda giroa, komunitatearen batura eta gazteen igarobide errituala helduen mundura.

Jantziei dagokienez, kokoa etxean dauden osagaiekin sortzen dela esan zuen. "Nahikoa dira lau trapu zahar", eta aipatu zituen pertsonaia eta osagai berezi batzuk: "Hartza, aurpegi beltzak, txuntxurroak edo kapela konikoak, joareak edo zintzarriak, lorehun kapelak...".

Azpitarratu zuen, baita ere, kokoez baserritarrengana urtero egiten duten bisitaren funtzioa. "Komunitatea lotzen du eta gazteei eskaintzen die aukera helduen komunitatean lehenengo urratsak egiteko". Gehiago esan zuen Araolazak. Azaldu zuen gazteak direla benetako protagonistak. "Plana da parranda egitea baserriz baserri jasotakoarekin, eta ez da arinkeria bat. Baserriz baserriko ibilbide horretan etorkizunean helduen komunitateko kide oso izango diren gazte horiek ikasten dute herriaren lurraldetasuna, mugak, bakoitza non bizi den, ze bide dauden toki batetik bestera joateko, etxe bakoitza non dagoen eta nor bizi den bertan... Gaztea, azken finean, etxe guztietatik pasatzen da urtean behin, eta horrek ezagutza ematen dio bera parte izango den komunitate horren lurraldetasunaren inguruan".

2022ra begirako egitasmoa

Goibeko elkarteari gustatuko litzaioke urtebeteko epean gaia landu eta koko-batzearekin hasia 2022ko Inauterietan. "Honekin hasi ginenean harrigarria izan zen ikustea nola Elgetako jende batek argi eta garbi esaten zigun koko-batzea egiten zela herrian; tartean, amek. Beraz, ez dago hain urrun, baina guk hortik ez dugu jan ezer!", azaldu zuen Goibeko elkartearen kide Iban Arantzabalek.

Zertan eta nondik hasi erabakitze dagoela esan zuen. "Kontua ez da lehenago egiten zutena egitea. Gutxi asko, etxeko trapu zaharrak ateratzera animatzen bada jendea nahikoa da. Denboraz gabilta. Ziurrenik, irailean hasiko gara berriz honenkin zarata ateratzen".

Ondo baloratu zuen hogeit bat lagun elkartu izana hasierako hitzaldian, eta bi erronka azpitarratu zituen: "Komunitatea eta herrigintza adin eta pentsaera askotariko jendeak batera egiteko festa egun bat, eta 16-22 urte bitarteko jendea erakartzea. Badakigu gustatu egingo zaiela, baina ez dugu oso argi zelan erakarri".

GOIBEKOK IRAILEAN HASI NAHIKO LUKE EGITASMOAREN INGURUAN PAUSO BERRIAK EMATEN

Aratusteak herri eskolan eta haur antzerkia Espaloian, gaur

'Pirata Garrapataren abenturak' ikuskizunak bi emanaldi izango ditu, eta txandaka sartuko dira umeak

L.Z.L. ELGETA

Bestelakoak izango dira Aratusteak aurten. Pandemia egoera dela-eta eskolako neska-mutikoei ikastetxe barruan eta bizikidetzan talde iraunkorrek mantenduz egingo dute moztaroen festa. Urteroko kalejira, beraz, bertan behera gelditu da. "Aurten ezin ditugu familiak gonbidatu. Pena handia dugu, baina horrela beharko du", azaldu dute zuzendaritza. Maala guraso elkartean erabaki dute txokolatzeko irabiatua eta San Blas opila bana banatzea neska-mutikoei esko-

latik ateratzerakoan. Ondoren, *Pirata Garrapataren abenturak* antzezlan izango da, Espaloian. "Ez da sarrera libre izango", azaldu dute Udaletik eta Guraso elkartetik. Bi saio izango dira: 16:30ean HH2-LH1 taldeetako umeendako eta 18:00etan LH2-LH6-koendako. Puntualtasuna eskatzen dute antolatzaileek. "Bi saioekin eskolako ume dandako sarrera egotea bermatzen dugu. Gurasoak ezingo dira sartu. Guraso elkarteko eta Udaleko kideak egongo gara umeekin".

Negu hotzari aurre egiteko, 'Bibliobero', liburutegian

Literatura erotikoen interesgunea, menarkiari buruzko hitzaldia eta ipuin erotikoen saio berezia, otsailan

L.Z.L. ELGETA

Aurten ere literatura erotikoa eta sexualitatea abiapuntu hartuta hainbat proposamen egin ditu liburutegiak. Otsaila amaitu bitartean prest da *Bibliobero* interesgunea. Literatura erotikoa eta sexualitateari buruzko liburuak daude bertan ikusgai.

Otsailaren 19an, berriz, menarkiari buruzko hitzaldia egingo du Enara I. Dominguezek, 17:30ean. Gaztetxoei menarkia eta hilerokoa ikuspuntu zabalgoko batez bizitzen laguntzeko nondik norakoez arituko da,

Ziklikoki bizitzen proiektuaren oinarriak ardatz hartuta.

Ipuin erotikoen

Ipuin erotikoen ere izango dute tartea aurtengo *Bibliobero* egitarauan. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalari usurbildararen eskutik etorriko dira; izan ere, *Erotik, erotik, erotik*, berotik izenburuean saioa egingo du Elgetan, hilaren 26an.

Edukiera muga dagoenez, aurrez irekiko dute ekintzetan parte hartzeko izena emateko aukera.

OHARRAK

Podologoa

Erretiratuendako hileroko zerbitzua astelehenean, hilaren 15ean, izango da. Txanda hartzeko, deitu 652 74 82 33 telefonora.

Hitez Pitz berbalagun

Irakurketa taldea eguaztenean elkartuko da, 19:00etan. Talde dinamika berria da aurten. Astean behin elkartuko da taldea aurrerantz.

Udal zergak

Elgetako Udalak hainbat hobari eta salbuespen onartuta ditu ondasun higiezin eta ibilgailuen zergaren inguruan. Eskerak egiteko epea zabalik da martxoaren 5era arte.



Kontsumo taldekoak saskiak jasotzen; Iñigo Gabilondo ekoizlea, ezkerretik hasita, belauniko dagoen lehenengoa. LARRAITZ ZEBERIO

Urtebete, bertako eta garaiko produktuen saskiak jasotzen

Elgetako kontsumo taldeak urtebete bete berri du. Astero-astero eskaerak egiten dizkiote taldea osatzen dutenek Iñigo Gabilondo ekoizleari, eta astelehenetan batzen dituzte saskiak taldekideek. Horrekin batera, gazta eta ogi ekologikoak jaso ditzakete

Imanol Beloki ELGETA

Urtebete bete berri ditu Elgetako kontsumo taldeak. Zenbait saiakeraren ondoren, azken hau egonkortu egin da, eta, erabiltzaile kopuru mugara iritsita, 25 lagunera, arrakastatsua izaten ari da egitasmoa. Erabiltzaileak eta ekoizleak pozik daude, eta, bertako, kalitatezko eta elikagai ekologikoaren aldeko apustua eginda, ez dute aldatu nahi.

"Bergarako Ziarreta baserriko Iñigo Gabilondo baserritarrarekin egin genuen harremana, eta bera da ortuko produktuez bertako saskiak astelehenero ekartzen dizkiguna. 19:00etan etortzen da, eta ordu horretan otarra hartu ezin duenak Buztin-gelan, Farmazia alboko lokalean, uzten ditu saskiak, norberak gura duenean jaso dezan. Hasieran, dozena bat lagun hasi

ginen, baina, gaur-gaurkoz, 25 familiarentzako saskiak ekartzen ditu", adierazi du Ibai Larrañagak, Elgetako Udaleko Ingurumen zinegotziak.

25 erabiltzaileekin, "ondo"

Iñigo Gabilondo bergararrak ezarritako 25 erabiltzailearen mugara iritsi dira Elgetako kontsumo taldean, eta, urtebete pasata, "gustura" ari da: "Egitasmoa hasi zenean, Elgetako Udaletik bideratuta, 15 laguneko taldea irten zen, eta hilabete batzuetara muga ezarri nuen, 25 lagunekoa. Muga horretara

IÑIGO GABILONDO EKOIZLEAK ASTELEHENERO ERAMATEN DIZKIE SASKIAK TALDEKIDEEI

iritsi gara, eta, erabiltzaileek urtebeteko iraunkortasuna bete behar dutenez, ondo ari naiz; bestela, ez da-eta errentagarria. Gainera, komunikazio zuzena dugu, eta, ni pozik nagoen moduan, beraiek ere gustura dau-



DANI GILLEGI
KONTSUMO TALDEKO KIDEA

"Taldea sortu zenetik naiz erabiltzailea. Une batzuetan produktu gehiago izaten dira beste batzuetan baino, baina oso pozik nago".



OLATZ PEREZ
KONTSUMO TALDEKO KIDEA

"Egitasmoa hasi eta hilabetera edo sartu nintzen taldera. Sumatzen da kalitatea, 0 kilometrokoa... Askok eskertzen dut. Oso erraza da".



SANTI DOSUNA
KONTSUMO TALDEKO KIDEA

"Produktuekin oso pozik gaude. Ortua izan dut, eta, ekologikoa ateratzea zaila izan arren, nahiago ditugu produktu naturalak besteak baino".


Harrera ona izaten duzu Elgetan?



MONIKA IRAZOLA
OKINA

"Ogia egiteko irin ekologikoa erabiltzen dut"

"Aurretik, beste okin bat izan zen Elgetan. Hala, berak taldeari hitz egin zion nitaz, eta horrela hasi nintzen. Lehen, astean birritan eramaten nuen, baina orain, bi astean behin eramaten diet. Ogia egiteko irin ekologikoa erabiltzen dut, eta ama-legamia. Garia, gari haziduna, %100 zekalea eta espelta. Elgetarren erantzuna, bestalde, oso ona da. Oraindik ez ditut taldekide guztiak ezagutzen, lokalean uzten baitiet ogia, baina hainbatekin zuzenean egoteko aukera izaten dut".



AMAIA LASKURAIN
GAZTAGILEA, 'AMATXO GAZTAK'

"Azoka bat gehiago da; hobe, gazta utzi eta listo"

"Udaberrian hasi ginen gu Elgetara gaztak eramaten. Kontsumo taldean dezente dira, eta guk hamabost egunean behin eramaten ditugu eskatzen dizkiguten gaztak bertara. Gernikara joaten gara astelehenero, eta, Elgetatik pasata, bidean geldiunea egiten dugu. Hala, gazta ondua, urdina, zabalgarria, biguna, laktikoak, eta feta oliotan dira gure aukerak. Elgetakoa azoka bat gehiago da, hobe; izan ere, gazta utzi eta listo, ez da merkatuan moduan...".

dela esango nuke", adierazi du Gabilondok.

Otarre irekiak

Beste kontsumo talde batzuetan otarreak itxiak izaten dira; hau da, ekoizleak aukeratzen du aldi bakoitzean komeni zaionaren arabera, eta jendeak erosi egiten du. Elgetako kasuan, aldiz, taldekoek aukeratzen dute: "Produktuen zerrenda bidaltzen diet, eta nahi dutena aukeratzen dute. Hala, produktu kopuru minimo bat eskatu behar dute -bost-. Orain, negu-neguko produktue-

kin ari naiz: porruak, zerbak, letxugak...".

Ekologikoaren ziurtagiriarekin

Gabilondo 2018an hasi zen lehenengo sektorean, eta, ekoizle ekologiko moduan hastea erabakita, bi urteren ostean, orain jaso du ziurtagiria. "Edozein hazi ezin duzu erabili; ekoizle ekologiko batetik erosi behar dituzu. Landareak prozesu ekologikoa jarraitu behar du... Nire lan egiteko modua berdina da, baina ziurtagiria izatea beharrezkoa nuen".



Martitzenean berretsi zuten egitasmoa, eta sinadura ekitaldia egin Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariak. T.M.

Jarraipena izango du Hurretik egitasmoak

Duela bost urte kultur ondarearen transmisiorako hartutako konpromisoa berretsi dute astean Udalak eta herriko hiru ikastetxeek. Aurrerantzean ere transmisioa hezkuntza nahiz gizarte mailan lantzeko bitartekoak sortzen jarraituko dute

Oihana Elortza OÑATI

Udalak eta herriko hiru ikastetxeek Oñatiko kultur ondarearen transmisioa bermatzeko egitasmoaren inguruko akordioa berretsi eta sinatu dute astean. Akordio honekin, Hurretik proiektuarekiko hainbat konpromiso hartu dituzte Udalak eta ikastetxeek, hala nola sortutako material didaktikoa Herri Curriculum proiektuan eta ikasgaietako programazioan txertatzea eta gutxienez urtean behin bilduko den jarraipen batzorde bat osatzea.

Bi zati dituen egitasmoa

2015ean jarri zuten martxan Oñatin Hurretik egitasmoa, be-launaldi gazteek Oñatiri buruz jakin beharko luketena zehaztu, ezagutza horren transmisioa bermatzeko beharrezko bitartekoak sortu eta ezagutza hori bermatuz, berori birsortu, dinamizatu eta biziberritzeko helburuarekin. Orduan hasitakoarekin jarraitu gura dutela

berretsi dute alde biek astean egindako sinadura ekitaldian.

Proiektuak bi alor ditu: bate-tik, hezkuntzarekin lotutakoa. Zentzu horretan, Alaitz Kortabarria Hezkuntza zinegotziaren esanetan, ikastetxeetan aurretik ere euren kabuz egiten zuten lana sistematizatu egin da Hurretik egitasmoari esker. Beste alde batetik, ikastetxeetara bakarrik mugatu beharrean, herri osoarekin partekatu gura izan dute. "Herritarrek proiektura atxikituta, ondarearen transmisioari era kolektiboan helduta, egitasmoa aberatsagoa eta eman-korragoa izango da, denok garelako ondarearen jasotzaile eta transmititzaile", dio partaidetza zinegotzi Anik Zubizarretak.

LANDUTAKO UNITATE DIDAKTIKOAK 'HURRETIK.EUS' BLOGEAN IKUS DAITEZKE

Hezkuntza proiektuko parte

2018an, euskaltzaleen topaguneari esleitu zitzaion proiektua dinamizatzeko ardura. Lehen Hezkuntzako mailetan erabiltzeko hamasei unitate didaktiko sortu dituzte eta hurretik.eus blogean ikastetxe eta herritar guztien eskura daude. Topaguneko ordezkariaren esanetan, unitateak malguak eta sormenean oinarritutakoak dira.

Martitzenean egindako ekitaldian, udal ordezkariak ez ezik Topaguneko ere izan zen, eta baita hiru ikastetxeetakoak ere. Adierazi zuten aurrerantzean ere ikasle, guraso eta gainerako herritarren hitza eta oroimena erabiliko dituztela herriaren kultur eragile aktiboak izateko. Hezkuntza proiektuaren parte izango dela egitasmoa, egunerokotasuna aberastu gura dutela eta kanpotik datozen familiei Oñati nolakoa den eta nondik datorren erakusteko oso tresna aproposa eta erabilgarria dela Hurretik.

Zubillagan daude herriko industria pabiloi gehienak

134 industria eraikin zenbatu ditu Udalak herrian, eta horietatik 24 egun hutsik daudela egiaztatu

O.E. OÑATI

Herriko industria eraikinen diagnosis egin du Udalak, herritarrek eskatuta, eta azterketa horren arabera, 134 industria eraikin daude Oñatin: 110 okupatuta daude (%82) eta 24 hutsik (%18). Horietaz gain, eraiki gabe dauden beste 36 pabiloi ere identifikatu ditu Udalak, etorkizunera begira eraiki ahalko liratekeenak. Irakurketa metro karratuei begira eginez gero, ehuneko txikiagoa da: 349.959m² eraikietatik, 12.273 m² daude hutsik; %3,5, alegia.

Auzoka, Zubillagan daude pabiloi gehienak, 74. Horietako 30 eraiki gabe daude, gaur-gaurkoz, zortzi daude hutsik eta 36 okupatuta. Otadui zuhaiztia, Berezaio, Garibai, Goribar eta Leze-sarri datoz gero hurrenkeran. Enpresa handiak, 10.000m²-tik gorakoak, hamabi dira;ertainak, 1.000m² eta 10.000m² artekoak, 42; eta 1.000m² baino gutxiago hartzen dituztenak, 56.

Datuekin datu base bat egin dute, mapan kokatu eta edozein herritarrek kontsultatzeko moduan jarri.

Fluxu migratzaileari buruzko hitzaldia dago eguaztenean

Hamar gai, hamaika berba hitzaldi sortaren barruan, fluxu migratzaileek kultura anitzeko testuinguruan dakarten erronkei buruzko hitzaldia egongo da eguaztenean, hilak 17, Oñatiko EH Bilduk antolatuta. Oraingoan ere, gaiaren inguruko hiru aditu etorriko dira: Imanol Esnaola –Gaindegia–, Andoni Olariaga –Iratzar Fundazioa– eta Mag-

gie Mullen –EHU–. Migrazioak munduan duen pisuaz, zein fluxu duen, zergatiak eta ondorioak izango dira berba izango dituzten puntuak. Euskal Herrira begira, berriz, kultura anitzeko testuinguruan zein erronka dituen aztertuko dute.

Hitzaldia Santa Ana aretoan izango da, 18:30ean. Doan da, baina aurrez hartu behar da sarrera, edukiera mugatua kontrolatzeko. Sarrerak udal webgunean sartuta har daitezke: www.oñati.eus helbidean.

OHARRAK

Odol ateratzea

Gaur, egubakoitza, da otsaileko odol ateratzea. Aurrez deitu behar da zerbaki honetara: 943 00 78 84.

Manifestazioa bihar

Zapatuan, manifestazioa egingo dute herriko pentsiodunek, *Toledoko Itunari murrizketarik ez* lelopean. 12:00etan abiatuko dira, plazatik.

Zapiak egiteko deia

Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko V. ekintza otsailaren 20an ospatuko dute Euskal Herrian, eta domekan ekitaldi horretarako zapiak egingo dituzte, 19:00etan, gaztetxean.

Beinke enpresak egingo du turismoko ekintza plana

Lurdes Romano oñatiarra buru den Beinke enpresak egingo du turismo arloko ekintza plana. Diagnosis eginda dago, enpresa berak egin zuen, eta lan honekin, sektore horren plan estrategikoa osatuko dute. Turismoaren behar-rak, ahuleziak, indarguneak eta erronkak identifikatu zituzten diagnosi fasean, arlo horretan dihardutenekin berba egingo da; urriari aurkeztu zuten lan hori. Orain, orduan jasotakoa nola garatu definituko dute eta horrekin osatuko dute hurrengo urteetarako oinarri izango den turismoaren plan estrategikoa. Lana 13.700 eurotan egingo du Beinkek, BEZa kanpo, eta udarako bukatzea da asmoa.

"Euskal kultura haurrei heltzea da gura duguna"

MADDI MURGIONDO MOIUA HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

Teknologia berriez baliatuta, euskal kultura haurrengan sustatzeko lau lagunek abian jarri duten proiektua da 'HitzKeta.eus' ekimena, eta oñatiarra da horietako bat

Oihana Elortza OÑATI

Euskaraz dauden ipuinak, olerkiak eta abestiak biltzen ditu, batez ere, www.hitzketa.eus webguneak.

Zer da proiektu hau?

Hezkuntza, euskara eta, batez ere, euskal kulturaren transmisioa haurrengan sustatzeko asmoz egindako proiektua da.

Nola sortu duzue?

Duela hiru bat urte hasi ginen, lau sortzaileok Haur Hezkuntza graduako azken kurtsoan geundela. Eskatu ziguten proiektu bat sortzeko teknologiak erabilita. Graduako lau urteetan eta egindako praktiketan konturatu ginen haurrekin euskara eta euskal kultura lantzeko baliabideetan bazegoela hutsune bat. Eta hutsune hori betetzeko gogoz hasi ginen proiektu honekin.

Pandemian bizitza hartu duen proiektua izan da, gainera.

Bai; alde horretatik, esan dezaiegun guri ondo etorri zaigula pandemia.

Nola izan da hori?

Behin gradua amaituta, bakoitzak bere kontuekin hasi zen eta alboratuta gelditu zen proiektua. Udan, abuztuan, berriz elkartu eta hasi ginen pentsatzen aukera ona izan zitekeela berriz honenkin hastea, kontuan hartuta aste asko egon zirela umeak



Maddi Murgiondo Moiu. M.M.

eskolara joan barik eta askorendako eskola dela euskararekin kontaktua duten esparru bakarra. Eta proiektuari berriz heltzea erabaki genuen.

Norendako da aproposa tresna hau? Haur Hezkuntzako irakasleak gara laurok, eta, berez, 0 eta 6 urte arteko umeei zuzendutakoa da, baina edonorendako izan daiteke aproposa, guraso zein irakasle barne. Gainera, adin ezberdinetara moldatu daiteke hor jaso dugun materiala.

Materialaz gain, proposamen didaktikoak ere badatoz, ezta?

Proiektuaren aurkezpenaz gain, hiru bilduma nagusi ditu webguneak: olerkiak, ipuinak eta abestiak. Eta horien barruan datoz guk sartutako proposamen didaktikoak, material hori nola landu erakusteko.

Horrez gain, kanpotik datozen proposamenak jasotzeko aukera ere zabaldu duzue.

Hori da. Izan daitezke beste ikasle edo irakasleek egindako lanak, proiektuak, ikastetxeetako ipuin kontaketa... Euskal kultura haurrengana heltzeko balio duen edozein lanek balio du. Normalean, kanpotik heldutako proposamen berri bat eskegitzen dugu hilero.

Zuek zarete entzuten diren ipuin kontalariak?

Bai. Ipuinak hartu eta kontatu eta erakutsi egiten dizkiegu umei, geure ahotsarekin.

Zer dagoen, gazteleraz ere badator.

Bai, euskaraz moldatzen ez diren familiekin pentsatuta. Material guztia euskaraz dago, baina argibideak gazteleraz ere bai.

Ameriketako Estatu Batuetatik ere jaso duzue erantzunik.

Boiseko ikastolako irakasle bat harpidetu da, adibidez. Madrilgo eta Valentziako harpidedunak ere baditugu, Euskal Herrikoetz gain, noski. Oso pozik gaude orain arteko harrerarekin.

Inauteriak bai, baina ikastetxe barruan eta ikuslerik gabe

Aurreko urteetako modukoak ez izan arren, Aratustek ospatuko dituzte HH eta LHn, umore onari eutsiz

O.E. OÑATI

COVID-19 gaitzak baldintzatutako Aratustek izango dira aurtengoak, baina umoreari eutsi gura diote ikastetxeetan, eta, beste modu batean izanda ere, ospatu egingo dituzte. Burbuilak mantenduko dituzte eta ez dute publikorik izango.

Ikusleen artean, baina, aurten ez da gurasorik eta bestelako senide edo lagunik egongo. Txantxiku Ikastolan eta Elkar Hezin, gela bakoitzak berean ospatuko ditu Aratustek; Txantxiku Ikastolan gaur, egubakoitza, bertan.

Haur Hezkuntzako mozorroak neguari lotutakoak izango dira eta Lehen Hezkuntzakoak, libreak, bakoitzak erabaki du zertaz mozorrotu. Berdin egingo dute Elkar Hezin martitzenean, bakoitzak aukeratuko jantziekin joango dira ikasle txikienak eta gaztetxoak. Urgainen, urtero moduan landu dituzte Inauteriak eta aurten euskal mitologia izan da gai nagusia. Euren asmoa da kanpoko jolasleku handian egitea dantza gela bakoitzak banan-banan, martitzenean, eta txarra egiten badu, geletan.

NIRE USTEZ



ESTEBAN IRUSTA MALLEA

COVID 19tik iheska

COVID-19tik libratu ezinik gabiltza urtebetean, eta luze doan ahalegin honek, oraingoz, hasieran uste genuen emaitzarik eman ez duenez, psikologikoki eragina izaten ari da denongan. Frustrazio handia sortuz, zalantza betetako unean bizi gara; hasi birusaren eragina ukatzen dituztenekin, eta agintariak hartzen dituzten neurriak zorrotzagoak izan behar direla uste dutenekin jarraituz. Irtenbidearen jakin-nahiak "errudunak" alde guztietan bilatzera eramaten gaitu.

Komunikabideetan egunero agertzen dira alderdi politikoen eta eragile desberdinen arteko ohiko ika-mika antzuak. Denok, edo gehienok, harritu gaituen, epaileak ostalaritzari buruz hartutako erabakia izan da. Eusko Jaurlaritzak eta epidemiologoek, batez ere, beren haserrea azaldu dute. Ez dute ulertzen epaileek zientzialarien eginkizunean hanka sartze hau egitea.

Eztabaida hauen artean arduratuta gaude, baina amesgaiztoko tunel luze eta ilun honetatik aterako gaituen txertoaren zain gaude.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Santi Ugarte, Laura Pereda eta Carlos Eraña espeleologoak Iritegiko koban. AMET

Lur azpiak eman du albisterik

Joan den urtea, 2020a, ez da antzua izan Aloña Mendiko Espeleologia Taldeko kideendako. Azken 30 urteetan aurkitutako galeria handienak aurkitu dituzte Arantzazu errearen bueltan eta hainbat kobatako topografia lanak egin dituzte adibidez

Oihana Elortza OÑATI

Urte gorabeheratsua izan da pasatakoa Aloña Mendiko Espeleologia Taldearendako ere, baina ez da antzua izan. Sekulako aurkikuntza pozgarriak egin dituzte; esaterako, Arantzazu erreka 1 gunean topatu dituzten galeriak. "Oso handiak dira. 30 urtean ez dugu antzeraketatik topatu", dio, pozik, Santi Ugarte espeleologoak.

Galeria berriak

Inguru hori ezagutzen zuten aurretik. Bazekiten pasabide bat egon beharko zela, eta lanean hasi ziren hori topatu guran. "Ordu asko egin genituen lurra kentzen, bi egun izan ginen horretan. Eta azkenean, lortu genuen. Galeria berriak dira, Iturrigorri inguruan daude. Bidea egitea lortu dugu, baina oraindik badugu lana han. Or-

ditik, ez gara bueltatu, egia esan, eta noiz bueltatuko garen ere oraindik ezin esan", gaineratu du Ugartek. Izan ere, 2020ko gorabeherekin, AMETeko lagun taldea inoiz baino murriztagoa izan da. Taldeko kide gehienak dira oñatiarrak, baina batzuk kanpoan bizi dira, Bilbon, Arbizun eta Iruñean, esaterako, eta haiek ezin izan dira gura duten guztietan etorri, egoeratik. Bertan, herrian, zeuden kideekin egin dituzte irteera asko: "Baina, neurri batean, zortea ere badugu, herrian bertan koba asko ditugu eta".

ARRIKRUTZEKO GALERIA BERRIAK 200 METRO DITU, BAINA ESPLORATZEN JARRAITUKO DUTE

Arrikrutzen ere egin dute beste aurkikuntza bat: Elena jarri diote izena horko galeria berriari. Oraingoan, 200 metroko galeria da ikusi dutena, baina badute berriz barrura sartu eta esploratzen jarraitzeko asmoa.

Lan topografiko asko

Topografia aldetik ere urte eman korra izan da pasatakoa. Egia da aurretik ezagutzen zituzten koba askotara egin dituztela irteerak, baina bazuten horretarako arrazoi bat: topografiak egitea. Andartoko, Potorrosineko, Ugastegiko, Urbiako edo Perusaroiko hainbat kobatan izan dira, adibidez, lan hori egin, bakoitzak bere izendapena duen tokietan. Denetan garrantzitsuena, baina, Iritegikoa izan da: "Lehendik bagenuen lan hori eginda, marrazkiak bagenituen, esaterako, baina orain berriz

Ikerketa lur azpiko ibaietan

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren dirulaguntza bati esker, Arantzazu bailarako lur azpiko ibaien funtzionamendua ezagutzeko ikerketa hasi dute AMETeko espeleologoek. Sentsoreak jarri dituzte, arro hidrografikoa ikertzeko eta lur azpiko uraren zirkulazioa ezagutzeko eta aztertzeko. "Iturrigorritik Jaturaberaino, Gomiztegin, Arrikruz inguruan, Gesaltzan... Erreka txiki asko daude gune horretan eta horien funtzionamendua zein den jakingo dugu lan honekin", azaldu du Santi Ugartek. Inguruko kobetan urteetan batutako informazioa erabilgarri izatea da AMETekoek gura dutena, eta ura ardatz hartuta egin gura dute hori. Lan horren berri *Karaitza* aldizkariaren azken zenbakian, 27.ean, argitaratu dute AMETeko kideek. Aldizkari horretan ere sarri kolaboratzen dute oñatiarrek, eta Arantzazuko sare hidrogeologiko-endokarstikoari buruzko erreportaje zabala ere jaso dute, argazkiekin eta mapekin osatuta. Aldizkari horretako komisioko kide ere badira Aloña Mendiko espeleologoak.

Jasotako beste dirulaguntza batekin, garbiketa lanak egin dituzte espeleologo oñatiarrek gidatutako irteera batean. Arraskondoko leizearen garbiketa egin dute joan den urtean, Euskadiko Espeleologoen Elkargoko taldeen arteko koba garbiketa bat izan zen: bi tona eta erdi hondakin atera zituzten kobaren zulotik.



Datuei begira. AMET

egin dugu lan hori: neurtu, datuak osatu eta topografiatu. Inguru horren 3D topografia egin dugu, eta galeria berriak aurkitu eta topografiatu. Alde honen ezagutzak informazio asko eman digu koba honetako uraren zirkulazioa ulertzeko. Ikusi dugu bi erreka datozela, eta garbiago ikusten dugu orain".

Larrara bisita

Euskal Espeleologoen Elkargoak gidatuta, Hiru Erregeen Mahaia mendiaren inguruan urtero egin dute jardunaldi bat han. Herri ezberdinetako espeleologoak joaten dira, eta aurten ere izan dira Aloña Mendikoak. "Oso arrakastatsua izan da aurtengo kanpaina hori. Larra koba oso handia da, duela gutxira arte munduko zulorik sakonena izan da. Lauzpabost egun egin dituzte barruan, lur azpitik mila bat metrora, bi eta hiru gradutan,

IRITEGIKO KOBATOPOGRAFIATU EGINDUTE BERRIZ, MARRAZKIAK EGIN ETA DATUAK OSATU

abuztuan. Sekulako esperientzia izaten da hori. Hezetasun handia egoten da, gainera, baina taldeko askok diote Lizartzako gogorragoa dela, adibidez. Nafarroa eta Aragoi arteko mugan dagoen hori zabala eta handia da, eta hemengoa, berriz, oso estua; gorputzari eskakizun fisiko zein psikiko handiagoa egiten zaio Oñatikoa". Lizartzan, hain zuzen ere, eskalatzen ere izan dira eta gura baino denbora gehiago behar izan zuten ateratzeko, uragatik. Horri dagokionez, Ugartek dio aurten sarri izango dutela uraren arazoa, elur asko egin duelako. Urzulo da urte askotako proiektua. Joan den urtean ere joan ziren, baina han ez dute aurrerapenik egin oraingoan: "Bi gau pasa behar dira barruan, eta gero eta zailagoa da aurrera egitea".

2021ean ere bide beretik jarraitzeko asmoa dute AMETeko kideek, egoerak eskatzen dituen neurriak albo batera utzi gabe: "Janaria eta ura, esaterako, konpartitu egin izan ditugu beti, denona denontzat; orain, bakoitzak berea eramaten du. Ekipoak ere, bakoitzak du berea, eta horrela erabiltzen ditugu."

"Helduek asko gozaten dute ipuin kontaketen"

JOKIN IRUNGARAY IPUIN KONTALARIA

Ahoz Aho 2021 egitasmoaren barruan sartu da Oñati eta hiru ipuin kontaketa eskainiko dituzte otsailean liburutegian, haurrendako bat eta helduendako bi

Maialen Santos OÑATI

Elekaren ipuin sorta kontaketa eskainiko dute eguenean, haur liburutegian, Kattalin Salaberrik eta Jokin Irungarayk.

Zer da *Elekaren ipuin sorta*?

Eleka konpainiak azken hamabost urteetan gauzatu duen ikuskizun mota da. Bertso saioak dauden bezala, ipuin saioak egiten ditugu guk. Sei-zazpi bat ipuin kontaketen ditugu saio bakoitzean.

Zer-nolako ipuinak dira?

Guk hautatzen ditugu, eta badira mundu guztikoak; Afrikoak, Asiakoak zein Ekialdekoak, adibidez. Eta baditugu Euskal Herrikoak ere, mitologiatik heldu direnak eta bestelakoak. Ipuinak dituzten liburu asko irakurtzen ditugu, gustukoenak geureganatu, geure modura idatzi, eta guk kontatu gero. Kattalin Salaberrik (65 urte) egiten du lan hori, biok (33 urte) osatzen dugu Eleka konpainia.

Elkarrekin kontaktatzen dituzue ipuinak?

Bai; azken hamasei urteetan elkarrekin egiten ditugu saioak. Bitxia da gure arteko harremana. Kattalin nire irakaslea izan zen umetan. Kolegioan, DBHn, antzerki eskolan eman zizkidan. Lizeoan, batxilergoan, Euskal Kulturaren Erakundeak beka bat eman zidan istorioak kontaktatzen ikasteko tailer baterako; Koldo Ameztorekin egin nuen. Hori amaitzean, ikuskizun bat egin nuen Biarritzen. Daniel Landart-ek ikusi, eta Kattalinek ondo moldatuko nintzela pentsatu zuen, eta baietz esan nion proposamenari.

Nolakoa izan zen hasiera?

Hasieran, Landartek moldatu zizkigun istorio batzuk, eta Kattalin hasi zen gero lan hori egiten; duela hamasei urte. Ikuskizun handi bat egin genuen duela hamar urte Txomin Heguy taula zuzendariarekin, *Hau dela hori dela*, eta duela bi urte, dis-



Jokin Irungaray aktorea. ACCR

"HIRUZPALAU IPUIN KONTATUKO DITUGU OÑATIN EGINGO DUGUN SAIO BAKOITZEAN"

ko bikoitz bat atera genuen gure ipuinekin, *Hala izan ala ez izan*. Hamasei ipuin musikatu dira; lagun batzuk eta neu gara musika egin dugunak.

Baduzue beste proiekturik orain esku artean?

Datorren urtean beste ikuskizun antzeztuago bat taularatu nahiko genuke, Maika Etxekopar zuzendariarekin. Baina oraindik ez dugu izenik hautatu.

Oñatin badute arrakasta ipuin kontaketen. Berdina gertatzen da zuen inguruan?

Ez, ez zait iruditzen Iparraldean ohitura hori dagoenik. Baina pozten naiz hori jakiteaz. Iparraldean kontalari bakar batzuk badira, baina ez dugu lotura handirik gure artean eta publikoaren aldetik ez dago ohiturarik, nahiz eta hurbiltzen diren saioetara. Galdu egin da ohitura hori.

Ipuin kontaketen helduek ere gozaten dutela dio zuen esperientziak, ezta?

Hala da, bai. Saio horiek umeendako direla pentsatzen dugu beti, baina guk garbi ikusi dugu umeekin batera datozen helduek ere asko gozaten dutela.

Zer-nolako saioak egingo dituzue Oñatin?

Ordu erdiko bi saio egingo ditugu; bakoitzean hiruzpalau ipuin kontaketa ditugu. Gogotsu goaz Oñatira, pozik; normalean, Iparraldean izaten ditugu saioak, eta plazer handia da Hegoaldean aritzea. Espero dut gure ipuinekin gozatu eta amets egingo dutela, eta gure euskararekin bidaiatu ere egingo dutela.

Noren ipuinak entzuten dituzue zuek?

Azken bizpahiru urteetan bereziki lantzen gabilta ipuin kontaketen artea eta hasi gara frantses ipuin kontalarien saioetara joaten, inspiratzeko eta molde ezberdinak ikusteko. Iparraldeko bertako kontalariengana ere joaten gara; adinekoak dira gehienak. Eta gure gogoia da ere Hegoaldekoekin harremanetan egotea, ikasten jarraitzeko.



Penagos eta Lipus *Atzerrian lurra garratz* antzezlanean. TEATRO ARRIAGA

Antzezlan bana asteburuan, haurrendako eta helduendako

Lipus eta Penagos dira gaurko 'Atzerrian lurra garratz' laneko aktoreak, eta obraren estreinaldia izango da

M.S. OÑATI

Artedrama eta Huts Teatroa taldeek *Atzerrian lurra garratz* lana estreinatuko dute gaur, egubakoitza, Santa Anan antzokian. Duela bi urte hasitako proiektuaren estreinaldia izango da. Amancay Gaztañagak zuzendu du eta Ander Lipus eta Laura Penagos dira aktoreak.

Eta estreinaldiak dakarren urduritasunarekin baina pozik datoz gaur Oñatira. "Emakume artista atzeritar batek kontatu ahal digun horretan jarri dugu fokua, gu, euskaldunok, gai askoren gainean hausnartzera

bultzatzeko asmoz. Ez dugu erantzun zehatzik ematen, baizik eta galderak botatzen dizkiegu ikusleei; esaterako: posible al da gurea ez den lur batean sustraitzea? Eta posible da familiaren eta aberriaren zama gainean dugula hegaldi propioari ekitea?", aurreratu du Lipusek. Sarrerak agortuta daude.

Domekan, haurrendako saioak egongo dira. Hain justu, *Futbolariak eta printzesak* antzezlana ikusteko aukera izango da, Eidabe taldearen eskutik. Emanaldi bikoitza eskainiko dute: 16:30ean eta 18:00etan hasita.

Oscar sarietatik kanpo geratu da 'La trinchera infinita'

Aitor Arregik, Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako filma ez da sartu azken hamabost hautagaien zerrendan, eta horrenbestez, *La trinchera infinita* ez da lehiatuko Nazioarteko Oscar saria irabazteko.

Eguaztenean eman zuen aditzera Hollywoodeko akademiak 93 filmetatik zeintzuk diren lehian jarraitzen duten hamabost pelikulak. Hala eta guztiz ere, oraindik beste aukeraketa bat gainditu beharko dute azken lehian sartzeko. Hain zuzen, apirilaren 25an izango da Oscar sarietako gala. Donostia Zinemaldian zuzendari eta gidoi onenaren sariak eskuratu zituen euskal ekoizpenak.

OHARRAK

Erromeria tailerra

Erromerietako dantzak ikasteko aukera egongo da domekan, gaztetxean, 12:00etan, Oñatz dantza taldekoek gidatuta.

Erraldoien eskaera

Gebarako Iñigoren eta Katalinaren gomazko panpinen eskaera egiteko bi helbide eman ditu Oñatzek: onatz50komunikazioa@gmail.com eta [@oinatzdantza](https://www.oinatzdantza.com).

Geuretik Sortuak

Zabalik dago Geuretik Sortuak programako beka eskatzeko epea: www.udalbiltza.eus. Baita Katapulka Tour 2021-erako ere: www.gipuzkoa.eus.



Mondrako jokalaria Josu Arizmendiarieta. GOIENA



Bergarako jokalaria Andoni Najera. GOIENA



Gillen Mar, UDAko jokalaria. GOIENA



Markel Ugarte, Aloñako jokalaria. GOIENA

Xabier Urzelai ARRASATE

Otsaila da, eta Debagoieneko futbol taldeak denboraldi-aurrean murgilduta daude. Berez, irailko lehen astean idatzi beharreko lerroak dira hauek, baina hori da pandemiak ekarritako beste ondorioetako bat. Izan ere, Gipuzkoako Futbol Federazioak proposatuta, datorren asteburuan –otsailak 20 eta 21– berrekingo diote Ohorezko Erregional Mailari, eta ligako bigarren jardunaldia egongo da jokoan –urrian jokatu zuten lehenengoa–. Bistan dago liga berezia izango dela, eta Debagoieneko lau taldeetatik hiruk erabaki dute bertan parte hartzea. GOIENA talde guztietako ordezkariekin egon da, klubeko talde nagusiaren egoera zein den jakiteko.



ANDER ROMERO
MONDRAKO KIROL ZUZENDARIA

"Jokalariai orain ilusioz daude, eta horri eustea izango da gakoa"

Mondra futbol taldean hilabete hauetan entrenatzen jardun dute, baina helburu konkretu barik, Mondrako kirol zuzendari Ander Romerok aitortu duenez. "Ez da erraza liga txapelketa noiz hasi behar den jakin barik seriotasunez entrenatzea. Helburua zen jokalariai aktibo mantentzea, baina entrenamendu saioetara etortzea aukerazkoa izan da, ez dugu inor derrigortu. Izan ere, ligak noiz hasiko diren jakin barik, ezinezkoa da planifikazioa egitea. Orain, berriz, pare bat

Lautik hiruk jokatu dute


FUTBOLA Azken ordukorik ez badago, Gipuzkoako Federazioak proposatuta otsailaren 20an berrekingo diote Ohorezko Erregional Mailari. Debagoieneko lau ordezkarietatik hiruk erabaki dute jokatzeko; Aloña Mendiko jokalariek, berriz, ezezkoa eman dute

aste izango ditugu azeleragailua apur bat sakatzeko eta hurrengo jardunaldira ahalik eta ondoen iristeko".

Gipuzkoako Federazioaren proposamena jaso zutenean, Romerok onartu du jokalarien esku utzi zutela erabakia: "Egin genuen lehenengo gauza izan zen jokalariekin berba egin, eta eurek esan dute jokatzeko gogoz daudela. Egia da urri inguruan izan genuen positibo kasutik harago ez dugula aparteko ezustekorik izan". Izan ere, pandemiagatik liga bertan behera geratu eta gutxira, talde zuri-moreko bi talde nagusiek egon behar izan zuten konfinatuta: "Aste barruan elkarren artean lagunarteko bat jokatu genuen, eta aste amaieran jokalarietako batek positibo eman zuenean konfinatu gintuzten denok".

Halakoak ekiditea izango da hilaren 20an hasiko duten ligan lehenengo handiena, baina ez dago ezer aurreraterik: "Segurtasun neurri guztiak mantendu eta ondo lehiatzen ahaleginduko gara, nahiz eta txapelketa bera nahiko baldintzatuta egon daitekeen taldeen positibo kopuruagatik. Klubean bi jokalarik

esan dute arrazoi pertsonalengatik ez dutela aurtengo ligan parte hartzeko asmorik, eta erabaki errespetagarria da".



ENDIKA RUIZ
ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA

"Jarraian izandako bi konfinamenduek eragina izan dute, seguru"


Aloña Mendik ez dio liga txapelketari berrekingo, eta martitzenean eman zioten Federazioari erabakiaren berri. Erabaki hori hartu dute jokalariek. "Azken batean, eurak dira sutan jartzen direnak, berdegunean kutsatzeko arriskua dutenak, eta euren izan da erabakia", aitortu du taldeko entrenatzaile Endika Ruizek. "Gainera, azken hilabeteotan klubeko talde nagusiak ez dira entrenatu, eta otsailaren 20rako ezinezkoa izango litzateke gutxieneko bal-

dintzak beteko litzuzkeen denboraldi-aurrea egitea. Azken batean, gazte mailako kategorietatik beherakoak ibili dira Azkoagainen entrenatzen, baina osasun ikuspuntutik. Ulertzen dugu senior mailako jokalariai kapaz direla euren kabuz kirola egiteko, eta horien entrenamenduak bertan behera utzi genituen".

Hala, Oñatiko futbol taldeak galdutzat eman du 2020-2021 denboraldia, eta Ruizek onartu du denboraldi hasieran izan zituzten konfinamenduek eragin zuzena izan dutela jokalariek hartutako erabakian. "Hilabete eta erdian jokalariai birritan egon ziren konfinatuta, eta horrek eragina izan du erabakia hartzerakoan, seguru. Liga hasi aurretik, Antzuolaren kontra lagunartekoa jokatu genuen, eta, taldean positibo bat izan genuelako, berdegunean egon ziren hamaika jokalariai konfinatuta egon ziren. Eta, liga hasiaren batera, lehen jardunaldian Elgoibarren kontra jokatu eta eurretako batek positibo eman zuelako denak konfinatu gintuzten. Bitxia izan zen, Elgoibarren kontra jokatu eta bost egunera jaso genuelako arakatzailaren

deia. Kontua da bi konfinamendu haiekin konturatu ginela liga oso bat jokatzeko izan zitzakeen arrisku eta ondorioak, eta horregatik erabaki dugu ez duela merezi horrela ibiltzea".

Hala, Oñatiko taldekoek ez dute uste ligan parte hartzeko jasotako gonbidapenari ezezkoa emateak ondorioz izango duenik: "Esandako moduan, gonbidapena izan delako, parte-hartzea boluntarioa da eta azkena gertatzen denak ez du kategoria galduko. Ez dugu uste ez jokatzearren ondorioz egongo denik".



AGURTZANE ELKORO
UDA-KO PRESIDENTEA

"Gure apustua beti izan da kirola egitearen aldekoa"

"Aretxabaletan batzartu egin ginen ligari berrekitaren bueltan ze erabaki hartu ikusteko, eta jokalariei eta entrenatzaileei kontsultatu genien, azken batean, eurak direlako jokatu behar dutenak; zuzendaritzako kideok, berez, ez gara nor guk bakarrik erabaki hori hartzeko. Eta, erabakia izan ditzakeen ondorioak onartuta, jokalariek liga jokatzearren aldeko hautua egin dute".

Hala, otsailaren 20ra begira Agurtzane Elkoro presidentea aurreikusten du jokalariai lehiatzeako moduan egongo direla: "UDAn hasieratik egin dugu kirola egitearen aldeko apustua, eta entrenamenduei berrekiten baimena izan genuenetik Ibarrako ateak zabalik egon

dira; hori bai, segurtasun neurriak kontuan hartuta. Talde guztiak ibili dira entrenatzen, seiko taldetan, eta abar, eta esango nuke otsailaren 20an jokalaria lehian hasteko moduan egongo direla, ondo".



IOSU ELORZA
BERGARAKO PRESIDENTEA

"Liga honek aukera emango du harrobia kontuan izateko"

Jaurlaritzak futbol zelaietako atea osterera ere zabaltzeko aukera eman zuenetik, Bergarako jokalaria entrenatzen ibili dira. Hori horrela, mahoneroak fisikoki prest daude datorren astean liga hasteko. "Federazioaren proposamenaren berri izan genuenean, zuzendaritzan landu genuen gaia, eta jokalariekin eta entrenatzaileekin egin genuen berba. Eta erabaki dugu baietz, txapelketari berrekiteko konpromisoa hartuko dugula", adierazi du klubeko presidente Iosu Elorzak.

Jokalaria hilabete eta erdi honetan normal ibili dira lanean: "Eta bagenuen beldur hori; alegia, ligarik jokatu behar ez zutela jakinda ea jokalariek zegogo izango zuten entrenatzen jarraitzeko. Baina oso pozik gaude erakutsi duten jarrerarekin. Are gehiago, aste barruan jenderik ez pilatzeko, entrenamendu saio batzuk asteburuetara pasa genituen, eta jendearren erantzuna oso ona izan da".

Hala, Bergara ere liga jokatuko duten taldeen artean egongo da: "Formatu erakargarria dauka, eta zorte apur batekin Hirugarren Mailara igotzeko borrokan egon daitezkeen taldeen artean egon zaitezke. Eta, kontrara, inork kategoriarik galduko ez duela jakiteak lasaitasunez jokatzeo aukera emango die. Federazioak aukera eman digu harrobitik 8-10 jokalaria lehenengo taldera igotzeko, positiboak badaude taldeak jokalaria barik ez geratzeko, eta horrek, hain zuzen ere, gazteen artean minutuak banatzeko aukera ematen du".

"Hirugarren Mailara nor igo dago erabakitzeo"

MANU DIAZ GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente Manu Diaz bergarra Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* saioan izan zen astelehenean. Bertan eman zituen hastear dagoen ligaren gaineko xehetasunak. **Zeintzuk da orain momentuan Federazioak dituen kezkak?** Egoera ez da erraza, taldeek eta jokalariek hilabeteak daramatzate eta partidurik jokatu barik, eta, horrekin batera, herri batzuk gorrit daudenez, askok entrenatzeko aukerarik ere izan ez dutelako. Hori da gure kezketako bat, baina ez bakarra.

Jakin dugun berria da Ohorezko Erregional Mailari otsailaren 20an berrekingo diozuela.

Baimen hori jaso dugu Eusko Jaurlaritzaren partetik. Kontua da kategoria horretako jokalaria bat maila nazionalera igo behar dela denboraldi amaieran; alegia, Hirugarren Mailara. Txapelketa hori Espainiako Futbol Federazioak antolatzen du, eta, hori horrela, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako federazioek bat egin dugu Euskadikoarekin batera, eta Jaurlaritzari eskatu diogu Ohorezko



GOIENA

Erregionala liga semiprofesionalen talde berean sartzeko. Hori eginda, kategoria horri berrekiteko baimena eman digute.

Ze formatu izango du liga berri horrek?

Itzuli bakarra izango duen ligaxka moduko bat jokatuko dute taldeek, eta aurrean sailkatzen direnek *play-off*

moduko bat jokatuko dute; hau da, kanporaketa sistema bidez egingo dute aurrera. Hor egongo dira final-laurdenak, finalerdiak eta finala, eta, osasun egoerak baimentzen badu, esango nuke modu polita dela liga txapelketa berezi honi amaiera emateko. Talde irabazlea Hirugarren Mailara igoko da, eta ea bailarako talderen bat ikusten dugun borroka horretan.

Kategoria, berriz, ez du inork galduko.

Ez; ez litzateke bidezkoa izango. Esaterako, Lesakako Beti Gaztek Gipuzkoako ligan jokatzen du, baina ez dago euren esku jokatzea edo ez, besteak beste, Nafarroako Gobernuaren baimena behar dutelako mugaz bestalde jokatzen ibiltzeko. Eta horiekin batera, jokalaria faltan daudelako edo dena delakoagatik talderen batek ez jokatzea erabakitzen badu, ez da jaitzierarik egongo.

Kategoria txikiagoetan, oraingoz, geldirik jarraituko du denak.

Halaxe da; osasun egoerak onera egiten ez duen bitartean ez dut uste hor aldaketarik egongo denik. Egia da Gipuzkoako Federazioa izan dela, alde horretatik, lasaitasun handiena izan duen federazioetako bat, beste leku batzuetan kategoria txikietako ligei berrekiteko saiakeretan ibili dira eta. Baina, ondoren, atzera egin behar izan dute erabaki horrekin. Gu egunero elkartzeko gara, etengabe hartu behar dira erabakiak, baina, oraingoz, maila txikietan ezin dugu ezer egin. Hor klubak lan handia egiten dabilta entrenamenduak osasunez egin ditzaten bermatzen.

Oraingoz, bada, Ohorezko Erregionala otsailaren 20an hasiko duzue, baina futbol zelaietako harmailetan ez da ikuslerik egongo.

Ez; hor ere ez dago aldaketarik; pentsa, Anoetara ere ezin gaitezke joan Realaren partiduak ikustera. Pena da; izan ere, Ohorezko Erregional Mailako partiduetan harmailetan ez da jendetzarik batzen, 150 ikusle inguru joaten dira herriko futbol zelaietara eta lekua egoten da osasun neurriak ondo errespetatzeko, baina orain momentuan araudia horrela dago eta errespetatu egin behar da.



Euskadi Fundazioko hainbat txirrindulari eta ordezkari. MARKEL BAZANBIDE

Bost ziklista debagoiendar daude proiektu laranja

TXIRRINDULARITZA Mikel Aristi, Julen Irizar, Xubane Garai, Ainhize Barrainkua eta Garazi Estebez daude taldean

X.U. ARRASATE

Martitzenean aurkeztu zuen Euskadi Fundazioak 2021era begira dituen egitasmoak, eta *Kirol proiektu bat baino gehiago* izan zen erabili zuten leloa. Izan ere, hiru proiektutan egongo dira murgilduta: Euskaltel-Euskadi taldea, bigarren urtez UCI Pro Team kategorian lehiatuko dena; Laboral Kutxa taldea, lehen aldiz UCI Women's Continental Team kategorian egongo dena –emakumezkoen bigarren maila–; eta azkenik, 23 urtez azpiko Laboral Kutxa taldea, talde profesionalaren egitura filial gisa lehiatuko dena estreinakoz.

Eta proiektu horietan Debagoienak bost ordezkari izango ditu, guztira: Mikel Aristi eta Julen Irizar bergararrak –gizonezkoen UCI Pro Team taldean– eta Ainhize Barrainkua, Xubane Garai eta Garazi Estebez Continental mailako Laboral

Kutxa taldean. Hala, guztira, 50 txirrindularik osatzen dute Euskadi Fundazioaren kirol-egitura.

20 ziklista Azanzaren esanetara

Euskadi Fundazioaren talde ikurra Euskaltel-Euskadi izango da. Jorge Azanza ziklista ohia izango da zuzendaria, eta hogeitxirrindulari edukiko ditu bere aginduetara. Tartean, Mikel Aristi eta Julen Irizar bergararrak.

Azanzak bi helburu lehenetsi ditu denboraldi berrirako: "Batetik, etapa garaipenak lortzetik gertu egoteko saiakera egin behar dugu; hori da UCI World Tourreko gonbidapenak lortzeko bidea: Euskal Herriko Itzulia, Espainiako Itzulia... Eta bestetik, ezin dugu harrobi-lana ahaztu: 23 urte azpiko taldea, txirrindularitza eskolak... Egitura profesionala elikatzeo gure haztegiak dira".

ZIKLISMOA Gorlako Igoera antolatzeko lanean dabil Lokatza

Pandemiaren eraginez iazko egutegian egon zen hutsunea gainditzeko lanean dabilta Lokatza ziklismo eskolako lagunak, eta 2021ean egin gura dituzten lasterketen artean Gorlako Igoera –martxoaren 28an– izango litzateke lehena. Hain zuzen, Lehendakari Txapelketako laugarren hitzordua izango litzateke Debagoienekoa.



2019ko irabazle Lacalle. GOIENA

Pandemia eta tragedia, amodiozko gutun askoren abiapuntua

Asteon izan beharko luke Jardun euskara elkartearen Amodiozko Gutunen eta Esaldien Lehiaketaren sari-banaketa ekitaldiak; ez dute egingo, baina banatu dituzte bost sariak



Maitane Arizabaleta eta Karmele Uribealzo, iazko sari banaketan. JARDUN

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Pozik daude Jardun euskara elkartekoak Amodiozko Gutunen eta Esaldien Lehiaketak izan duen harrerarekin; 66 gutun eta 42 esaldi jaso dituzte. "Faltan igarri ditugu Arabakoak eta Iparraldekoak. Aurten, leheneko, 40 urtetik gorako parte hartzaileen artean gizonezkoak dira nagusi; lehiakideen batez besteko adina 35 urte da", dio Jarduneko Maitane Arizabaletak.

Iazko irabazle nagusi Karmele Uribealzo bergararrak jardun du helduen epaimahaikide, Josu Ozaita antropologoarekin, Beñat Gaztelumendi bertsolariarekin eta Oihane Vicente abeslari eta dantzariarekin. Uribealzoaren esanetan, orokorrean, oso gustura irakurri dituzte gutun guztiak: "Maila ona dago, eta zazpi lan zeuden puntu bat gorago. Gaiak oso originalak dira; badira bikote harremanei buruzkoak, baina ez dira gehienak. Orokorrean, iazkoekin alderatuz, pandemia presente dago askotan, eta tragediarako joera ere badagoela komentatu dugu gure artean; gertakari gogor asko, baina badira umoretik jotzen duten beste gutun batzuk ere".

Bigarren saria, bitan banatuta
Sari nagusia Maialen Akizuri emateko orduan guztiak ados zeudela dio Uribealzo: "Nabarmen gailendu zen gutun hori; idazteko eta kontatzeko modu berezia du, eta oso entretenigarria da".

Bigarren sarirako, berriz, bi hautagai zituzten, eta, azkenean, bien artean banatzea erabaki zuten: "Oso ezberdinak dira. Inigo Legorbururena gutun tradizionalagoa da, pilotarekin lotura dauka, eta oso hitz-joko politak egiten ditu. Galder Guenagarena, berriz, estilo aldetik oso ezberdina da: oso ondo idatzita dago, gertuko idazteko modua du", azaldu du epaimahaikideak, eta honela kontatu du Guenagak: "Maitasun harreman konbentzional bat da; mutil batek neska bati idatzitakoa, baina ez da oso esplizitua. Gutunaren muina poema bat da. Pandemia garaian kokatuta dago, eta horrek osatzen du testuingurua. Oso gustuko dut lehiaketa, asko gustatzen zait formatua. Ni neu aurkezteko arrazoia hirugarren baten iritzi objektiboa eta baliagarria jasotzea izan da, eta saria, oso pozgarria!".

"Hustuketa bat da, maitasunaren eta haserrearen nahasketatik egina"

MAIALEN AKIZU BIDE GAIN LEHENENGO SARIAREN IRABAZLEA

EHuko AFIT ikerketa taldeko ikerlaria da ogibidez, eta idaztea oso gustuko du Araman bizi den 24 urteko urretxuarrak.

Zorionak! Pozik?

Poz-pozik! Sorpresa izaten da beti sariak jasotzea, bai.

Zer kontatu nahi izan duzu sari nagusia irabazi duen gutunean?

Bakarrizketa bat da, haserre momentu batean idatzitako hustuketa. Ez nuke esango inori zuzendua dagoenik, baina idazleari idazteak balio dio beste pertsonak eta gertatutakoak kokatzeko.

Zelan izan zen idazketa prozesua?

Oraingo hau nahiko beroan egin nuen, horixe baitzen helburua, hein batean, maitasuna beroaldiarekin lotzea, baina beroaldi biolentoarekin ere bai. Harremanetan, eta maitasun harremanetan ere, marmarra,



MAIALEN AKIZU

amorrua, gorrotoa presente daude, eta uste dut, askotan, bereizitako eremu gisa azaltzen zaizkigula.

Zer egin zaizu zailena eta zer gustukoena?

Tonua harrapatzea izan da zailena eta gustukoena ere bai.

Bergarako sariketan parte hartzen duzun lehen aldia?

Bai. Sari banaketa kuriosoa egin zait beti, irabazleetako batzuk ezagutu ditut eta amodiozko gutunen ez-garai honetan ariketa polita izan da.

Baduzu, orokorrean, idazlan sariketatar aurkezteko ohiturarik?

Gazteago nintzela, bai, sariketak izaten ziren idazteko akulu. Aspaldian aurkeztu gabe nengoen eta Jardunen sariketak neurri eta gai kuriosoak ditu horretarako ere.

Arloko beste hainbat aditurekin batera, zu zeu ere epaimahaikide izango zara datorren urtean; erroka handia zuretzako?

Epaimahaikide gustura izango naiz! Sariketa honek urte batzuk badaramatza, eta urtero ikusten da amodioaz oraindik badagoela zer esana, nola eta nondik kontatua.

Aurten, egoerak behartuta, sari-banaketa ekitaldirik ez da egingo. Pena duzu?

Egia esan, bai, pena da, baina ezin egin; hortaz...

Hala ere, merezitako saria jasoko duzu; erabakita duzu zertan gastatuko duzun irabazitako dirutxo?

Gure etxeko lanpasak hala dio: hemen dena ospatzen da. Sari hau ere ospatuko dugu.

ARTXIBOTIK TIRAKA

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 12AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

BERGARAKO ARATUSTE KONTZERTUA URTEZ URTE

goiena
Zu hemen zaude.



Beste biak, Bergaran

Aranzadi ikastolako Garazi Bizentek eta Nayla Perezek eta Ipintza institutuko Unai Zabalak, Goizeder Elkoroberezibarrek eta Irati Callesek osatu dute gazte epaimahaiak, eta Ainhoa Pardina bergararrari eman diote Gazteen saria.

Helduen epaimahaiak Bergarako saria iaz sari bera eskuratu zuen Izar Odriozolari ematea ebatsi du. "Gutun gordina da, tragikoa, baina bukaeran buelta ematen dio". Psikiatrikoan

bere buruaz beste egiten saiatu den alabak amari barkamen eske idazten dion gutuna dela azaldu du egileak: "Euren harremana urte luzez apurtuta dago eta alabak egoera hori aldatu gura du. Arratsalde baten eta inprobisatuz idatzi nuen. Hirugarren aldiz aurkeztu naiz eta hirugarren saria lortu dut. Asko gustatzen zait lehiaketaren formatua, eta, gainera, amodiozko gutunak ulertzeko abanikoa zabaltzen du, gero eta igorle eta hartzaile bitxiagoak agertzen

dira eta. Saria bazkari goxo baten xahutuko dut, nire herrian, noski!".

'Jardun.eus' atarian entzungai

Irizar jauregian urtero egiten duten sari-banaketa ekitaldirik ez da izango, eta *Jardun.eus* atarian *-Goiena.eus-* en ere bai-izango dira gutun irabazle guztiak irakurgai eta egileek grabatuta entzungai. Ekitaldi "estimatu" izaten da, eta antolatzailerak eta parte hartzaileak "penaz" dira ez delako egingo.

"Giza eskubideek hausnartzen ez duten pertsoneri idatzitakoa da"

AINHOA PARDINA ARENAZA GAZTE SARIAREN IRABAZLEA

Oso gustuko du Amodiozko Gutunen Lehiaketa, eta urtero hartzen du parte; Gazteen saria eskuratu du aurten, Bergarako saria birritan irabazi ondoren. **Zorionak! Espero zenuen?** Egia esan, ez. Aspaldi idatzitako gutunak dira, 2014koak, eta ez dut berdin idazten; sorpresa izan da saria, bai.

Zerk animatu zaitu orain bidaltzera?

Denboraz oso justu nabil, eta aurrez egindako batzuk bidali ditut. Bidali aurretik irakurri nituenean harritu egin nintzen, ez nituen gaizki ikusi; epaileei gustatu egin zaie emaitza.

Zer kontatu duzu eta noren azalean sartuta?

Giza eskubideek askorik hausnartzen ez duten pertsoneri idatzitakoa da. Oinarrian, giza eskubideak dira gai eta protagonista, baina beste gai batzuk ere sartu ditut; adibidez:



AINHOA PARDINA

dispertsioa, matxismoa, tratu txarrak, desjabetzeak... **Gogoratu duzu nola izan zen idazte-prozesua?** Argi nuen ez nuela *ohiko* maitasun harreman bati buruz idatziko, originalagoa egin nahi nuen. Eta, antza denez, oso inspiratuta nengoen; izan ere, arrapaladan atera zitzaizkidan gutunak bata bestearen ostean, hamabost bat inguru. Batzuk aukeratu eta bidali egin nituen; ez nuen saririk jaso, eta orain etorri da oparia.

Dagoeneko hirugarren saria duzu Jardunen lehiaketan, eta herriko Koldo Eleizalden ere hainbat irabazi dituzu.

Bietara saiatzen naiz urtero lanak bidaltzen. Koldo Eleizalden sariketarako denetarioak idatzi ditut: ipuina, bertsoa eta poesia; guztira, lau sari jaso ditut.

Ze garrantzi ematen diezu idazketa lehiaketei?

Euskaraz egindako edozein gauza, lehiaketa... oso onak dira euskararendako; hortaz, oso garrantzitsuak direla uste dut, jendea idaztera bultzatzen dutelako. Niretzako ere akuilu dira, askotan; oso gustuko dut idaztea, baina denbora faltagatik, nahiz eta askotan aitzakiatik ere baduen hori esateak, lehiaketa batek idaztera bultzatzen nau. Hau, gainera, motza da, aitzakia ona idazteko.

Lanbidez ere euskara kontuetan jarduten duzu.

Soziolinguistikari aritzen naiz, gehienbat. Aisialdi orduetan ere euskararen alde lan egiten saiatzen naiz, urte batzuk daramatzat Jardun euskara elkarteke zuzendaritza taldean.

Esaldi onena, Galder Guenaga Garaik

Urtero legez, epaimahaiakide gazteek aukeratu dute esaldi irabazlea. Urtez urte jasotako lanen kopurua gora doa, eta aurten 42 esaldi heldu zaizkie.

"Esaldi poetikoa"

Parte hartzaile askok esaldi bat baino gehiago bidaltzeko ohitura dute, eta hala egin du irabazleak, Algortan bizi den Galder Guenaga eibartarrak. Zazpi esaldi bidali

zituena sariketara –bost luzeak, poema itxurakoak, eta bi, esaldi laburrak—. "Jolas moduko bat da niretzako esaldiak asmatzea. Oso gustuko ditut hitz-jokoak, eta erri-merkin jolastea, eta, horregatik, sariketa jolas polita da niretzako".

Larru-ikara, zu ukitu orduko, sutan dauzkat oro gorputz atalak, zu zara eragile eta lekuko, hau ezin du neurtu Richter eskalak. Hori izan da

esaldirik onena. "Poesia oso gustuko dudanez, poema txiki batzuk idaztea pentsatu nuen esaldi solteak bakarrik beharrean; oso pozik nago epaileei ere gustatu zaielako".

EHUko Ekonomia eta Enpresa irakaslea da Guenaga, eta oso gustuko du idaztea. "Formatu laburreko lehiaketak ditut gustuko. Jardunena asko gustatzen zait eta Leioako Amodiozko Gutunen Sariketara ere aurkeztu izan naiz".

Goiena Klubaren txokoa**Goiena Klubeko otsaileko sariak!**


Errigorako saskia
Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OSTAILA 2021

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremanak.org
Otarren Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: klub@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Inpriman dagoen DFD 15/1999 legearen arabera jalarazten ditugu sari-dutunentzako Goiena Foruakako Lehiaketan. Inpriman dagoen DFD 15/1999 legearen arabera jalarazten ditugu sari-dutunentzako Goiena Foruakako Lehiaketan. Inpriman dagoen DFD 15/1999 legearen arabera jalarazten ditugu sari-dutunentzako Goiena Foruakako Lehiaketan. Inpriman dagoen DFD 15/1999 legearen arabera jalarazten ditugu sari-dutunentzako Goiena Foruakako Lehiaketan.

Irabazi bi lagunendako otordua**TARTUFO JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: Otsailaren 16a arte

943 25 05 05 klub@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak**Arrasateko udalari esker**

Oreka TX taldearen kontzertuareko sarrerak ditugu
Arrasate | Amaia Antzokia | Otsailaren 22an | 19:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: klub@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Kontzertua" [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Inpriman dagoen DFD 15/1999 legearen arabera jalarazten ditugu sari-dutunentzako Goiena Foruakako Lehiaketan. Inpriman dagoen DFD 15/1999 legearen arabera jalarazten ditugu sari-dutunentzako Goiena Foruakako Lehiaketan. Inpriman dagoen DFD 15/1999 legearen arabera jalarazten ditugu sari-dutunentzako Goiena Foruakako Lehiaketan. Inpriman dagoen DFD 15/1999 legearen arabera jalarazten ditugu sari-dutunentzako Goiena Foruakako Lehiaketan.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 57€
Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Apartamentua ematen da errentan, pertsona batentzat edo bikote batentzat egokia. Hilean 500 euroko errenta. 654 88 42 60

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Telefonoa: 633 49 27 40

Arrasate. Bikote batek eta alabak osatutako familia gara eta etxebizitza behar dugu errentan. Telefonoa: 722 45 58 75

Arrasate. Lau kideko familia batek etxebizitza behar du errentan, Musakolan. Lana daukagu. Katua daukagu, baina lasaia eta garbia da. Presazkoa da. 651 89 59 16

Bergara eta inguruak. Hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. Gehienez ere, 600 euro ordain ditzakegu hilean. 671 16 54 60

Bergara. Bi pertsona nagusirendako etxebizitza behar dugu errentan. Iggogailuarekin edo beheko solairuan. Pentsiodunak gara. 645 72 92 87

Bergara. Hiru logelako eta igogailua duen etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Iggogailurik ez badu, lehenengo solairua izateko gustatuko litzaizuke. 660 46 34 93

Oñati. Etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. 631 94 06 22

Oñati. Neska gazte bat Oñatian etxebizitza bila. Bakarrik hartuko nuen, 300 euro inguru ordain ditzaket. 600 34 87 13

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, San Lorenzo. 699 75 52 21 edo 619 48 49 67

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate edo Bergara. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 633 49 27 40

Arrasate. Asteazken zehar, goizetan, etxeko lan eta garbiketarako egiteko gertu. 648 80 33 52

Arrasate. Nagusiak zaintzen 20 urteko esperientzia daukat eta orduka lan egingo nuke, goizez edo arratsalde. Legezko agiriak eta etxeko lanak langile ziurtagiria daukat. 602 64 68 17

Arrasate. Umeak zaintzen eta garbiketarako egiten lan egingo nuke. Telefonoa: 631 37 44 53

Bergara. Erizain laguntzailea prest astelehenerdik egubakoitzera bitartean lan egingo. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketarako eta abarreak. Telefonoa: 671 16 54 60

Debagoiena. Asteburuetan zaintza lanak egingo gertu nago. 632 25 27 26

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko. 688 73 51 32

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke zaintza eta garbiketarako. Telefonoa: 632 37 65 40

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu nago. 642 10 87 45

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketarako lan egingo nuke. Telefonoa: 640 70 57 94

